

# **“ORIXE” INSTITUTUAREN CURRICULUM PROIEKTUA (ICP)**

## **0.- SARRERA**

ICP honek duen egituraz hainbat aipamen. Lehenik eta behin garbi utzi nahi dugu nahiz eta bi etapatan banatua izan, DBH eta DOBH (ZIG-LT eta Batxilergoa), ikastetxe bakar bat garea. Horrek suposatzen du irakaskuntza-ikaskuntza oinarri bereberekin jokatu behar dugula. Oinarri horiek, Institutuak eskeintzen dituen ikasketa desberdinei egokitzen saiatu gara. Horregatik, dokumentu honen atal askotan, etapa eta ikasketa bakoitzari dagokiona islatu dugu.

Beste aldetik, zenbait irakaslek etapa desberdinetan lan egiten dute. Beraz, irakasle berberak bere eguneroko praktikan ezin izango ditu erreferentzi desberdinak izan. Arrazoi guzti hauengatik, ICP hau bere osotasunean hartu beharrean gaude. Horixe izan da, beraz, bere eraketan egin duguna: atal orokorrak denon artean egiten saiatzea. Ondoren, eta bitartean, bai etapaka, eta bai mintegi eta sailka, bakoitzari dagokiona osatzen joatea.

## **1.- OROKORTASUNAK**

### **1.1.- “ORIXE” BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA**

#### **EZAUGARRIAK:**

Orixe Bigarren Hezkuntza Institutua Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoa da. 1974ko azaroan sortu zen eta hezkuntza eskaintza aldatzen joan da, legeriaren bilakaerarekin batera. Hasieran, Irakaskuntza Ertaineko Institutua izan zen eta HSAOLen ezarpenaren ondorioz oraingo egoerara iritsi da.

Tolosako Santa Lutzi auzoan kokatuta dago, herri honetako hezkuntza eskaintza publikoa koncentratzen den tokian. Aldamenean Samaniego Herri Ikastexea (Haur eta Lehen Hezkuntza) eta Tolosaldea Institutua (Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutua) aurkitzen dira.

Egun, DBHn (295 ikasle), Batxilergoa (174 ikasle, hiru modalitateetan: Giza eta Gizarte Zientziak, Natur eta Osasun Zientziak, eta Teknologia), eta bi Zeregin Ikasketa Gela (ZIG) eta Lanbide Tailerra (LT) (12 ikasle).

Gure ikasleak Tolosaldea eskualdeko herrietatik datoz eta D ereduan ikasten dute.

67 irakaslek, hezkuntza bereziko laguntzaile batek, 2 administrarik, 3 atezainek eta 3 garbitzailek osatzen dugu Institutuko plantila.

Nabarmendu beharrekoa da Hezkuntza Sailak gure eskualdeko erreferentetzat hartzen gaituela hainbat beharrei erantzuteko: ZIG-LT geletarako, ...

## 1.2.- ESPARRU ARAUEMAILEA ETA ICP-REN AIPAMENAK

1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKOA.

16. atala. 2. Ikastetxeek ikasturte hasieran jakinarazi beharko dituzte ebaluazio-irizpideak eta ikasmaita nahiz ziklo bakoitzean gaintitu beharreko gutxieneko helburuak, ikastetxearen ikasketa-proiektuan jasotakoak hain zuzen.

47. atala. Ikastetxearen ikasketa-proiektuak hezkuntza-proiektua garatzen du irakaskuntzaren arloan. Gutxienez, ondorengo edukiak izango ditu:

- a) Ikasleen beharrei egokitutako irakaskuntza-helburuak eta -edukiak, irakaskuntzaren alderdi guztietan, indarrean dauden irakaskuntza elebiduneko ereduak ikastetxean ezartzeari loturikoak barne.
- b) Irakaskuntza-edukien banaketa.
- c) Ikastetxeko irakasleen lanak jarraipena izango duela berma dezaten pedagogi eta irakas-irizpideak.
- d) Irakas-metodologiaren eta ikas-materialen alorrean egindako aukerak.
- e) Hezkuntzako beharrian bereziei nola egingo zaien aurre.
- f) Ebaluazio-irizpideen gauzatzea eta osabetetzea.

**“2006ko ekainaren 30eko ebazpena, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordeena, Bigarren Hezkuntzako eta Goi-Mailako Lanbide Heziketako Berriazko Institutuetan 2006-2007 Ikasturtea Antolatzeko Moduari buruzkoa.**

*Ikastetxeko jardueren plangintza eta antolaketa egiteko baliabideen artean, ICPari buruzko aipamenak egiten ditu (Ikasketa-Proiektua deitzen dio eta Hezkuntza-Proiektuari lotu ere bai). Beste gauzen artean zera esaten digu:*

“...Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikulua dioenaren arabera, irakasle-talde guztiak eta irakasleak eurak ikastetxearen hezkuntza-proiektuari (IHP) eta ikasketa-proiektuari (IIP) loturik egongo dira. Horiei men egitearen barruan, eskolako jarduerak lantzeko eta programatzeko nahiz bakoitzak bere arloko jardueraregitarrak eramateko egoki irizitako erabakiak hartu ahal izango dituzte. Irakasle bakoitzaren erabaki horiek, dena den, beti egon behar dute IHPk eta IIPk ezarritakoaren mende, eta beraz, jarduerak prestatu eta programatzeko bakoitzaren eskumen horretan ere men egin beharko zaie OOGk (IHP) eta irakasleen klustroek (IIP) behar bezala onetsitako kudeaketa-sistema edo bestelako antolamendu-neurriei.

Ikastetxe guztiek antolamendurako bi baliabide horiek (*Hezkuntza Proiektua, HP, eta Ikastetxeko Curriculum Proiektua, ICP*), .... zentzuzko epe baten barruan edukitzea beharrezkoa da. Horrek esan nahi du ikastetxe bakoitzak antolamendurako baliabideak lantzeko lana hartu behar duela; hau da, pixkanaka pixkanaka proiektu horiek itxuratuko dituen gogoeta, azterketa eta erabakiak hartzeko taldeko prozesuarekin hasi edo jarraitu behar dela.

Ikastetxe bakoitzak izan behar du zein alderdi landu, nola eta zein momentutan zehaztu behar duena, aukeren, beharren eta lehentasunen arabera. Halaber, ikastetxe bakoitza izango da, bere ibilbidearen arabera, lehentasuna zein arlori eman eta arlo bakoitza nolako sakontasunarekin landu erabakiko duena. ...

Eskatzen dena da erabaki horiek idatzita azaltzea, ikasturtean zehar lortu duen zehaztaperen-mailarekin. Gogoeta-prozesuaren lehen emaitzatzat eta gero eman beharreko urratsen oinarritzat hartuko dira erabakiok.

Egoera honek bultzatu behar du ikastetxeek prestakuntza eta berriztapen-prozesuak planteatzera. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila prozesu hauek laguntzen saiatzen da, prestakuntza-proiektutarako dirulaguntzetarako deialdien bitartez, ikastaroetara bertaratzearen bitartez, eta eskualdeko zerbitzuek edo kanpoko eragileek eskainitako aholku-lanaren bitartez. ...”

## *LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.*

Preámbulo:

.....

La definición y la organización del currículo constituye uno de los elementos centrales del sistema educativo

.....

La educación secundaria obligatoria debe combinar el principio de una educación común con la atención a la diversidad del alumnado, permitiendo a los centros la adopción de las medidas organizativas y curriculares que resulten más adecuadas a las características de su alumnado, de manera flexible y en uso de su autonomía pedagógica.

....

### TÍTULO V

Participación, autonomía y gobierno de los centros

...

### CAPÍTULO II

Autonomía de los centros

Artículo 120. Disposiciones generales.

1. Los centros dispondrán de autonomía pedagógica, de organización y de gestión en el marco de la legislación vigente y en los términos recogidos en la presente Ley y en las normas que la desarrollen.
2. Los centros docentes dispondrán de autonomía para elaborar, aprobar y ejecutar un proyecto educativo y un proyecto de gestión, así como las normas de organización y funcionamiento del centro.
3. Las Administraciones educativas favorecerán la autonomía de los centros de forma que sus recursos económicos, materiales y humanos puedan adecuarse a los planes de trabajo y organización que elaboren, una vez que sean convenientemente evaluados y valorados.
4. Los centros, en el ejercicio de su autonomía, pueden adoptar experimentaciones, planes de trabajo, formas de organización o ampliación del horario escolar en los términos que establezcan las Administraciones educativas, sin que, en ningún caso, se impongan aportaciones a las familias ni exigencias para las Administraciones educativas.
5. Cuando estas experimentaciones, planes de trabajo o formas de organización puedan afectar a la obtención de títulos académicos o profesionales, deberán ser autorizados expresamente por el Gobierno.

### Artículo 121. *Proyecto educativo.*

1. El proyecto educativo del centro recogerá los valores, los objetivos y las prioridades de actuación. Asimismo, incorporará la concreción de los currículos establecidos por la Administración educativa que corresponde fijar y aprobar al Claustro, así como el tratamiento transversal en las áreas, materias o módulos de la educación en valores y otras enseñanzas.
2. Dicho proyecto, que deberá tener en cuenta las características del entorno social y cultural del centro, recogerá la forma de atención a la diversidad del alumnado y la acción tutorial, así como el plan de convivencia, y deberá respetar el principio de no discriminación y de inclusión educativa como valores fundamentales, así como los principios y objetivos recogidos en esta Ley y en la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación.
3. Corresponde a las Administraciones educativas establecer el marco general que permita a los centros públicos y privados concertados elaborar sus proyectos educativos, que deberán hacerse públicos con objeto de facilitar su conocimiento por el conjunto de la comunidad educativa. Asimismo, corresponde a las Administraciones educativas contribuir al desarrollo del currículo favoreciendo la elaboración de modelos abiertos de programación docente y de materiales didácticos que atiendan a las distintas necesidades de los alumnos y del profesorado.
4. Corresponde a las Administraciones educativas favorecer la coordinación entre los proyectos educativos de los centros de educación primaria y los de educación secundaria obligatoria con objeto de que la incorporación de los alumnos a la educación secundaria sea gradual y positiva.
5. Los centros promoverán compromisos educativos entre las familias o tutores legales y el propio centro en los que se consignen las actividades que padres, profesores y alumnos se comprometen a desarrollar para mejorar el rendimiento académico del alumnado.

## **1.3.- LABURPEN MODUAN:**

### **1.3.1.- DBHko ICPren ATALAK:**

- ⇒ *Etapako helburu orokorrak egokitzea*
- ⇒ *Institutuaren hizkuntz planteamendua*
- ⇒ *Irizpide metodologiko orokorrak*
- ⇒ *Material curricularrak eta baliabide didaktikoak*
- ⇒ *Aniztasuna tratatzeko eta egokitzen curriculumarretarako irizpideak*
- ⇒ *Ikasleen ebaluazioa*
- ⇒ *Hezkuntza-orientabidea eta tutoreen lana*
- ⇒ *Zehar-lerroak curriculumean txertatzeko orientabideak*
- ⇒ *Curriculum Proiektuaren eta irakaskuntzaren ebaluazioa*

#### **ERANSKINAK**

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)
- Curriculum ezberdinak eratzeko Programa
- Zehar-Lerroak

### **1.3.2.- BATXILERGO ETA HEZIKETA ZIKLOko ICPren ATALAK:**

- ⇒ *Hizkuntzen erabilerarako irizpideak ikaskuntza prozesuan*

- ⇒ *Modalitate bakoitzaren ikasgaien antolakuntza*
- ⇒ *Hautazko ikasgaien eskeintzarako irizpideak*
- ⇒ *Ikasleen ebaluaketari buruzko irizpideak*
- ⇒ *Curriculum garapenen eta irakas-praktikaren ebaluaketarako irizpideak*
- ⇒ *Orientabide Plana*
- ⇒ *Alderdi positiboak indartu eta okerrak zuzentzea ahalbidetzen duten jarraipen eta balorapen tresnak.*

## **2.- ATALAK**

### **2.1.- ETAPETAKO HELBURU OROKORREN EGOKITZAPENA.**

#### **2.1.1. ETAPETAKO HELBURUAK INSTITUTUAN**

Legediak agindutakoa betez, gure etapako hezkuntza-helburu nagusiak, gure hezkuntza-ekintzak oinarritzat hartu behar dituenak, honako hauek dira:

##### 2.1.1.1.- DBHn

- ◆ Ikasleei gure kulturako oinarritzko elementuak adieraztea.
- ◆ Beren betebeharrak betetzeko eta eskubideak erabiltzeko prestatzea.
- ◆ Bizitza aktiboan parte hartzeko prestatzea.
- ◆ Erdi-mailako berriazko Lanbide Heziketara edo Batxilergora igarotzeko prestatzea.

Helburu horien bitartez, uneoro pertsonaren erabateko garapena sustatzen ahaleginduko gara bai esparru intelektualean, motorrean, oreka pertsonalaren esparruan eta sentimenduen esparruan, pertsonen arteko harremanean nahiz gizarteko jokaeran eta parte-hartzean.

##### 2.1.1.2.- Batxilergoan

97/1997 DEKRETUAn, apirilaren 29koa, (EHAA, 1997-05-07), Batxilergoko eta lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraipideak arautzen dituenen, hain zuzen, beste zehaztasunen artean, Batxilergoaren xedea eta helburu orokorrak jasotzen dira. Gainbegirada bat eginez, honekin aurkitzen gara:

Batxilergoaren xedea: ikasleek osoko prestakuntza eta adimen nahiz giza heldutasuna berenganatzea da, geroan unibertsitate-mailako ikasketak edo Goi-mailako lanbide heziketa egin ahal izan ditzaten eta, azken finean, lan-munduan sartzeko gauza izan daitezen.

Batxilergoko curriculumaren helburua, orokorrean, ikasleengan honako gaitasun hauek garatzea da:

- ◆ Hautariko motak berezkoak dituen oinarritzko trebetasunak eta ezaguera zientifiko eta teknologikoak ikastea eta erabiltzea.
- ◆ Ikerketaren eta metodo zientifikoaren funtzesko atalak ulertzea.
- ◆ Mundu garaikidearen errealitateak, aurretikoak eta faktore eragileak aztertu eta balioestea, eta pertsonen zein herrien arteko diferentziekiko tolerantzia eta begirunezko jarrerak garatzea.
- ◆ Euskal Herriak berezkoak dituen ezaugarriak, natura, kultura, historia, gizarte, ekonomia eta hizkuntza arlokoak, ezagutzea eta balioestea.
- ◆ Pertsona, gizarte eta moralaren aldetik heldutasuna finkatzea, ikasleek erantzuleak eta autonomoak izaten ikas dezaten.
- ◆ Gizarte-ingurunearen garapenean eta hobekuntzan solidarioki parte hartzea.

- ◆ Oinarrizko Lanbide Heziketari dagozkion ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak hartzea, Goi-mailako Heziketa-Zikloen irakaskuntzak probetxuz egiteko.
- ◆ Arte eta literaturaren sentikortasuna suspertzea, hori baita kultura-prestakuntzaren eta aberastasunaren jatorria.
- ◆ Gorputz hezkuntza eta kirola pertsonaren garapena errazteko erabiltzea.
- ◆ Zuzen hitz egiteko gaitasuna eta etorria izatea gutxienez bi hizkuntza ofizialetan, hizkuntza biez jabetzea eta beren autore eta obra nagusiak ezagutzea.
- ◆ Zuzen hitz egiteko gaitasuna eta etorria izatea gutxienez atzerriko hizkuntza batean.

**Beste dekretu batek, 180/1997, uztailaren 22koa, (EHAA, 1997-08-29), Batxilergoko Curriculuma onartzen duenak, hain zuen, irakasgai bakoitzari dagozkion zehatasunak dakartza.**

**Kasu guztietan hiru multzo bereizten dira:**

- ◆ **Jakintzagai bakoitzaren helburu orokorrak, norberegianatu ezagupenak eta garatu bahi diren jakintzagaiarekin zerikusia duten gaitasunak.**
- ◆ **Edukiak, gaikako blokeetan antolatuta, kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak bereizten direlarik.**
- ◆ **Ebaluazio irizpideak (jakintzagai bakoitzerako proposatutako edukien ikasketa-gradua baloratzea ahalbidetuko dutenak).**

**ICP honetan jakintzagai bakoitzari dagokion atalean jasotzen dira zehaztasun guzti hauek.**

## **2.1.2.- GURE INSTITUTUAREN ETA IKASLEEN EZAUGARRIAK**

ORIXE BHI, Tolosan kokaturik eskualdeko ikastetxe publiko bakarra da. Gure zentruak, jatorri sozioekonomiko eta linguistiko desberdinak dituzten ikasleak biltzen ditu; eta honek, elkarbizitza tolerantante eta errespetutsua bermatzera eraman behar gaitu. Eskola-mapa kontuan hartuz, inguru nahiko zabala hartzen du: Tolosa, Ibarra, Bidegoian, Albiztur, Berastegi, Berrobi, Ikaztegieta, Elduain, Lizartza, Hernialde, Irura, Abaltzisketa, Anoeta, Alegia, Altzo, Orendain, Amezketa, Alkiza, Asteasu, Gaztelu Zizurkil eta Villabona.

Ikaslegoaren aniztasuna azaltzeko faktore batzuk aipatuko ditugu:

- a) Herri txikietakoak: Landa eremutik datozen ikasle hauek famili euskaldunetatik datoz ia denak.  
Tolosa-Ibarra: Hiritar kutsu handiagoa dute eta famili mistoetatik (euskaldun-erdaldun) datoz asko. Hauek Tolosako Samaniegoko herri ikastetxetik datoz.
- b) Maila sozio-ekonomiko guztietako ikasleak ditugu, hau horrela izanik ere, gutxi batzuk desabantaila sozialean dauden familiak dira.
- c) Esparru akademikoan gaitasun, interesak eta itxaropenak erabat desberdinak eta anitzak dituzte.

- d) Etorkinak, gutxi izanik ere, aniztasunaren eragile inportantea da. Gehienak Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan urtebete edo gehiago eginda datoz. Beste batzuk, oso gutxi, etorri berriak dira.

Aurreko dena kontuan izanik, Orixe Institutua programa hauen barruan dago.

- Atzerapen akademikoa dutenentzako laguntza-sistema berezia
- PIEE: Egoera kaltetuan dauden familietako ikasleentzako zerbitzua da.
- Zubi-Gela: HIP: Hizkuntza Indartzeko Programa: etorkinak atenditzeko.
- Tutoretza eta orientabide zerbitzua martxan dugu etengabe.
- Kirola: kirol ekintza aukera zabala eskaintzen zaie ikasleei, irakasle eta guraso batzuk osatzen duten Kirol Eskolaren bitartez. Samaniego ikastetxearekin elkarlanean aritzen gara arlo honetan.

Eskolako joan-etorria oinez edo bizikletaz egitera bultzatzen ari gara Agenda 21en bitartez bide gorria lortzeko, txirringentzako aparkaleku berri eta egokiak jartzen eta abar.

- Normalkuntza: Institutuan ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren tresna nagusia euskara izanik, gizarte harremanetan euskararen berreskurapena bultzatzen dugu.

Eskaintza akademikoa ere zabala da:

- o DBH
- o Hiru modalitateko Batxilerra (Gizarte Zientziakoa, Natur eta Osasun Zientziakoa eta Teknologikoa)
- o Zereginen Ikaskuntza Gela (ZIG)
- o Lanbide Tailerra (Inprimatze tailerra)

Aurrera begira eskaintza akademikoa zabaltzeko asmoarekin, gizarte, ekonomia eta beste hainbat alorretako agenteekin harreman zuzenak izateko borondatea adierazten dugu. Beste batzuk ahortzi gabe, inguruko ikastetxeekin harreman estuak izateko nahia azpimarratu nahi dugu; besteak beste, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeekin koordinatzea ezinbestekotzat jotzen baitugu.

Institutuak badu bere logotipoa eta institutuan erabiltzen diren dokumentu, orri, kartazaletan ... erabiltzen da. Bestalde, Interneten zintzilikaturik dugu gure WEB orria, <http://www.orixe.net>; bertan biltzen da institutuari buruzko informazio osoa eta bere eginkizuna institutuaren leihotatik izatea da, institutua gizarte osoari zabaltzea. Ikastetxe barneko informazioa kudeatzeko INTRANETA dugu antolatua. Tresna honen bidez institutuaren kudeaketarako informazioa biltzeaz gain, mintegiek eta irakasle bakoitzak euren lanerako karpetak dituzte.

Orixe institutua Tolosan sustraitutako institutu publiko eta euskaldun bakarra izanik, gure helburua ondokoa da: ikaslearen nortasuna ikuspegi guztietatik garatzea: horretarako, prestakuntza akademikoa bikaina eta giza baloreetan oinarritutako formazio sendoa emanez, bera ere gizarteko kide eta eragile bete-beteko bihurtuz. Besteak beste, elkarbizitza, hezkidetzak, gizatasuna, parte hartzea, lanerako eta ikasteko ohitura egokiak bultzatuko ditu gizartearen gaurko eta etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko, hau da, heziketa osoa eskaintzea da, ikasle autonomo, kritiko eta konprometitua sustatuz, bertako gizartean nahiz mundu zabalean parte hartzeko gai izan daitezela.



## 2.1.3. ETAPETAKO HELBURU OROKORREN DEFINIZIOA

### 2.1.3.1.- DBHn

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburu orokorren analisitik ondorio hauek atera ditugu eta ICPren garapenean kontuan izango ditugu:

- a) Norberaren gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko alderdiak eta ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta taldearen osasunean izan ditzaketen ondorioak ezagutzea eta ulertzea eta ariketa fisikoak egiteak, higieak eta elikadura orekatuak nahiz bizitza osasuntsua eramateak dituzten onurak baloratzea.
- b) Nor bere buruaren ezaugarriak eta aukerak ezagutzea, eta jarduerak modu autonomo eta orekatuan garatzea, ahalegina eta zailtasunen gainditzea baloratuz.
- c) Beste pertsona batzuekin erlazionatzea, taldeko jardueretan parte hartzea elkartasuna eta tolerantzia adieraziz, inhibizioak eta aurre iritziak gaindituz, jatorri sozialeko desberdintasunak kritikoki baloratuz eta arraza, sexu, gizarte-klase, sinesmen edo beste ezaugarri pertsonal edo sozialean oinarritutako diskriminazioak baztertuz.
- d) Gizartean funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki herritarren eskubideei buruzkoak; horiei buruzko iritzi eta irizpide pertsonalak izatea.
- e) Ingurumenaren funtzionamendua zuzentzen duten oinarrizko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak ingurune horretan duten eragina ezagutzea eta ingurune hori babesteko, zaintzeko eta hobetzeko ekintzetan laguntzea, bizi-kalitatearen funtsezko elementu baita.
- f) Garapen zientifikoa eta teknologikoa ezagutzea eta kritikoki eta baita dituen aplikazioak eta inguru natural eta sozialean duen eragina ere.
- g) Kultur ondarea ezagutzea, estimatzea eta disfrutatzea eta ondare hori zaintzeko eta hobetzeko lan egitea. Hizkuntza eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoaren eskubide gisa ulertzea eta eskubide horren erabileraren aldeko eta hizkuntza normalizazio prozesuen aldeko interesa eta errespetua adieraztea.
- h) Gure tradizioaren eta kultur ondarean sinesmenak, jarrerak eta oinarrizko balioak ezagutzea, kritikoki baloratzea eta pertsona gisa izan dezaketen garapena sustatuko duten aukerak egitea.
- i) Ahozko mezuak eta mezu idatziak zuzen, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta sortzea euskaraz, gaztelaniaz eta gutxienez, hizkuntza atzeritar batean. Hizkuntza komunikatzeko eta erabiltzeko orduan inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko erabiliz.
- j) Kode artistikoak, zientifikoak eta teknikoak erabiliko dituzten mezuak zuzen, autonomiaz eta sormenez interpretatzea eta sortzea, komunikatzeko aukerak aberasteko eta horien erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko.
- k) Problema identifikatzeko eta ebazteko estrategiak lantzea. Ezagutzaren eta esperientziaren alor desberdinetan intuizioan eta arrazoiketa logikoan oinarritutako prozeduren bidez.

- l) Informazioa lortzea eta aukeratzea ohiko baliabideak erabiliz eta modu autonomo eta kritikoan erabiltzea aurrez ezarritako helburua lortzeko eta informazio hori besteei ondo antolatuta eta ulertzeko moduan eskaintzea.

### **2.1.3.2.- ARLO DESBERDINETAKO HELBURUAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ZIKLOKA BANATZEA**

Derrigorrezko Bigarren hezkuntza **amaierako izaera duen oinarrizko hezkuntzaren etapa bat da**. Horregatik, arloen programazioan, ondorengo irizpideak izango ditugu kontuan:

- Ikasle guztiek beren gaitasunak garatzea lortu nahi da, etapako helburuetan adierazten den zentzuan, norberaren gaitasunen ezagutzan oinarrituz eta horiek garatzeko jarraibideak eskainiz nahiz jokaera selektiboa saihestuz.
- Ikasle guztiek ikaskuntza instrumentalak eskuratzea lortu behar da, heldutasun-maila egokian.
- Ikasle guztiek gure kulturaren oinarrizko elementuak ezagutu behar dituzte.
- Curriculumaren zati izango dira honako hauek: errespetuzko jokaerak, elkarriketa, lankidetzeta eta parte-hartzea; horiek guztiak berdintasunezko, askatasunezko, justiziazko eta elkartasunezko baliotan oinarrituko dira.

Batxilergora eta LHko erdi-mailako heziketa-zikloetara igarotzeko **prestakuntzako etapa denez**, DBHn honako helburu hauek ditugu:

- Bi aukera horietako edozeinetan arrakasta izateko beharrezko diren ikaskuntzak eskaintzea, Batxilergoaren baldintza akademikoak eta lanbide Heziketarako oinarrizko prestakuntzarako eskaerak kontuan hartuz.
- Ikasleak orientatzea beren etorkizuna planteatzeko orduan, beren gaitasunak eta lanbide-interesak ikus ditzaten eta etapa amaitzean erabaki egokiak har ditzaten.

Atal hau oso luzea denez, berorren edukia beste liburu batzuetan jaso da eta etapa osatzen duten arlo bakoitzak honako egitura hau izango du:

- Etapako arloaren zentzua eta ikuspegia
- Edukiak: edukien zehaztapena eta banaketa (aniztasunari erantzuteko irizpideak eta zehar-lerroei buruzko erabakiak aplikatuz)
- Arloko ebaluazio-irizpideak
- Arloko irizpide metodologiko eta ebaluazio-irizpide bereziak
- Aniztasunarekiko arreta eta hezkuntza-errefortzua

- Euskal Hizkuntza eta Literatura
- Gaztelania eta Literatura
- Plastika eta Ikus Hezkuntza
- Gorputz hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza
- Matematika

- Oinarrizko Teknologia
- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
- Natur Zientziak
- Musika
- Erljioa/Antolatutako Hezkuntza Jarduerak

- IKTekin eta horiek garatzeko proposatzen diren arloekin erlazioatutako edukien banaketa biltzen duen dokumentu bat ere badute(ikus. **1. ERANSKINA**).

DBH-KO HELBURU OROKORRAK	ARLOAK - HELBURU OROKORRAK								
	EUS GAZ	ATZ HIZ.	NAT ZIE.	MAT	G.H.	PLA.	MUS	GIZ ZIE	TEK
a) Norberaren gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko alderdiak eta ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta taldearen osasunean izan ditzaketen ondorioak ezagutzea eta ulertzea eta ariketa fisikoak egiteak, higieanak eta elikadura orekatuak nahiz bizitza osasuntsua eramateak dituzten onurak baloratzea.			6-2	10	4-1	7		4	9
b) Nor bere buruaren ezaugarriak eta aukerak ezagutzea, eta jarduerak modu autonomo eta orekatuan garatzea, ahalegina eta zailtasunen gainditzea baloratuz.	10-8	2-5	6-4	10-9	2-3	7-8	6-8	2-6 7-9	1-10
c) Beste pertsona batzuekin erlazioatzea, taldeko jardueretan parte hartzea elkartasuna eta tolerantzia adieraziz, inhibizioak eta aurre iritziak gaindituz, jatorri sozialeko desberdintasunak kritikoki baloratuz eta arraza, sexu, gizarte-klase, sinesmen edo beste ezaugarri pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminazioak baztertuz.	4-9	2-6 8	4-7	9-7 10	5	5-6	5	1-2 3-9 10	7
d) Gizartearen funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki herritarren eskubideei buruzkoak; horiei buruzko iritzi eta irizpide pertsonalak izatea	3-9	9	6-7 8	9	4-7	2-5		1-2 3-5 10	6-8
e) Ingurumenaren funtzionamendua zuzentzen duten oinarrizko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak ingurune horretan duten eragina ezagutzea eta ingurune hori babesteko, zaintzeko eta hobetzeko ekintzetan laguntzea, bizi-kalitatearen funtsezko elementu baita.			2-7 8	3-4 5-6 9	4	2	7	1-6	2-6 9
f) Garapen zientifikoa eta teknologikoa ezagutzea eta kritikoki eta baita dituen aplikazioak eta inguru natural eta sozialean duen eragina ere.	10		5-2 7-8 9	7-8 9		8		4-5 11	2-8
g) Kultur ondarea ezagutzea, estimatzea eta disfrutatzea eta ondare hori zaintzeko eta hobetzeko lan egitea. Hizkuntza eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoaren eskubide gisa ulertzea eta eskubide horren erabileraren aldeko eta hizkuntza normalizazio prozesuen aldeko interesa eta errespetua adieraztea.	3-6 7-9	7-9	8	7-9	6	2-56	2-3 6-8	1-3 6-10	6
h) Gure tradizioaren eta kultur ondarean sinesmenak, jarrerak eta oinarrizko balioak ezagutzea, kritikoki baloratzea eta pertsona gisa izan dezaketen garapena sustatuko duten aukerak egitea.	3-6 7-9		8-9	5-7 8-9	5	1-2		1-2 3-6 10	6-8
i) Ahozko mezuak eta mezu idatziak zuzen, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta sortzea euskaraz, gaztelaniaz eta gutxienez, hizkuntza atzeritar batean. Hizkuntza komunikatzeko eta erabiltzeko orduan inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko erabiliz	1-2 4-5 6-7 8-10	5-3	1	1-2		4		7-8 9	4
j) Kode artistikoak, zientifikoak eta teknikoak erabiliko dituzten mezuak zuzen, autonomiaz eta sormenez interpretatzea eta sortzea, komunikatzeko aukerak	4-5		1	1-2	6	3-4 5	1-7	7-8	4

aberasteko eta horien erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko.									
k) Problema identifikatzeko eta ebazteko estrategiak lantzea. Ezagutzaren eta esperientziaren alor desberdinetan intuizioan eta arrazoiketa logikoan oinarritutako prozeduren bidez.	10	10-5	3	4-6-9	2	9		2-4 5-7 9	1-2 3-10
l) Informazioa lortzea eta aukeratzea ohiko baliabideak erabiliz eta modu autonomo eta kritikoa erabiltzea aurrez ezarritako helburua lortzeko eta informazio hori besteei ondo antolatuta eta ulertzeko moduan eskaintzea.	5-8	4-9 10	5	3-5 6	7	1-3	4	7-8 11	1-4

### 2.1.3.3 .- LEHEN HEZKUNTZAKO ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO HELBURU OROKORREN ARTEKO ERLAZIOA

Gure Institutu eta ondoan kokatzen den Samaniego Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxearen artean harreman estuak izaten direnez, ahalik eta jauzi txikien gerta dadin, bi mailak lotzen saiatu gara. Horretarako, lortu nahi diren helburu artean dagoen erlazioa islatzea komenigarritzat jo dugu.

<b>LEHEN HEZKUNTZAKO HELBURUAK</b>	<b><i>DBH-KO HELBURUAK</i></b>
a) Norberaren gorputza ezagutzea eta baloratzea eta berori garatzeko ahalegina egitea, osasunari, higienerari eta ongizateari dagozkien ohitura onak hartuz eta jokabide zehatz batzuek osasunean eta bizi-kalitatean izan ditzaketen ondorioak baloratuz.	a) Norberaren gorputzaren funtzionamenduaren oinarritzko alderdiak eta ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta taldearen osasunean izan ditzaketen ondorioak ezagutzea eta ulertzea eta ariketa fisikoak egiteak, higieak eta elikadura orekatuak nahiz bizitza osasuntsua eramateak dituzten onurak baloratzea.
b) Jarduera arruntetan eta taldeko harremanetan autonomiaz jokatzeko, ekimenak aurrera eramateko eta harreman afektiboak ezartzeko aukerak garatuz.	B Nor bere buruaren ezaugarriak eta aukerak ezagutzeko, eta jarduerak modu autonomo eta orekatuan garatzea, ahalegina eta zailtasunen gainditzea baloratuz.
c) Taldeko jarduerak prestatzen eta egiten parte hartzea, demokratikoki ezarritako arauak eta erregelak onartzea, norberaren helburu eta interesak eta beste kideenak bateratzea ikuspuntu desberdinak errespetatuz, eta tokatzen zaizkion erantzukizunak bere gain hartzea.	c) Beste pertsona batzuekin erlazioatzea taldeko jardueretan parte hartzea elkartzuna eta tolerantzia adieraziz, inhibizioak eta aurreiritziak gaindituz, jatorri sozialeko desberdintasunak kritikoki baloratuz eta arraza, sexu, gizarte-klase, sinesmen edo beste ezaugarri pertsonal edo sozialean oinarritutako diskriminazioak baztertuz.
d) Pertsonekin harreman orekatu eta konstruktiboak ezartzea egoera sozial ezagunetan, elkartzunez jokatzeko, sexuan, gizarte-klasean, sinesmenetan, arrazan eta beste ezaugarri pertsonal edo sozialean oinarritutako diskriminazioak baztertuz.	
e) Ingurune natural eta sozialeko gertaera eta fenomeno arteko erlazioak ulertzea eta ezartzea eta, ahal den neurrian, ingurugiroa babesteko, zaintzeko eta hobetzeko zereginetan aktiboki laguntzea.	e) Ingurumenaren funtzionamendua zuzentzen duten oinarritzko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak ingurune horretan duten eragina ezagutzea eta ingurune hori babesteko, zaintzeko eta hobetzeko ekintzetan laguntzea, bizi-kalitatearen funtsezko elementu baita.  f) Garapen zientifikoa eta teknologikoa ezagutzea eta kritikoki baloratzea eta baita dituen aplikazioak eta inguru natural eta sozialean duen eragina ere.

f) Kultur ondarea ezagutzea, estimatzea eta disfrutatzea eta ondare hori zaintzeko eta hobetzeko lan egitea; hizkuntz eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide gisa ulertzea eta eskubide horren erabileraren aldeko interesa eta errespetua adieraztea.	d) Gizartearen funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki herritarren eskubideei eta betebeharreri buruzkoak; horiei buruzko iritzi eta irizpide pertsonalak izatea. g) Kultur ondarea ezagutzea, estimatzea eta disfrutatzea eta ondare hori zaintzeko eta hobetzeko lan egitea; hizkuntz eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide gisa ulertzea eta eskubide horren erabileraren aldeko eta hizkuntz normalizazio prozesuen aldeko interesa eta errespetua adieraztea.
g) g.1. Ahozko mezuak nahiz mezu idatziak ulertzea eta sortzea gaztelaniaz nahiz euskaraz, komunikazio-asmu eta testuinguru desberdinetan. g.2. Atzerriko hizkuntza batean ahozko mezu nahiz mezu idatzi errazak, dagokien testuinguruan, ulertzea eta sortzea.	i) Ahozko mezuak eta mezu idatziak zuzen, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta sortzea euskaraz, gaztelaniaz eta, gutxienez, hizkuntza atzeritar batean, komunikatzeko eta bere pentsamenduak antolatzeko nahiz hizkuntzaren erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko erabiliz.
h) Ahoz, gorputzaren bidez, ikusmenaren bidez nahiz adierazpide plastikoak, musikalak eta matematikoak erabiliz komunikatzea, sentikortasun estetikoak, sormena eta lan eta adierazpen artistikoez gozatzeko gaitasuna garatuz.	j) Kode artistikoak, zientifikoak eta teknikoak erabiliko dituzten mezuak zuzen, autonomiaz eta sormenez interpretatzea eta sortzea, komunikatzeko aukerak aberasteko eta horien erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko.
i) Eguneroko esperientzian oinarrituta, galderak eta problemak identifikatzea eta planteatzea, ezagutzak eta eskura dituen baliabide materialak erabiliz nahiz horiek modu kreatiboan eta autonomoan ebazteko beste pertsona batzuen laguntza eskatuz.	k) Problema identifikatzeko eta ebazteko estrategiak lantzea ezagutzaren eta esperientziaren alor desberdinetan intuizioan eta arrazoiketa logikoan oinarritutako prozeduren bitartez, horiek kontrastatuz eta jarraitutako prozesuari buruz hausnarketa eginez.
j) Problema errazak ebazteko informazioa lortzeko prozedura egokiak erabiltzea eta kodeen bitartez irudikatzea, horiek ebazteko baldintza materialak eta denborari dagozkionak kontuan izanik.	l) Informazioa lortzea eta aukeratzea informazio hori lortzeko ohiko baliabideak erabiliz eta modu autonomo eta kritikoa erabiltzea aurrez ezarritako helburua lortzeko eta informazio hori besteei ondo antolatuta eta ulertzeko moduan eskaintzea.
k) Bizitza eta gizakion bizikidetzara arautzen duten oinarrizko balioen garrantzia baloratzea eta horien arabera jokatzeko.	h) Gure tradizioaren eta kultur ondarearen sinesmenak, jarrerak eta oinarrizko balioak ezagutzea, kritikoki baloratzea eta pertsona gisa izan dezaketean garapena sustatuko duten aukerak egitea.

### 2.1.3.4.- Batxilergoan

Batxilergo helburu orokorren analitiko ondorio hauek atera ditugu eta ICPren garapenean kontuan izango ditugu:

<b>Dekretuaren helburuak</b>	<b>Irakurketaren ondorioak gure institutuan</b>
◆ Hautariko motak berezkoak dituen oinarrizko trebetasunak eta ezaguera zientifiko eta teknologikoak ikastea eta erabiltzea.	- Hautariko motak berezkoak dituen oinarrizko trebetasunak eta ezaguera zientifiko eta teknologikoak ikastea eta erabiltzea.
◆ Ikerketaren eta metodo zientifikoaren funtzesko atalak ulertzea.	- Ikerketaren eta metodo zientifikoaren funtzesko atalak ulertzea.
◆ Mundu garaikidearen errealitateak, aurretikoak eta faktore eragileak aztertu eta balioestea, eta pertsonen zein herrien arteko	- Mundu garaikidearen errealitateak, aurretikoak eta faktore eragileak aztertu eta kritikoki balioestea, eta pertsonen zein herrien arteko diferentzietan tolerantzia eta begirunezko jarrerak garatzea.

diferentzietikiko tolerantzia eta begirunezko jarrerak garatzea.	
◆ Euskal Herriak berezkoak dituen ezaugarriak, natura, kultura, historia, gizarte, ekonomia eta hizkuntza arlokoak, ezagutzea eta balioestea.	- Euskal Herriak berezkoak dituen ezaugarriak, natura, kultura, historia, gizarte, ekonomia eta hizkuntza arlokoak, ezagutzea eta balioestea..
◆ Pertsona, gizarte eta moralaren aldetik heldutasuna finkatzea, ikasleek erantzuleak eta autonomoak izaten ikas dezaten.	- Pertsona, gizarte eta etikaren aldetik heldutasuna finkatzea, ikasleek erantzuleak eta autonomoak izaten ikas dezaten.
◆ Gizarte-ingurunearen garapenean eta hobekuntzan solidarioki parte hartzea.	- Gizarte-ingurunearen garapenean eta hobekuntzan solidarioki parte hartzea..
◆ Oinarrizko Lanbide Heziketari dagozkion ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak hartzea, Goi-mailako Heziketa-Zikloen irakaskuntzak probetxuz egiteko.	- Oinarrizko Lanbide Heziketari dagozkion ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak hartzea, Goi-mailako Heziketa-Zikloen irakaskuntzak probetxuz egiteko.
◆ Arte eta literaturaren sentikortasuna suspertzea, hori baita kultura-prestakuntzaren eta aberastasunaren jatorria.	- Arte eta literaturaren sentikortasuna suspertzea, hori baita kultura-prestakuntzaren eta aberastasunaren jatorria.
◆ Gorputz hezkuntza eta kirola pertsonaren garapena errazteko erabiltzea.	- Gorputz hezkuntza eta kirola pertsonaren garapena errazteko erabiltzea.
◆ Zuzen hitz egiteko gaitasuna eta etorria izatea gutxienez bi hizkuntza ofizialetan, hizkuntza biez jabetzea eta beren autore eta obra nagusiak ezagutzea.	- Gorputz hezkuntza eta kirola pertsonaren garapena errazteko erabiltzea.
◆ Zuzen hitz egiteko gaitasuna eta etorria izatea gutxienez atzerriko hizkuntza batean.	- Zuzen hitz egiteko gaitasuna eta etorria izatea gutxienez atzerriko hizkuntza batean.

## ***2.2.- ARLO BAKOITZARI DAGOKION CURRICULUM GARAPENA: ikus Mintegi eta Departamentuen Programazioak eta Memoriak.***

### **2.3.- INSTITUTUAREN HIZKUNTZ PLANTEAMENDUA**

#### **2.3.1.- INSTITUTUAREN EGOERA HIZKUNTZAREN ESPARRUAN**

Ikastetxeek Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntz ofizialen ezagutza eta erabilera nola landuko duten erabaki behar dute eta erabaki hori funtsezkoa izango da; institutua kokatuta dagoen tokiko egoera soziolinguistikoak eta ikasleen ezaugarriek

nahiz ikasleek etxean duten hizkuntz egoerek baldintzatzen dute erabaki hori, baina, bestalde, institutuak prozesu horri aurre egiteko adierazten duen borondateak berak ere baldintzatzen du.

### **Gure institutuaren hizkuntz ezaugarriak honako hauek dira:**

- **Inguru soziolinguistikoa:**

- **IKASLEAK.** Hiru multzotan bana ditzakegu:
  - Bi herenak, gutxi gorabehera, Tolosa, Billabona, Zizurkil eta Ibarakoak: multzo anitza da baina orokorrean erdararako joera dute. Ikasle hauek bigarren multzokoek baino hizkuntza gaitasun baxuagoa dute. Gehienak familia elebidunak dira, baina batzuk erdaldunak
  - Ikasleetatik laurdena, gutxi gora behera, inguruko herri txikietakoak izaten dira : ia denak oso familia euskaldunak dira , eta ikasle hauek erabat euskaraz bizi dira, eta horrek gazteleraren ezagupenean ere eragina badauka.
  - Etorkinak direnak: 12 urte bete aurretik etorritakoak normalean euskalduntze prozesuan aurreratuta daude eta talde arruntetan erabat integraturik; kopuruz gutxi dira eta batzuek batxilergoa ere egiten dute. 12 urte bete ondoren etorritakoetatik, berriz, batzuek ez dute euskaraz komunikazio maila egokirik lortzen. Azken hauek oso gutxi dira eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aritzen dira.
- **HERRIAK:** herri desberdinetan euskaren erabilpen maila ere oso ezberdina da. Herri txikietan kalean euskara erabiltzen da ia erabat, Tolosa, Ibarra, Alegi eta Zizurkilen berriz, euskararen erabilpena baxuagoa da.

- **Eredua:**  D

- **Institutuan ikasten dituzten atzerriko hizkuntzak:**

- ❖ Atzerriko 1. hizkuntza: Ingelera
- ❖ Atzerriko 2. hizkuntza: Frantsesa

### **2.3.2.- OINARRIZKO PRINTZIPIOAK.**

Alde batetik, gure ikasleen egoera soziolinguistikoa eta, bestetik, eskolatutako ereduaren ezaugarriak eta Institutuaren Curriculum Proiektuan Eskola Elkartek proposatutako helburuak kontuan izanik, gure jokabidea ondorengo printzipioetan oinarrizko asmoa dugu:

- Hizkuntz helburuak lortzea, bi hizkuntz ofizialei dagozkienak bereziki; institutuaren eta ikastetxeko irakasle guztien ardura nagusietakoa da hori.
- Hizkuntz garapena oinarrizko faktorea da gure ikasleen garapenerako eta ikasteko duten gaitasuna baldintzatzen du curriculumaren arlo guztietan.
- Hizkuntza desberdinen irakaskuntza koordinatu egingo da, batetik bestera ikaskuntza-transferentziak bermatzeko eta batak bestea indartzeko.

- Euskararen egoera diglosikoa institutuan nahiz ikasleen eta irakasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko neurrien bidez konpentsatuko da.
- Urtero, batzorde batek Institutuaren Hizkuntza Normalkuntza Proiektua aztertuko du, horretarako proposatutako helburuak kontuan izanik, eta hizkuntz eremuan jokaera-plana proposatuko du; plan horretan ondorengo espazioetan euskara erabiltzeko neurriak hartuko dira kontuan:
  - administratiboan: administrazioko dokumentazioa, dokumentazio akademikoa eta ekonomikoa...
  - pedagogikoan: proiektuak eta programazioak, sailen dokumentazioa, buletinak, espedienteak...
  - harremanetan: irakasleen artekoetan, irakasle eta ikasleen artekoetan, familiekin, administrazioarekin, komunikabideekin...

Irakasle guztiek, dagokigun arloan, ikasleen hizkuntz garapenean dugun erantzukizuna onartzen dugu. Horregatik, ondorengo jarraibideetan oinarrituz jokatzeko asmoa dugu:

- Diskurtsoko trebetasunak (testuak ulertzea eta sortzea eta berariazko hizkuntz kodeak erabiltzea) eskuratzeko arreta berezia jartzea eta hizkuntz adierazpen desberdinen aurrean errespetuzko jokaerak hartzea.
- Ikasgelan erabiliko diren testuak modu egokian aukeratzea, ikasle guztientzat ulergarriak izan daitezten eta horien aurrerapena susta dezaten.
- Ikasleen ahozko adierazpena nahiz adierazpen idatzia erraztea, zuzen, zehaztasunez eta garbi idazten dutela egiaztatuz, eta elkarrizketarako eta kritikarako gaitasuna ikustea.
- Irakurtzeko ohitura sustatzea.
- Ikasleek informazioa bilatzen eta aukeratzeko jakitea, horretarako iturri desberdinak erabiliz, eta ikaskuntza hobetzeko probetxu ateratzea.
- Irizpide komunetan oinarrituta, ortografiari garrantzia ematea.

**Institutuan erabiltzen diren hizkuntzak ezagutzen ez dituzten ikasle inmigranteekin izan beharreko hizkuntz jokaera:**

- Orixek Etorkinak Eskolatzeko Plana osatuko du eta beronetan zati garrantzitsuenetako bat hizkuntza plantamendua izango da.
- Curriculumean nagusi den eskola hizkuntza irakastea, euskara alegia, helburu nagusietakoa izango da, horretarako laguntza bereziak eskainiz eta epe ertaineko helburuetan aldaketa esanguratsuak eginez.
- Orixen eskolatutako etorkinak gaztelaraz eta euskaraz ez badaki, eta derrigorrezko hezkuntza aldia bukatzeaz badauka, euskara irakasteaz gain gaztelera irakasteak garrantzi berezia hartuko du.
- Hizkuntza bat esparru eta egoera guztietan ikasten denez, etorkinei eskola hizkuntza irakastea irakasle guztien zeregina izango da.
- Ikasle hauen sinesmenak, ohiturak, erabilerak... ezagutzen ahaleginduko gara, elkarren arteko ulermena sustatzeko eta ikaskuntzarako beharrezkoa den enpatiazko giroa sortzen laguntzeko.
- Ikasle hauek D eremuan arituko direnez, kasu gehienetan Euskara arloan Salbuespena tramitatzea ez da ez logikoa, ez komenigarria izango.



## ORIXEN INTEGRATZEA

- Lehenengo ikasturtean helburu nagusia integratzea izango da, horretarako harrera prozesua eta eskola hizkuntza ikastea oso garrantzitsuak izango dira.
- Ahal den neurrian ikasle etorkinak adinez dagokien ikasturtean kokatuko ditugu.
- Orokorrean etorkinak gela desberdinetan kokatuko ditugu, etorkinak pilatzea saihestuz. Zenbait kasutan ordea, ikasle etorkin batzuk gela berean kokatuko ditugu beraien mesedetan baldin bada; esate baterako ama-hizkuntza bera izanik, elkarri lagundu diezaioketenean, edota Orixeren baliabide bereziak erabili ahal izateko beharrezkoa denean.
- Beraien integrazioa hobetzeko eta euskararen alderdi ludikoa ezagutzeko, eskolaz-kanpoko ekintzetan parte hartzera animatuko ditugu: kirol-eskola, aisialdiko taldeak,...

## LAGUNTZAK

Eskola hizkuntza irakasteko berariazko baliabideak antolatuko ditugu:

- Zubi Gela deituriko gela antolatuko dugu; bertara ikasle etorkinak eskola hizkuntza ikastera joango dira; 1. fasean egunero bi orduz aterako dira eta ondoren ordu gutxiagotan. 2. fase honetan, zenbait ordutan, Zubi Gelako irakasleak gela arruntean lagunduko die ikasle etorkinei.
- Zubi Gela Orixeko DBHko bi zikloetako ikasleek erabili ahal izango dute.
- Gaztelera dakiten etorkinekin, erdaraz dauden materialak eta baliabideak erabiliko dira lehenengo ikasturteetan, ikaslearen progresio kognitibo eta akademikoa ez oztopatzeko.
- Hasieran, lehenengo ikasturtean batez ere, arlo batzuk ez dituzte gelan landuko, ordu horietan Zubi Gelan egoteagatik. Ondorioz konpentsatzeko estrategiak bilatuko dira - etxerako lanak, jolas-garaietan bakarkako azalpenak...- arlo horietako gutxienekoak lantzeko.

Hauetaz gain, ikasle hauekin Aniztasunaren Trataera atalean aipaturiko baliabideak erabiliko ditugu.

## ALDAKETAK EBALUAZIO IRIZPIDEETAN

Ebaluazioa atalean jasota dagoen bezala, ebaluazio irizpideetan hainbat aldaketa izango dira.

**Zeregin Ikasketa Gelan (ZIG) eta Lanbide Tailerrean (LT) dauden ikasleekin izan beharreko hizkuntz jokaera:**

- D eredu eskainiko da.
- Eskualde osoari erantzuten dion eskaintza bakarra izanez, Euskaraz ez dakien ikasleren bat matrikulatzen bada, euskaraz gain, gaztelera ere irakas-hizkuntza izango da.

### 2.3.3.- D EREDUKO BERARIAZKO NEURRI ETA IRIZPIDEAK.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako hizkuntzei buruzko helburu orokorrak, institutuaren D hizkuntz eredua eta kokatuta dagoen inguruko egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, gure institutuan hizkuntz planteamenduei dagokienez ondorengo jarraibideak hartuko ditugu oinarritzat:

#### 2.3.3.1.- Alderdi curricularrak:

##### **Hizkuntzen presentzia curriculumean:**

- ◆ Irakas-hizkuntza euskara izango da, gaztelania eta atzerriko hizkuntzari dagozkion arloetan izan ezik.

#### 2.3.3.2.- Antolamenduari buruzko alderdiak.

Hizkuntza Normalkuntzarako ULIBARRI programan parte hartzen dugu eta ondorioz:

- Hizkuntza Normalkuntza Proiektua prestatzen dugu, Urteko Planaren barruan sartuz.
- Irakasle batzuek HNP proiektuaren ardura nagusia hartzen dute. Proiektua eraginkorra izan dadin, lan horretaz arduratzen diren irakasleak ziklo eta etapa desberdinetakoak dira:
  - DBHko 1. zikloko irakasle bat
  - DBHko 2. zikloko irakasle bat
  - Batxilergoko irakasle bat
- Ikasturte bakoitzaren hasieran Euskara Batzordea eratzten da, parte hartu nahi duten ikasle eta irakasleekin.

##### **a) Komunikatzeko hizkuntza:**

##### *irakasleen artean:*

- Euskara izango da irakasleek beren artean komunikatzeko erabiliko duten hizkuntza, bai ikasleen aurrean, lan-saioretan, bileretan etab.

##### *ikasleekin eta ikasleen artean:*

- Irakasleek euskara erabiliko dute ikasleekin erlazionatzeko ikasgelaren barnean nahiz kanpoan, baina pertsonen arteko harremanetan ikasleek beren ama-hizkuntzan hitz egitea onartuko dute, komunikazio-hausturak gerta ez daitezen.
- Ikasleei eskolako jardueretan euskara erabiltzea eskatuko zaie eta jarduera ludikoetan ere euskararen erabilera sustatuko da.

##### *familiekin:*

- Familiekin izango diren harreman pertsonaletan eta bidaliko zaizkien ohar idatzietan euskara erabiliko da, baina gurasoek euskara ezagutzen ez duten kasuetan elebidunak izango dira harreman horiek.

*beste ikastetxe eta instituzio batzuekin:*

- Harremanak euskaraz nahiz bi hizkuntzatan garatuko dira.

**b) Irakasleen antolamendua**

- Euskara mintegiak institutuan euskarak duen egoera zainduko du eta hizkuntza hori sustatuko du, eskolako bizitzako eremu guztietan euskararen presentzia bermatzeko eta hizkuntza honetako hobekuntza didaktikorako nahiz beste hizkuntzetan komunikazio-hobekuntzarako prozesuarekin erlazionatzeko.

#### **2.4.1.- IRIZPIDE METODOLOGIKO OROKORRAK**

Ez dugu uniformetasun metodologikoa bilatzen. Aniztasun metodologikoa justifikatzeko arrazoiak badira: ikasleen estilo kognitiboa, ikasi behar den curriculumaren berariazko ezaugarriak eta irakaslearen estilo berezia. Beraz, metodoen aniztasuna egokia dela uste dugu, ikaskuntzarako helburuek eta edukiek, askotan, irakasteko modu desberdinen konbinazioa beharrezkoa baitute eta, bestalde, ikasleek ikasteko dituzten estilo desberdinek erantzun desberdinak eskatzen baitituzte, unean, arloan, edukien eta abarren arabera bereizitako estrategia metodologikoen bitartez.

Hala ere, irizpide metodologiko orokorrak erabakitzea komeni dela uste dugu, gure prozesu didaktikoan parte-hartze desberdinen koherentzia eta koordinazioa bilatu ahal izateko.

- Ikaskuntza prozesu jarraitua dela ulertzen dugu eta saiatuko gara ikaslea bere ikaskuntzaren protagonista izaten. Ez dizkiogu gauzak eginda eman behar, baizik eta ikertu, erlazioatu, ondorioak atera etab. egin beharko du, bere ikaskuntza berezia eraikitzen joateko.
  - Ahal den neurrian eta, batez ere DBHn, ikasle bakoitzari bakarkako arreta eskaintzeko oinarria hartuko dugu abiapuntutzat, horretarako ikaslearen aurrerakuntzaren eta beharren jarraipen indibidualizatua eginez.
  - Gai eta denboraren arabera, aplikatutako metodologia aktiboa izango da.
  - Ikaskuntza esanguratsua eta “ulermenean oinarritutako memoria” bultzatuko dira.
  - Jardueren bitartez egiten ari garen lanaren analisisa eta ondorioen lanketa sustatuko dugu.
  - DBHn, ziklo bakoitzeko hasieran, arlo instrumentaletan ebaluazioa egingo da, taldearen ezaugarrietara egokitzeko.
  - Akatsa ikaskuntza-iturri gisa erabiliko da, akatsa ikusiz, aztertuz eta zuzenduz hobe daitekeela izango dugu kontuan.
  - Ikasleen talde-lana ikaskuntzarako metodo garrantzitsu lagungarri moduan erabiliko dugu.
  - Edukiei proiektio praktikoa ematen saiatuko gara, ikaskuntzen funtzionaltasuna bi zentzutan bermatzeko: beranduago beste ezagutza batzuk eskuratzeko gaitasunak garatzeko eta horiek eguneroko bizitzan aplikatzeko.

#### **2.4.2.- CURRICULUMAREN EDUKIAK.**

Edukiek ikasleei ikasteko proposatzen zaizkien jakintzak adierazten eta zehazten dituzte, hala, ikasleen gaitasunak garatzeko eta kulturaren oinarritzko elementuak bereganatzeko.

##### **a) Edukien aukeraketa.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako curriculumak ezartzen dituzten Dekretuetan proposatutako derrigorrezko edukiak oinarritzat hartuta, ikastetxe honetako irakasleek curriculum hori garatzeko honako puntu hauek izan dituzte kontuan:

##### **a.0.- Orokorki**

- Institutuaren Hezkuntza Proiektua eta bertatik ondorioztatzen den proiektu kulturala eta hizkuntzazkoa.
- Irakasleek Curriculum Proiektu honetan proposatzen diren edukiak irakatsiko dituzte eta etapa bakoitza gainditzeko behar diren gutxienezko edukiak finkatuko dituzte. :

##### **a.1.- DBHn**

- Arloetako edukietan islatzen diren eskaera sozialak.

- Ikasleen bilakaeraren unea eta dituzten behar bereziak.
- Arlo bakoitzaren ikuspegia, helburu orokorrekin bat etorritz.
- Ikasleen prestakuntza Batxilergora igarotzeko.
- Erdi-mailako Prestakuntza Zikloetara igarotzeko dimentsio profesionalizatzailea.
- Eguneroko bizitzarako prestatzea eta bizimodu aktibo eta heldurako trantsizioa irakasgai berezi modura emanda edota gainontzeko arloetan txertatuak.

Eduki berrien ikaskuntzan ondokoak izango ditugu kontuan:

- Ikasleek proposatzen zaizkien edukiei buruz dituzten aurretiazko ezagutzak.
- Ikaskuntza berriei aurre egiteko beharrezkoak diren ikaskuntzak bereganatu dituzten ala ez.

a.2.- Batxilergoan

- Ikasleen bilakaerara.
- Ikasgai bakoitzaren ikuspegia, helburu orokorrekin bat etorritz.
- Ikasleen prestakuntza Unibertsitatera igarotzeko.
- Goi-mailako Prestakuntza Zikloetara igarotzeko dimentsio profesionalizatzailea.
- Hiesarekiko prebentzioa eta Hezkuntza Afektibo-Sexuala 1. mailan.

Eduki berrien ikaskuntzan ondokoak izango ditugu kontuan:

- Ikasleek proposatzen zaizkien edukiei buruz dituzten aurretiazko ezagutzak.
- Ikaskuntza berriei aurre egiteko beharrezkoak diren ikaskuntzak bereganatu dituzten ala ez.

## **b) Edukien antolamendua.**

b.1.- DBHn

Eduki curricularrak arloka banatuta ageri dira. Edukiak egituratzeko, antolatzeko eta aukeratzeko modu egokia den arren, ikasleek arlo desberdinetako edukien artean dauden loturak ezagutzea garrantzitsua izango da, arlo guztien ekarpenen bidez errealitatea ezagutzeko aukera izango baitute.

Arlo desberdinetako edukiak ikasgelan landuko dira:

- Curriculumuma ezartzen duen Dekretuan ageri diren arloka.
- Arloen artean diziplinarteko proiektuak garatuz:
  - gai ei buruzkoak, batez ere zehar-lerroekin erlazionatutakoak, arlo desberdinetako ikaskuntzak txertatuz. Adibide gisa, Agenda 21 egitasmoarekin hasi gara.
- Arlo desberdinek komunean dituzten gai-multzoak identifikatuz, ikasleei horien ikaskuntza beste arlo batzuetan ikasten dutena kontuan edukiz

egiteko proposatzeko. Hau guztia, garrantzitsua iruditzen zaigu eta bultzatzen joango gara.

- Arlo desberdinetako programak koordinatuz, elkarren artean loturaren bat duten edukiak ikasiz.
- Ikaskuntzarako egoerak edo lan-proiektuak planteatuz eta horien inguruan jardura didaktikoak proposatuz, batez ere Ingelesa eta Teknologia arloetan, ikaskuntzen esanguratsutasuna eta funtzionaltasuna errazteko.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei buruzko edukien proposamena eta eduki horien tratamendua eta antolamendua 5.2 atalean garatu da.

Zehar-lerro bakoitzaren edukien proposamena eta horien tratamendua eta antolamendua **3.ERANSKINA** garatu da.

b.2.- Batxilergoan:

- Eduki curricularrak ikasgaika banatuta ageri dira.

**c) Eduki-motak.**

c.1.- DBH eta Batxilergoan

Curriculumaren barnean ikaskuntza-mota desberdinak ageri dira eta horien artean oreka egon behar du, ikasleen gaitasun guztiak sustatzeko eta hezkuntza-behar desberdinei erantzuteko.

Curriculumak aukeratzeko eta ikasgelako programa zehazterakoan, eduki-moten balioaren arabera (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak), ondoko irizpide hauek izango ditugu kontuan:

- Eduki-moten ikaskuntzak erlazioa izan behar du eta, beraz, ez zaizkie modu berezitan aurkeztuko ikasleei eta ez da ebaluazio berezia egingo.
- Unitate didaktiko bakoitzean eduki-mota bat edo beste bat erabiltzeko garrantzia proposatuko diren helburuen eta planteatuko den ikaskuntza-egoeraren mende egongo da.
- Prozedurazko edukiak funtzionalagoak dira eta horien irakaskuntzak denbora eskatzen du, erduetan oinarrituz lantzeko; kasu batzuetan eredu horiek imitatuko dira eta, beste batzuetan, ikaskuntzako lan pertsonalerako erreferenteak izango dira.
- Jarrerazko edukien irakaskuntzak osagai afektiboa du eta erabakigarria izango da hori ikaskuntzarako; benetako problemen hausnarketan oinarritzen da eta eduki horiek testuinguru hurbiletan landu behar dira, batez ere eskola-inguruan.
- Kontzeptuzko edukien irakaskuntzak, batez ere izaera abstraktuagoa dutenenak, horien esanahia ulertzea eskatzen du eta ikasleek heldutasun-maila nahikoa dutenean baino ezingo dituzte ulertu; hasieran gertaera eta esperientzia zehatzak landuko dira eta gero beste egoera batzuetara eramango dira, gero eta proposamen abstraktuagoak eginez.

- ☒ Mintegi eta departamentuek dagozkien arloetako programak aztertuko dituzte eta eduki-mota desberdinen garrantzia zehaztuko dute ziklo eta ikasturte bakoitzean.

### 2.4.3.- PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK.

- ◆ Curriculum Proiektu honetan hartutako erabakietan oinarrituta, Mintegi eta departamentu didaktiko bakoitzean irakasleek edukien banaketa eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko dituzte ikasturte bakoitzerako edo ebaluazio-garai bakoitzerako eta ikasturte hasieran argitaratuko dira.
- ◆ Programazio hori oinarritzat hartuko da ikasleek kalifikazioei egindako erreklamazioetan.
- ◆ Irakasle bakoitzak zehaztuko du programazio didaktikoa eta denbora jakin batean irakatsi nahi dituen edukiak zehaztuko ditu eta, horrekin batera, bete nahi dituen helburuak, helburu horiek betetzeko egin edo proposatuko dituen jarduera didaktikoak eta ebaluazio-irizpideak.

Gure ikastegian, honako gutxienezko atalak izango dituzte programazio guztiek: Aldia, Edukiak, Helburuak, Jarduerak eta Ebaluazio Irizpideak (ehunekotan). Irakasleak erabakiko du ikasleei nola jakin arazi. Azken hau gauzatzeko eta gida moduan, Harrera Programari jarraituko diogu.

- ◆ Klaustroak edo ikastetxeko ordezkari-organok gorenak programazioak berrikusi ahal izango ditu, dagozkien gaitasunen barruan.

Jarduera-motak eta, bereziki, ikasgelan jarduera horiek garatzeko moduak dira proposamen didaktikoen arteko desberdintasunak. Ez dugu sekuentzia zehatz eta uniforme bat nahi ikastetxe osorako ez eta metodo didaktiko bakar bat, baina ikaskuntzak oztoka ditzaketen eta kontraesanetan eror daitezkeen ikuspegiak saihesteko egoki deritzogu irizpide orokor batzuk definitzeari, ikastetxeko irakasle guztiontzat gidari izan daitezen sekuentzia didaktiko desberdinak garatzeko garaian.

- ☒ **Jarduera-motak sekuentzia didaktiko bakoitzean:** ahal den neurrian eta sekuentzia didaktiko bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanik, gure esku-hartzean erabiliko ditugun jarduera-mota komunak honako hauek izango dira, batzuk derrigorrezkoak eta besteak gomendagarriak izanez):

Derrigorrezkoak:

- ☒ *Garatzeko jarduerak:* kontzeptuak, prozedurak edo jokaera berriak lantzeko eta ezagutzeko jarduerak dira eta, bestalde, besteei egindako lanaren berri emateko baliagarriak dira.
- ☒ *Sintesisirako/laburtzeko jarduerak:* ikasitako eduki desberdinen arteko lotura errazteko eta ikuspegi globalizatzailea sustatzeko jarduerak dira.
- ☒ *Ebaluaziorako jarduerak:* hasierako, prestakuntzazko eta azken ebaluaziora zuzendutakoak barne hartuko dituzte eta aurreko ikaskuntza-jarduerak biltzen ez dituzten jarduerak izango dira.

Errekomendagarriak:

- *Sarrerako eta motibaziorako jarduerak*: ikasi beharreko elementuarenganako ikaslearen interesa pizteko helburua dute jarduerak hauek.
- *Aurretiazko ezagutzei buruzko jarduerak*: jarduerak hauen helburua ikasleek garatu behar diren edukiei buruz dituzten kontzeptuzko ezagutzak, iritziak eta ideia zuzen edo okerrak ezagutzea da.
- *Sendotzeko jarduerak*: ideia berriak eta ikasleek lehendik zituztenak kontrastatzeko jarduerak dira eta, horrez gain, ikaskuntza berriak beste egoera batzuetara aplikatzeko egokiak izango dira.
- *Indartzeko jarduerak*: landutako ezagutzei buruzko oinarritzko mailak lortu ez dituzten ikasleei zuzendutako jarduerak dira.
- *Edukiak zabaltzeko jarduerak*: proposatutako jarduerak ongi egin dituzten eta sekuentzian oinarritzotzat jotzen diren mailak gaintzen dituzten ikasleei ezagutzak eraikitzen jarraitzea ahalbidetzen dieten jarduerak dira.

- Mintegi eta departamentuek, programazioak ezartzen dituztenean, **lehentasuna duten metodologiak** proposatuko dituzte gai-multzoko bakoitzean: azalpenezkoak, ikerketari edo aurkikuntzari dagozkionak; lantegika, proiektua, problemak, zeregina...

#### 2.4.4.- HEZKUNTZA-ELKARRERAGINAK

##### a) Irakaslea ↔ ikaslea → Irakaslearen rola

Irakasleek, geure zereginen artean honako hauek izango ditugu:

- Errespetuan oinarritutako harremanerako giro sortzea.
- Ahal den neurrian talde edo gelarekin batera ikasgelako funtzionamenduarauak prestatzea.
- Ikasleei helburuen, planen, ikaskuntza-prozesuaren eta ebaluazio-prozesuaren berri ematea (beren ezaugarri berezietara egokituz).
- Autokontzeptu eta autoistimu egokiak sustatzea ikasleengan.
- Ikasgelan erabiltzen den hizkera zaintzea eta hizkuntza argia eta esplizitua izateko ahaleginak egitea; aurreiritzi arrazistak, klasistak edo sexistak inplikatzeko dituzten adierazpen estereotipatuak saihestea.

Baita ere honako hau gomendatzen da:

- Ikasle bakoitzari laguntza berezia eskaintzea.

##### b) Ikaslea ↔ ikaslea → Parekoen arteko ikaskuntza

Lankidetzarako ikaskuntzaren alde egonez, gaia ikasle eta taldearen arabera, honelako praktikak egiteko interesgarria ikusten dugu



- Talde txikietako lana, ikasle aurreratuenek zailtasunen bat duten ikasleekin lan egin dezaten.
- Ikuspuntu desberdinak dituztenen arteko trukea, norberaren ikuspuntua besteei adieraziz, rolak eta lanak koordinatuz eta trukatur.

## 2.4.5.- HEZKUNTZA-INGURUAREN ANTOLAMENDUA

### a) Ikasleen taldekatzeak

#### a.1.- DBHko 1. zikloan

Ziklo honetan ikasle bakoitzak erreferentzia-talde bat izango du eta tutore bat izango da talde horren buru. Ikasleen taldekatzeak antolatzeko ondoko irizpideak erabiliko ditugu:

- Ziklo honetan, ikasleen taldekatzea egiterakoan ikasleen heterogeneotasuna bultzatuko da, horretarako, taldeetan sexua, gaitasuna, etekin akademikoa, aukera erlijiosoa, etnia eta abar izango ditugu kontuan.
- Ikasleak zein ikastetxetatik datozen kontuan hartuko da eta inor bakarrik ez geratzen zainduko da.
- Portaera desagokia duten ikasleak talde desberdinetan banatuko dira, taldeak orekatuak izan daitezten.
- Hizkuntza joera nagusia.

#### a.2.- DBHko 2. zikloan

Ikasleen taldekatzeak antolatzeko ondoko irizpideak erabiliko ditugu:

- Ikasleen heterogeneotasuna bultzatuko da, taldeetan sexua, gaitasuna, etekin akademikoa, aukera erlijiosoa, etnia eta abar kontuan izanik, taldeak orekatuak izateko.
- 1. zikloan izandako esperientziaren arabera zeuden taldean mantendu ala ez erabakiko da.
- 4. mailan egiten diren bikoizketak (Gaztelania/Ingelesa, Euskara/Matematika) ikasleek duten ezagumendu mailaren arabera egingo dira, kopurua kantuan hartuz eta oreka lortu nahian.

#### a.3.- Ikasgelan (DBH osoan)

**Ikasgelan** ikasleak taldekatzeko modu desberdinak erabiliko ditugu:

- eduki-mota desberdinen, ezaugarrien eta ikasleen ikaskuntza-erritmo desberdinen arabera;
- irakaslearen eta ikasleen arteko elkarreragina, ikasleen autonomia nahiz parekoen arteko laguntzan oinarritutako ikaskuntza sustatzeko;
- taldeen osaketa malgua izango da zikloan edo ikasturtean zehar.

Taldekatze horiek egiteko ondoko **irizpideak** hartuko ditugu oinarritzat:

- talde handia*: ikasgelako ikasle guztiek osatuko dute eta beste ikasgelaren bateko ikasleek ere osa dezakete. Azalpenezko irakaskuntza-metodoetan oinarritutako jarduerak garatzeko erabiliko da: hitzaldiak, azalpen orokorrak, filmen edo bideoen emanaldiak, lanaren aurkezpenak eta plangintzak etab. eta, oro har, irakasleen eta ikasleen arteko elkarreraginak sendoegia izan behar ez duen kasuetan;
- erdi-mailako taldea*: talde hauen partaide-kopurua zortitik hamabostera bitartekoa izango da eta eztabaidak egiteko, lan-proiektuak baloratzeko eta aztertzeko, proposamenak egiteko etab. erabiliko dira, baina beti irakasleak zuzendu eta koordinatuko ditu;
- talde txikia eta bikotea*: talde hauen partaide-kopurua hirutik zazpira bitartekoa izango da eta lan-proiektu zehatzak eta ikerlanak egiteko erabiliko dira; taldekatze hauek, oro har, ikasleen interesak kontuan hartuz egingo dira eta borondatezkoak izango dira, lortu nahi diren helburuen ezaugarrien arabera eta egin behar den lan-motaren arabera;
- bakarkako lana* ikaskuntza instrumentaletarako edo zeregin bereziak egiteko erabiliko da;
- taldekatze horiek denbora jakin bat iraungo dute, ikasleek taldekatze-mota desberdinetan lan egiteko aukera izan dezaten.

## **b) Irakasleen antolamendua**

### b.1.- DBHko 1. zikloan

Irakasleen antolamendua irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan oinarritzako alderdia dela uste dugu eta, beraz, gure praktikan lagungarri izango den hezkuntza-elementutzat hartu behar da eta horren arabera erabiliko dugu, ikasleek ikaskuntza hobia izango baitute. Kontuan izango ditugun irizpideak ondorengoak dira:

- Taldearen tutorea ziklo osoan bera izango da.
- Hezkuntza-talde berberak lan egingo du talde bakoitzarekin ziklo osoan zehar, arlo berberak emanez.
- Salbuespenak salbuespen, irakasle-talde berak maila bereko taldeetan irakatsiko du, horien bateratzea eta koordinazioa sustatzeko eta errentagarritasun handiagoa izango duten estrategia komunak bultzatzeko.
- Zikloko irakasleek arlo komunak nahiz aukerakotasunaren alorreko ikasgaiak emango dituzte.

### b.2.- DBHko 2. zikloan eta Batxilergoan

- Taldearen tutorea ikasturte osoan bera izango da.
- Irakasleen banaketa mintegiek erabakiko dute, ahal den neurrian 1. zikloan jarritako irizpideak erabiliz.

## **c) Espazioaren antolamendua**

Espazioaren antolamenduak irakaslearen ikuspegi metodologikoa adierazten du eta ikasleen ezaugarri berezietara, proposatuko diren jarduera-motetara eta ikaskuntza-eritmo eta interesen aniztasunera egokitu behar da.

Espazioen nahiz denboren banaketa ikasleen ohituretan eta institutuarenganako jokaera positiboen garapenean eragina duen faktorea da, ikasleak institutuarekin identifikatzen baititu, ikaskuntzarenganako jokaera positiboak garatzen baititu eta autonomiazko ohiturak bereganatzen laguntzen baitie.

Ikastetxeko espazioen antolaketan ondoko irizpide hauek izango dira kontuan:

#### c.1.- DBHn

- DBHko eremuek unitate berezia hartuko dute eta ikastetxeko beste etapa batzuetako taldeetatik berezita egongo dira, baina, hala ere, etapen arteko koordinazioa ahalbidetuko da.
- Ziklo bereko taldeak elkarren artean hurbil kokatuta egongo dira eta, ahal izanez gero, batasun espaziala izango dute, jarduera komunetarako tokiekin.

#### ***Ikasgelak: Gure baliabide eta espazioak optimizatu nahian, sistema mistoaren aldeko apustua egiten dugu.***

- Ahal den neurrian, arloak eta ikasgaiak ikasgela berezietan emango dira, eta ikasgela horietan dagozkien baliabide didaktikoak jarriko dira.
- Talde bakoitzak erreferentzia-ikasgela bat izango du eta bertan emango dituzte arlo eta ikasgai gehienak, nahiz eta jarduera batzuk horretarako prestatutako toki berezietan egingo dituzten, hala nola, liburutegian, laborategian, gimnasioan, informatika-gelan, ingeles-gelan, plastika gelan, teknologia-lantegian....
- Ikasgelek bakarkako lana, talde txikietakoa nahiz talde handikoa ahalbidetuko dute.
- Ikasgela bereziak jarriko dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin lan egiteko.
- Garbitasuna bereziki zainduko dugu, eta besteak beste, hori tutoretzan landuko da.

#### *Eremu komunak: gimnasioa, erabilera anitzeko gela, informatika-gela, e-gela, ...*

- Eskolako ordutegia egiterakoan, talde desberdinek erabiltzen dituzten eremu komunak zeintzuk diren kontuan izango da.
- Kanpoko fatxadak, jolastokiak eta barneko eremuak estetikoki zainduko dira; edozein pintada, zikin edo kalte garrantzitsu... berehala garbitu edo konpondu behar da.

#### ***Irakasleak:***

- Irakasleek eremu bereziak izango dituzte, ondorengo zereginetarako ekipamenduak izango dituztenak:
  - Lan pertsonalerako eta ziklo, sail nahiz klaustroaren bileretarako.
  - Zaintza gela.

- Ahal den neurrian, Zikloen geletan nahiz Sailen geletan irakasleen eskura multimedien liburutegi egokia, informatika-sare lokalarekin lotura, eta irakasle bakoitzarentzat ordenagailu pertsonala eta armairu bat izango dira.
- Eginkizun berezietarako gelak izango dira, adibidez, orientabiderako bulegoa.

c.2.- Batxilergo, Lanbide Heziketa , ZIG eta Lanbide Tailerlean

***Ikasgelak:***

- Talde bakoitzak erreferentzia-ikasgela bat izango du eta bertan emango dituzte arlo eta ikasgai gehienak, nahiz eta jarduera batzuk horretarako prestatutako toki berezietan egingo dituzten, hala nola, liburutegian, laborategian, gimnasioan, informatika-gelan, teknologiako gelan....
- Zenbait ikasgai ikasgela berezietan emango dira eta ikasgela horietan dagozkien baliabide didaktikoak jarriko dira.
- Azterketarako gelak
- Batxilergoko 2. mailako geletan orientabide-txokoa jarriko da.
- Beste kasuetan, DBHren atalean jasotzen dena

***Irakasleak:***

- Irakasleek eremu bereziak izango dituzte, ondorengo zereginetarako ekipamenduak izango dituztenak:
- Lan pertsonalerako eta ziklo, sail nahiz klaustroaren bileretarako.
- Ahal den neurrian, Zikloaren gelan nahiz Sailen gelan irakasleek multimedien liburutegi egokia izango dute, informatikako sare lokalarekin lotura, ordenagailu pertsonala eta armairu bat irakasle bakoitzarentzat.
- Eginkizun berezietarako gelak, adibidez, orientabiderako bulegoa.

**d) Denboraren eta ordutegien antolamendua**

Denbora antolatzea ere funtsezkoa da irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesua garatzeko eta ikasleek hezkuntza-helburuak lortzeko. Besteak beste, ikasleen autonomia sustatu behar du eta aniztasunari arreta ematea ahalbidetuko du. Denboraren plangintza talde zehatzaren arabera, ikasleen ikaskuntza-erritmo desberdinen arabera, eduki-motaren eta horien antolamenduaren arabera eta proposatuko diren jardueren arabera egingo da eta proposatutako helburuak lortzeko aukera eman behar du.

Denbora antolatzeko ondoko irizpideak izango dira kontuan:

▪ *Ordutegiak antolatzeko:*

- Ahal den neurrian, egun bakoitzeko irakastorduen banaketa egiterakoan, antzeko izaera duten arloak (hizkuntzak adibidez), multzo luzeegi edo jarraituetan ez biltzeko ahalegina egin behar da, eta ikuspegi desberdinak sustatzen dituzten arloak tartekatuko dira.
- Aukerakoei beste arlo batzuek duten estatus bera ematea.
- Printzipio nagusiak:
  - Ikasleek duten aukeratzeko eskubidea errespetatu ahalik eta gehienez.
  - Aukeraketa koherentea izatea, etorkizunean egin behar diren ikasketen arabera.

➤ Geletan lan-giro on bat lortzea.

▪ *Ordutegien banaketa*

Oinarrizko ordutegizat ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuaren II. eranskinean proposatutakoa hartuko dugu, bertan Euskal Autonomia Erkidegorako etapa honetako curriculuma ezartzen baita eta, bestalde, eranskin hori legalki osatu duten Aginduak, Ebazpenak eta Instrukzioak ere kontuan izango ditugu (1996ko uztailaren 16ko Agindua, curriculumean egin daitezkeen aukerak arautzen dituen (1996-08-09ko EHAA); Ebazpena, derrigorrezko arloen arteko hautazkotasunari buruzkoa (1997-07-22ko EHAA); Hezkuntzako Sailburuordearen Instrukzioak 1999-2000. ikasturterako.

Lehenengo zikloan libre xedatzeko orduak honela banatuko dira:

- Natur eta gizarte arloek 6na ordu izango dituzte astean zehar.
- Tutoretza saioa: astero, ordu bete.

DBHko bigarrenengo zikloan:

- Tutoretza saioak eta erlijioarenak hamabosten behin ematea, tartekatuz.

Batxilergoan:

- Ikasgaien banaketa egiterakoan kontuan hartuko dena: astegun desberdinak eta, ahal den neurrian, egun jarraian ez izatea
- Tutoretza saioak astero izatea eta ordutegian sartuta egotea. Administrazioak agintzen duen bezala, ezin izango dira ipini ez lehenengo, ez azken orduan .
- Gaur egun informazioa bilatzeko ezinbestekoa bihurtu baita eta bai unibertsitatean sartzeko tramiteak egiteak honela eskatzen duela kontuan hartuz, 2. mailako kasuan, informatika gela bat tutoretza saioetan eskura izango dute ikasle eta orientatzaileak.

**e) Institututik kanpo zeregin akademikoei eskainitako denbora (etxeko lanak ....)**

Ikasleek ikasteko ohitura bereganatzea eta beren lan pertsonala modu autonomoan antolatzen ikastea komeni da. Helburu horrekin –eta ikasgeletan egiten duten lanaren osagarri gisa–, ikastorduetatik kanpo hainbat jarduera egitea proposatuko zaie.

Zeregin horiek antolatzeko ondoko irizpideak izango ditugu kontuan.

- Ariketak eta lanak, oro har, lan osagarriak edo erreparatzeko ariketak izango dira.
- Talde bakoitzean, irakasle bakoitzak, ikasleek beren zereginak egiteko zenbat denbora behar duten kalkulatu du
- DBHko 1. zikoan, etxeko lanak koordinatzeko asmoz, irakasle-gelan zereginen zerrenda ipiniko da.
- Arlo eta irakasgai guztietan eta tutoretzan gidatutako ikasketarako uneak ezarriko dira; bestalde, etxean erabiltzeko, denboraren plangintza on bat egiten

irakatsiko zaie, baita ere planifikatzeko tresnen erabilera: agendak, kronogramak, zereginen zerrenda, errepasatzeko taulak, ...)

- DBHko 2. zikloan eta Batxilergoan, aurre ebaluazioetan eta antzeko unetan, ikasleei pasatzen zaizkien inkesten bidez, zeregin horiek suposatzen dien denborari buruzko informazioa lortuko da. Era berean, ikasleek nola erabiltzen duten agenda, ikasteko metodoaz eta frogak prestatzeko dituzten ohiturei buruzko informazioa lortzeko aukera izango dugu.
- Talde-lana edo hainbat ikasleren garapen bateratua eskatzen duten etxeko lanak egin ahal izateko, institutuan bertan egiteko aukera izango dute. Horretarako, liburutegia, ikasketa-gela, eta antzeko aretoak irekita izango dituzte.

Batxilergoan:

- Azterketei aurre egiteko ikastaroa, tutoretzan
- Aurre ebaluazioetan

## **2.5.- MATERIAL CURRICULARRAK ETA BALIABIDE DIDAKTIKOAK.**

### **2.5.1.- MATERIAL DIDAKTIKOAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURAK**

Material curricularrak irakasleek irakasteko moduari buruzko erabakiak hartzeko eta ikasleei ikaskuntza-prozesua errazteko lagungarri diren baliabide gisa ulertzen ditugu. Beste aldetik, arlo eta irakasgaien arabera, testu-liburuak erabilpenak garrantzi ezberdina izango duela esan beharra daukagu.

Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren plangintza, garapena eta ebaluazioa errazteko tresnak dira, Curriculum Proiektuko aukera metodologikoak eraginkor bihurtzen dituzte eta ikasleen eta institutuak eskaintzen dituen hezkuntza-esperientzien arteko bitarteko funtzioak betetzen dituzte.

Testu-liburuak aukeratzeko balorazio-irizpideak ondokoak dira:

*Institutuaren Curriculum Proiektuarekin koherentzia:*

- ◆ Hezkuntza Sailak onartutako eta Curriculum Proiektura hobekien egokitzen diren material curricularren erabilera.
  - Argitaratze-proiektuaren helburuak Institutuaren Curriculum Proiektuaren arabera egokitzea;
  - Hiru eduki-motei modu egokian erantzutea: kontzeptuzkoei, prozedurazkoei eta jarrerazkoei;

*Proposamen didaktikoari dagokionez.*

- Curriculum Proiektu honetan hartutako erabaki metodologikoekin koherentea izatea;
- Planteatutako gaiak ebazteko ikasleei lan-teknika intelektualen erabilera eskatzea;

- Planteatzen dituen jarduera-motak ugariak izatea: proposatutako ariketak, praktikak, nahikoak eta egokiak izatea.
- Dakartzaten adibideak ebatsita izatea eta ikasleentzako erreferenteak izatea. Batxilergoan, hautaprobetan azaltzen direnen antzekoak izatea.
- Ikasleen parte hartzea, autonomia eta autoebaluazioa sustatzea.
- Ikasleen trebetasunak garatzea.

*Kalitate formalari dagokionez.*

- Hizkuntza eta hiztegiaren kalitatea zaintzea
- Diseinu erakargarria eta erabilgarria izan behar dute, grafiko, eskema eta argazkiekin, edukien esanguratsutasuna sustatzeko; oreka mantenduz.
- Gaien antolaketari dagokionez, argitasuna
- Edukien aldetik osatuena, behar diren grafiko eta irudiak izanez, beteegia suertatu gabe.
- Gaien garapen egokia izatea, baita ere, testuak nola garatzen diren adieraztea.

Material curricularrak edo beste baliabide didaktiko batzuk berritzeko ondoko irizpideak izango dira kontuan:

- ◆ Behin ziklo baterako materialak aukeratu ondoren ez dira aldatuko ikasleek ziklo hori amaitu arte.
- ◆ Zeregin edo ziklo jakin baterako aukeratutako materialak ez dira aldatuko gutxienez lau urte igaro arte, horiek aldatzeko arrazoi garrantzitsurik izan ezean.
  - Aldaketak modu koordinatuan erabakiko dira beti eta etapako irakasleek edo, kasuaren arabera, departamentu edo mintegiek erabakiko dituzte.
  - Materialak urteko Memoria egiterakoan berrikusiko dira.
  - Aldaketak egiterakoan ikasleen beharrak kontuan izango dira eta, horiez gain, argitaletxeek eskaintzen dituzten aukerak eta institutuaren baliabideen eta proiektuen arabera ezarriko den lehentasuna ere kontuan izango dira.
  - Material curricularretan egiten den edozein aldaketak material berriaren azterketa sakona eta arrazoizko balorazioa eskatuko du, aurrez adierazitako irizpideak aplikatuz.

## **2.5.2. - INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT) ERABILTZEAK**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (ordenagailuak, aplikazio informatikoak, ikus-entzunezko nahiz multimedia baliabideak) eta horiekin lotutako hizkuntzek errealitatea ezagutzeko bide bat irudikatzen dute, informazioa gordetzeko eta prozesatzeko, lortu ezin diren egoerak simulatzeko eta abiadura handiz lan egiteko gaitasunari esker.

IKTen erabilerari esker informazioaren eta produkzio-sistemen tratamendua aldatzen ari da. Ikasle guztiek baliabide horiek erabiltzeko aukera izango dute, etorkizuneko gizartean eta mundu produktiboan ezinbestekoak baitira. Halaber, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan aukera izugarriak eskaintzen ditu tresna honek, elkarreraginerako gaitasun handia baitu.

Horren guztiaren ondorioz, gure institutuan IKTak lantzeko ondoko alderdiak izango ditugu kontuan:

### 2.5.2.1.- Ikasleen ikaskuntzarako eduki gisa

- ❖ IKTekin erlazionatutako eta ikasleek DBH eta Batxilergoa amaitzean ezagutu behar dituzten ikaskuntzako edukiak ezarriko ditugu (ikus **1.ERANSKINA**).
- ❖ Eduki horien ikaskuntza banatzeko modua zehaztuko dugu:
- ❖ Ordu libreak aprobetxatuko ditugu lehen zikloan.
- ❖ Bi zikloetan, hala nahi duten ikasleei aukerakotasunaren alorreko ikasgaien bidez ezagutza sakonagoak eskainiko dizkiegu.
- ❖ DBHn, edukiak arloetan banatzeko erabakiak hartuko ditugu:

<input checked="" type="checkbox"/> Orokorki, hizkuntzei dagozkien arloetan	<input checked="" type="checkbox"/> Dokumentuak produzitzeko, posta elektronikoa garatzeko aplikazio informatikoak <input checked="" type="checkbox"/> Formatu desberdinetako dokumentuak aztertzea eta irakurtzea.
<input checked="" type="checkbox"/> Ingeleran	<input checked="" type="checkbox"/> Internet erabiltzea informazio bilketarako <input checked="" type="checkbox"/> Formatu desberdinetako dokumentuak ekoiztea <input checked="" type="checkbox"/> Internet erabiltzea errefuertzat ariketetaz baliatzeko
<input checked="" type="checkbox"/> Matematikan	<input checked="" type="checkbox"/> Zenbakizko informazioa eta informazio kuantitatiboa prozesatzeko aplikazio informatikoak: kalkulu-orriak, estatistikako grafikoak sortzeko elementuak <input checked="" type="checkbox"/> Appleten bitartez zenbait kontzeptu geometrikoak uler arazteko.
<input checked="" type="checkbox"/> Natur Zientzietan	<input checked="" type="checkbox"/> 1. zikloan: Ikasleek testu prozesadoreak erabiliko dituzte beraien txostenak egiteko eta irakasleei aurkezteko. Hauetan irudiak ere erabiliko dituzte, eta horiek lortzeko zenbait sistema bultzatuko dira: <input checked="" type="checkbox"/> Marrazketa programak <input checked="" type="checkbox"/> Internet bidez informazioa bilatzea <input checked="" type="checkbox"/> 2. zikloan Testu prozesadoreak erabiltzetik aparte, Power Point programarekin aurkezpenak egin. <input checked="" type="checkbox"/> Internet bidez informazioa bilatzea
<input checked="" type="checkbox"/> Teknologian	<input checked="" type="checkbox"/> Ekipoen egiturarekin, zainketarekin eta osagai funtzionalekin lotutako alderdiak. <input checked="" type="checkbox"/> Objektu teknologikoak simulatzeko, diseinatze eta zenbait kalkuluak egiteko aplikazio informatikoak
<input checked="" type="checkbox"/> Musikan	<input checked="" type="checkbox"/> Soinua sortzeko, manipulatzeko eta editatzeko aplikazio informatikoak
<input checked="" type="checkbox"/> Plastika eta Ikus-hezkuntzan	<input checked="" type="checkbox"/> Marrazketa teknikorako, diseinu grafikorako, irudi finkoaren nahiz mugitzen den irudiaren



	tratamendurako eta, ikus-entzunezko konposaketarako aplikazio informatikoak.
--	--

Batxilergoko honako ikasgaietan tresna bezala erabiliko ditugu teknologi berriak:

<input checked="" type="checkbox"/> Euskaran	<input checked="" type="checkbox"/> Dokumentuak produzitzeko. <input checked="" type="checkbox"/> EGA azterketa prestatzeko.
<input checked="" type="checkbox"/> Ingeleran	<input checked="" type="checkbox"/> Internet erabiltzea informazio bilketarako <input checked="" type="checkbox"/> Formatu desberdinetako dokumentuak ekoiztea <input checked="" type="checkbox"/> Internet erabiltzea errefuertzat ariketataz baliatzeko
<input checked="" type="checkbox"/> Matematikan	<input checked="" type="checkbox"/> Internet erabiltzea informazio bilketarako <input checked="" type="checkbox"/> Zenbakizko informazioa eta informazio kuantitatiboa prozesatzeko aplikazio informatikoak: kalkulu-orriak, estatistikako grafikoak sortzeko elementuak. <input checked="" type="checkbox"/> Appleten bitartez zenbait kontzeptu geometrikoak uler arazteko, arbela digital interaktiboaren laguntzaz.
<input checked="" type="checkbox"/> Historia, Arte eta Geografian	<input checked="" type="checkbox"/> Datu-baseen kudeatzaile erraz baten erabilera <input checked="" type="checkbox"/> CD-ROM, DVD edo sare telematikoetan datu-baseak erabiltzea <input checked="" type="checkbox"/> Internet bidez informazioa bilatzea
<input checked="" type="checkbox"/> Biología eta Geologian	<input checked="" type="checkbox"/> Testu prozesadoreak erabiltzetik aparte, Power Point programarekin aurkezpenak egin. <input checked="" type="checkbox"/> Internet bidez informazioa bilatzea
<input checked="" type="checkbox"/> Fisika eta Kimikan	<input checked="" type="checkbox"/> Dokumentuak ekoizteko: txostenak, etiketak, ... <input checked="" type="checkbox"/> Ordenagailuz lagundutako esperimentazioa aurrera eramateko <input checked="" type="checkbox"/> Simulazioak ikusteko <input checked="" type="checkbox"/> Internet bidez informazioa bilatzea
<input checked="" type="checkbox"/> Teknologian eta Elektroteknian	<input checked="" type="checkbox"/> Ekipoen egiturarekin, zainketaekin eta osagai funtzionalekin lotutako alderdiak. <input checked="" type="checkbox"/> Objektu teknologikoak simulatzeko eta diseinatzeko aplikazio informatikoak
<input checked="" type="checkbox"/> Marrazki teknikoan, DAOR eta Errepresentazio sistemetan	<input checked="" type="checkbox"/> Diseinu grafikorako, irudi finkoaren nahiz mugitzen den irudiaren tratamendurako aplikazio informatikoak.
<input checked="" type="checkbox"/> Tutoretzan	<input checked="" type="checkbox"/> CD-ROM, DVD edo sare telematikoetan datu-baseak erabiltzea <input checked="" type="checkbox"/> Internet bidez informazioa bilatzea <input checked="" type="checkbox"/> Datu-baseetatik informazioa lortzea <input checked="" type="checkbox"/> Informazioa eskatzeko posta elektronikoa erabiltzea

### 2.5.2.2.- Euskarri elektronikoa duten baliabide eta material curricular gisa:

- Gure irakaslanean lanerako tresna gisa erabiliko ditugu (materialak aztertze, ebaluatzeko eta lantzeko, tutoretzaren kudeaketarako, informazioa bilatzeko, beste irakasle-talde batzuekin komunikatzeko, gaiak azaltzeko etab.)
- Ikasgelako programazioetan ikasleek baliabide teknologikoen aukera desberdinak erabiltzeko jarduerak diseinatuko ditugu (ordenagailuz lagundutako irakaskuntzako –OLI– programak eta ordenagailuz lagundutako esperientzietako –OLE– programak).

### 2.5.2.3.- Antolamenduari buruzko alderdiak

- Institutuan baliabide teknologikoen arduradun edo koordinatzaile bat izango da.
- Espazioak, ekipamendu-motak eta eskura dauden baliabideak diseinatzeko ondoko irizpide hauek izango dira kontuan:
- Arloetako eremu edo espazio berezietan (lantegiak, laboratoriorak etab.) arloko baliabide teknologiko bereziak erabiliko ditugu.
- Ikasgeletara erraz eraman daitezkeen baliabideak gordetzeko biltegiak ditugu.
- IKTetarako ondoko gela bereziak izango ditugu:
  - E-gelak
  - Informatika-gelak
  - Ikus-entzunezko komunikaziorako gelak
- Liburutegiaz gain, dauzkagun materialekin mediateka bat antolatzen saiatuko gara
- Erabilera komuneko eremu eta ekipamenduak koordinatzeko planning bat egingo da (urtero, hiru hilero, hilero, astero) eta bertan gelak edo biltegi-tako ekipoa erabiliko dituzten arlo edo ikasgaiak zehaztuko dira.
- Irakasleentzako eremuetan, hala nola, sailetan, mintegietan etab., euskarri teknologikoa duten materialak sortzeko, aztertze eta ebaluatzeko beharrezko ekipamendu teknologikoa izaten saiatuko gara.

### 2.5.3.- IKASGELATIK ETA INSTITUTUTIK KANPOKO JARDUERAK

Ikaskuntzarako aukerak eta beharrak ez dira ikasgelan agortzen, ez eta liburu-eretan ere. **Jarduera osagarrien** bitartez curriculumaren ikaskuntza erraztu nahi da eta beste ikastetxe askotatik iritsitako informazioak eta baliabideak erabili nahi dira. Gertaeren behaketa zuzenaren eta gure inguruan eskura ditugun baliabideen ezagutzaren bidez ikaskuntza sustatu nahi da, gure hezkuntza-erakundearen dimentsio zientifikoa errealitate hurbildu nahi da, gure ikasleek lanbideei dagokienez dituzten irtenbideen irudi erreala eratu nahi da etab.

#### a) Jarduera osagarriak hautatzeko irizpideak.

**Jarduera osagarriak hautatzeko erabiliko ditugun irizpideak ondoko hauek dira:**

- Ikasgelan emandako edukiekin lotura izango dute eta ikasleek eduki horiei buruz duten ikuspegia eta ulermena osatzeko eta aberasteko baliagarriak izango dira.

- Curriculum Proiektu honetan lehentasuna duten helburuak eta zehar-lerroak kontuan izango dituzte.
- Diziplinartekotasuna eta arlo eta ikasgai desberdinen arteko lotura bultzatuko dituzten proposamenak eta jokoerak sustatuko dituzte.
- Talde eta maila bakoitzerako desberdinak eta berariazkoak izango dira, dagozkien programazioen arabera.
- Ikasleen zentzu kritikoaren eta konstruktiboaren garapena bultzatuko dute.
- Ikasleek ikastetxetik kanpoko kultur ekintzak ezagutzeko egokiak izango dira.
- Pertsonak eta ingurua errespetatzeko dinamikak bultzatuko dituzte eta ikasleak inguru soziokultural eta naturalean erabat integratzeko ohiturak eta jokabideak sustatuko dituzte.
- Ikasleek antolatze eta jokatze duten gaitasuna sustatuko dute.
- Ikaskuntza akademikoa eta inguruak eskaintako esperientzia eta informazioa erlazionatuko dituzte.
- Ikasleen arteko harremanak sustatzeko ekintzak egingo dira, batez ere etapen hasieran.

Ikasgelatik kanpo ondoko jarduerak hauek garatuko dira nagusiki:

- Egonaldiak barnetegietan (**DBH1 eta DBH2 tutoretzaren programazioaren arabera, batzuetan DBH3n ere egin daitezke**)
- Jaialdiak institutuan
- Hezkuntza-kanpaina bereziak
- Bisitaldi kulturalak: museoak, erakusketak, enpresak, instituzioak...
- Antzezlanak, musika-kontzertuak ...
- Kirol jarduerak
- Tokian tokiko lanak
- Irteerak
- Ikasturte amaierako bidaiak
- Trukeak
- Ikastetxeen arteko senidetzeak
- Campusetarako bisitak. Baldintzak
  1. Suspentso kopurua kontuan hartuko da
  2. Donostiako Campusera arratsaldean joango da (busean edo trenez.)
  3. Bisitarien kopurua 25era iristen bada, Gasteiz eta Bilbo-Leioako Campusetara joateko, autobus bat antolatuko da. Kopuru hori lortzen ez bada, tren edo busez joan beharko da. Ez da inolako kasutan onartuko kotxe partikularrez joatea.
  4. Arratsaldeko bisiten kasuan, kotxez joaten bada, ez da diru-laguntzarik izango.

#### **BESTE UNIBERTSITATE PUBLIKO ZEIN PRIBATUAK (bisitak)**

- Unibertsitate pribatuak ere antzeko ekitaldiak antolatzen dituzte. Bisita hauek, Urteko Planan sartzen baditugu, ofizialtasuna eta diru-laguntzak lortu daitezke. Zeintzuk onar daitezkeen erabakitzeak, ezinbestekoa da interesatuen kopurua jakitea.

**LH ikastegietarako bisitak**

**LH erakustaldirako bisita.** Bi urtez behi egiten denez, Pedagogi batzordeak erabakiko du zeintzuk izango dira joango diren taldeak

## b) Honelako jarduerak antolatzeko irizpideak

- Eskola egutegian banatuta eta garai batzuetan ez pilatzea, adibidez batxilerrean azterketa garaietan.
- Ikasturte hasieran onartzen dena ezin da erabat itxi. Ikasturtean zehar iristen diren eskaintza berriak direla eta, hauek egiteko aukera izan behar da. Ikasturte planean onartu gabeko eskaintza berri hauek egiteko zuzendaritzarekin kontsultatu behar dira.
- Ahaleginak egin behar dira maila guztietan irteerak egiteko, ikasgai desberdinetan bada ere.
- Irteerak maila bereko talde guztiekin egin behar dira. Edo, zer gertatzen da 4. DBHn ikasgai bateko irteera egiten denean?
- Irteeren helburuak hauek izan behar dira:
  - Lehentasuna izango dute, ikasgaien programazioarekin bat datozenak, hau da curriculumean txertatutakoak.
  - Maila batzuetan oso garrantzitsuak dira talde dinamikarekin erlazio zuzena dutenak: 1. DBHn talde ezagutza eta kohesioa bultzatzeko irteerak.
  - Irteera kulturalak ere egingo dira, beti ere beste aspektu akademikoekin ez badira txokatzen.
  - Zenbait kasutan irteera ludikoak egin daitezke, beti ere plan baten menpe baldin badaude eta horretan ekintza kulturalak planteatzen badira.
- Ikasketa bidaien kasuan Institutoak kolaboratuko du baldintza hauetan:
  - Ekintza kulturalak egiten badira
  - Ikasleek portaera normala baldin badute eta ez badute arazorik sortzen.

Honelako jarduerari zentzua emateko asmoz eta baterabilteak saihestuz koordinatzeko eta horien antolaketa eta garapena ahalbidetzeko, ikasgelatik kanpoko honelako jarduerak antolatzeko ondorengo irizpideak erabiliko ditugu:

### Institutuan ohizko ordutegian burutuko diren jarduerak:

- Ahal den neurrian, jarduera hauek guztiak, zentzu generikoan gutxienez, ikasturte hasieran diseinatuko dira, gero programazio orokorrean sartzeko.
- Ikasleek bere taldearentzat antolatutako eta eskola-orduetan edo tutoretza-orduetan emango diren jardueretan parte hartu behar dute derrigorrez, salbuespenak salbuespen (adibidez, ikasle errepikatzailean badira, ikus Tutoretza Ekintzen Egitasmoan jasotzen dena)..

### Ikastetxetik kanpoko jardueretarako (aurreko irizpideez gain, honakoak erabiliko ditugu):

- Ikastetxetik kanpo edozein jarduera egiteko Antolamendu eta Jarduera Araudian adierazitako arauak bete behar dira.
- Aurretik gurasoei edo arduradunei jarduera horren berri emango zaie eta baita parte hartu behar duten ikasleei ere.
- Jarduera horien programazioan, gutxienez, ondorengo alderdiak zehaztuko dira: **lortu nahi diren helburuak, egingo diren jarduerak, irakasle**

**arduradunak eta irteteko eta bueltatzeko tokia eta ordua. Ondoren: memoria.**

### **c) Ikastetxetik kanpoko irteerarako irizpide didaktikoak**

Ikastetxetik kanpoko irteerek hezkuntza aldetik zentzua izan dezaten eta gure ikasleen ikaskuntzari begira lagungarriak izan daitezen, horien plangintzan eta garapenean ondorengo urratsak izango ditugu kontuan:

*Ikasgelan, irteeraren aurretik:*

- Hasierako motibazioa bultzatzea
- Dokumentazioa ekartzea eta aztertzea eta irteerarako materiala prestatzea
- Arriskutsuak izan daitezkeen gune eta uneetaz jabe daitezen ikasleei informazio zehatza ematea eta funtzionamendu-arauak argitzea eta erabakitzea

*Irteeran bertan:*

- Datuak biltzea
- Lan praktikoak egitea

*Ikasgelan berriro:*

- Datu horiek sistematizatzea eta antolatzea
- Informazioa zabaltzea
- Esperientzia ebaluatzea.

### **d) Eskolaz kanpoko jarduerak.**

Ikastetxe batek ez ditu bere jarduerak jarduera akademikoetara mugatu behar eta ikasleei beste esperientzia batzuk eskainiko dizkieten jarduerak garatu behar ditu, aisialdia modu aberatsean erabiltzeko jarraibideak eman behar ditu, balioak kontrastatu behar ditu... Eskaintza honek etapetako helburu orokorrekin koherentea izan behar du. DBHn kirol-eskolak garrantzi berezia izango du, baina Batxilergoan ere eskaintza izango da.

## **2.6.-ANIZTASUNA TRATATZEKO ETA EGOKITZAPEN CURRICULARRETARAKO IRIZPIDEAK.**

### **2.6.1.- INSTITUTUKO ANIZTASUNARI BURUZKO OHARRAK**

Gure ikastetxeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek aniztasun handia dute gaitasunei, garapen ebolutiboaren uneei, afektibitateari eta harremanei dagozkien jarraibideei, itxaropenei etab. dagokienez. Aniztasun hori areagotu egiten da etapak aurrera egiten duen neurrian eta, praktikan, edukiak bereganatzeko maila desberdinak, ikaskuntzarako estilo eta erritmo desberdinak, harremanetarako modu desberdinak, interes eta motibazio desberdinak etab. sortzen dira.

Gure institutuan, gure arreta merezi duten aniztasun-mota garrantzitsuenak ondorengo elementu hauekin erlazionatutakoak dira:

- Nerabezaroaren bilakaera-prozesuan egoera desberdina duten ikasleak.
- Sexu desberdineko ikasleak.

- Gaitasun eta motibazio desberdineko ikasleak.
- Premia bereziak dituzten ikasleak, hezkuntza-premia bereziak dituztenak.
- Nahiz eta pisu handiegirik ez izan, erlijio eta kultura desberdinetako ikasleak. Baita ere gizartean nolabait baztertuta egon daitezkeen ikasleak eta gure herrialdera duela gutxi iritsitakoak.
- Gaitasun handiak dituzten ikasleak.

Batxilergoari dagokionean:

Gure ikastetxeko Batxilergoko ikasleek ere aniztasuna dute: asmoak (Goi-mailako Zikloak, Unibertsitatea, etab.) Berdin, ikaskuntzarako estilo eta erritmo desberdinak, interes eta motibazio desberdinak.

Batxilergoan, gure arreta merezi duten aniztasun-mota garrantzitsuenak ondorengo elementu hauekin erlazionatutakoak dira:

- Sexu desberdineko ikasleak.
- Gaitasun, asmo eta motibazio desberdineko ikasleak.
- Premia bereziak dituzten ikasleak.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.
- Erlijio eta kultura desberdinetako ikasleak.
- Gaitasun handiak dituzten ikasleak.

## **2.6.2.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK**

Gure institutuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren izaera muinbakarra bere gain hartzen du eta horrek ondorengo esan nahi du:

- Ikasle guztiek heziketa jasotzeko duten eskubidea bermatzea eta jatorrizko baldintzatzaileek beren garapen pertsonalean ahal den eragin txikiena izatea, eskolako heziketaren eraginari esker.
- Ikasle guztiei oinarrizko irakaskuntza komuna eskaintzea, horien aniztasuna onartuz eta ikasle bakoitzari arreta berezia eskainiz, bere ezaugarri eta beharren arabera.
- Ikasleei behar dituzten hezkuntza-baliabideak eskaintzea, jarrera eta jokaera baztergarriak saihestuz eta ikasleen parte-hartzea bilatuz talde arrunteko jardueretan.
- Ikaslearen sexua, hizkuntz eredua, aukera ideologikoa, aukera erlijiosoa, gaitasun intelektuala, zentzuei nahiz fisikoari dagozkion gaitasunak nahiz egoera sozioekonomikoa oinarritzat izango duen edozein diskriminazio baztertzea, bai institutuaren eta ikasgelen antolamenduan eta funtzionamenduan, bai curriculumaren garapenean.

Ondorioz, ikasleen aniztasunaren aurrean gure jokaeraren oinarri gisa printzipio hauek onartzen ditugu:

- Taldearen heterogeneotasuna baloratzea homogeneotasunaren aurrean.
- Desberdintasunaren aurrean erantzun eta jarraipena ahalik eta indibidualizatuena sustatzea.

- Sexismoa baztertzea.
- Hainbat ikasle eta familiarekin, ikasketa-lanbideekiko espektatibak zabaltzea eta ikaskuntzaren baliogarritasuna handitzea.
- Ikasleak beraiei eragiten dieten erabakietan parte hartzea eta inplikatzeta.
- Baztertuen aldeko ekintza positiboak

#### Batxilergoan

- Ikasleen ezaugarri eta aukera desberdinei erantzuteko, taldearen heterogeneotasuna errespetatzea
- Sexismoa baztertzea
- Ikasleen parte hartzea bultzatzea
- Baztertuen aldeko jarrera positiboak

### **2.6.3.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK ETA NEURRIAK**

DBHn, printzipio horien garapena aplikatu beharreko neurri desberdinak txertatuko diren esparrua osatzen duten esku hartzeko irizpide batzuetan zehazten da.

#### ***Programazio didaktikoari dagokionez,:***

- 1. zikloan:* Arlo instrumentalen ikaskuntzak izango du lehentasuna: hizkuntza eta matematika, arlo horietan zailtasunak dituztenek edo atzeratuta daudenek arreta berezia izango dutelarik.
- 1. zikloan:* Bakarkako lanerako jarduerak mota askotakoak izango dira behar edo premia desberdinei erantzuteko eta arrakasten maila egokia eskaintzeko.
- 1. zikloan:* Talde-lanetan lankidetzak sustatuko dugu, taldekatze heterogeneoak edo homogeneoak osatuz une bakoitzean lortu nahi dugunaren arabera.
- 1. zikloan:* Indartze neurri egokiak ezarri.
- 2. zikloan:* Ikasle kopurua murriztuz.
- 2. zikloan:* Arlo instrumentalek oinarria izan behar dute.
- Lankidetzak sustatuko dugu.
- Egoerak eskatzen duen neurrian,* ikasgai batzuk eremura antolatuko dira eta irakaslea bera arduratuko da ikasgaiari dagozkion ordu guztiez.

#### ***Taldeari eta ikasleei dagokienez:***

- Taldean ikasle guztientzako tokia izan behar dela uste dugu eta ikasle bakoitzarekin bere egoera pertsonalaren arabera jokatu da.
- Ikasleen egoera erreala hartuko dugu oinarriz, bakarka eta talde gisa hartuta, beren hezkuntza-esperientzia aberasteko eta eskolan arrakasta bermatuko duten oinarrizko gaitasunak bereganatzeko.
- Taldean edo klasean ikasleek kohesio soziala, tolerantzia eta elkarrizketa ahalbidetuko duten jokaera zibikoak landuko dituzte eta besteak diskriminatu eta zapaltzen dituzten egoerak baztertuko dituzte.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek taldean edo klasean toki bat izango dute. Institutuan dauden baliabideak ikasle horiei zuzenduko zaizkie bereziki.

- 1. zikloan, laguntza gelan eta apoioan: Talde txikiak sortzea (3 edo 4 ikasleez osatutakoak) hainbat zereginetan lagunduko dien pertsona baten laguntzarekin.

*Tutoretzari dagokionez, bai DBH eta bai Batxilergoan:*

- Ikasleen aurrerapenen bakarkako jarraipena egingo dugu, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen kasuan.
- Hizkuntzak eta arrazoi kulturalak direla bide diskriminaziozko egoerak ezartzea saihestuko da, hizkuntzaren erabilera eta bazterketa-egoerak sor ditzaketen antolamenduzko neurriak zainduz.
- DBHko lehenengo zikloaren hasieran ikasleei zuzendutako harrera-programak egingo dira eta familientzako jarduerak ere prestatuko dira. Ikasturte bakoitzaren hasieran beste programa motzago batzuk egingo dira.
- Batxilergoko bi mailetan ere harrera programak izango dira.
- Familiekin izan beharreko harremani lehentasuna emango zaie: gurasoek institutua ezagutuko dute eta institutuak haien eskaerak eta itxaropenak ezagutu behar ditu, hezkuntza-helburuak eta planteamenduak erabaki ahal izateko.
- “Irakaskuntzako eta ikaskuntzako kontratuak” ezartzen saiatuko gara.

*Irakasleen antolamenduari dagokionez:*

#### 1. ZIKLOAN

- 1go mailan, talde bakoitzean, astean behin, matematika eta ingeleseko ikasgaietan bikoizketa egingo da.
- Bikoizketa hauetan ikasle kopurua gutxi gorabehera erdira murriztuko da, eta arlo horietako irakasleak izango dira ikastalde osoaz nahiz talde erdibituaz arduratuko direnak.
- Bikoizketan ikasleak taldekatzeko irizpidea matematika eta ingeleseko irakasleek adostuko dute, ikasleek duten ingelese-maila irizpide nagusia izan daitekeelarik.

2. mailan, talde bakoitzean, astean behin, euskara eta gaztelera ikasgaietan bikoizketa egingo da, eta lehenengo mailarako aipatu den bezala jokatuko da.

#### 2. ZIKLOAN

- Institutuak dituen orduen arabera gela-bikoizketak antolatuko dira. Horrelakoak batik bat instrumentaltzat jo daitezkeen arloetan gauzatuko dira. Zatiketak egiten direnean sortzen diren taldeak izatea bultzatuko da.
- Zenbaitetan, baliabideak egonik, 1. zikloan antzerakoak antolatuko dira.

*Programazio didaktikoari dagokionez:*

- Ikasleen behar eta aukera desberdinei erantzuteko, gaitasun-mota guztiak landuko ditugu.



- Alderdi esanguratsu eta funtzionalei emango diegu garrantzia, ikasle guztiek DBHko helburuak lortzeko asmoz betiere. Horretarako, gutxienezko edukiak finkatuko ditugu.
- Ikasleen hurbileko esperientzia izango dugu abiapuntutzat, beren ingurua eta gauza zehatzekin hasiko gara abstraktuetera iritsi arte.
- Mintegiek oinarrizko gaitasunen garapena sustatuko duten jarduerak prestatuko dituzte.
- Estrategia metodologiko desberdinak erabiliko dira: lankidetzan oinarritutako ikaskuntza, proiektuen arabera, problemen ebazpena, lantegiak, ikaskuntza autonomoa ...

*Taldean antolamenduari dagokionez:*

- Ikasturterako ikasle taldeak antolatzean, talde heterogeneoak egingo ditugu aniztasuna errealitatetzat hartzeko. Taldeen artean diferentzia handiak ez dira egon behar
- 1. mailatik bigarrenera ez da aldaketarik egingo eta 2. mailako errepikatzaileak banatu egingo dira, taldeak konpentsatuak izateko.
- 2. ziklora pasatzean taldeak mantentzeko ahaleginak egingo dira, baina konpentsatuak ez badaude, berrantolatuko dira.
- 2. zikloan ere ahaleginak egingo dira irakasle kopurua minimoa izateko, baita maila bateko ikasgai berbera irakasle bakarra izateko.

*Batxilergoan:*

- Taldeak modalitateka antolatuko dira.
- Modalitate batean bi talde antolatzeko aukera badago taldeak konpentsatuak izaten saiatuko gara.
- Bikoizketa orduak erabiliko dira, ahal den neurrian, talde gehiago eta txikiagoak antolatzeko.
- Beharra sortzen denean, bikoizketa orduak, arlo batetik beste batera pasa daitezke.
- Bi modalitateko ikasleak batu behar direnean, ahaleginak egingo dira modalitateen antzekotasuna errespetatuz.

#### **2.6.4. INSTITUTUKO BIZIKIDETZA GARATZEKO NEURRIAK.**

**Oinarriak:**

Bizikidetzaren oinarria pertsona guztiei eta material eta instalazioei begirunea izatea da

Zentzu honetan, saiatuko gara ohitura osasuntsuak sustatzen, Institutuko instalazioak zainarazten, bereak balira bezala hartzen, ikaskide, irakasle eta gainerako pertsonak bere zeregin eremuetan errespetuz.

Gure institutuan ondorengo neurriak erabiliko ditugu ikastetxeko bizikidetzaren garapena sustatzeko:

- Ikastetxeko arauak elkarteko ordezkari desberdinen parte-hartzearekin prestatuko dira.

- ☒ Ikasle eta berauen familiei dagozkien arauak beraiekin landuko dira.
- ☒ Arauek jokaera egokiak adieraziko dituzte eta horiek betetzen ez badira jokaera oker horiek konpontzeko prozedurak jarriko dira martxan, hezkuntza-izaera ez duten zigorrek ahalik eta gehien saihestuz.
- ☒ Ikasgelan gatazkak konpontzeko modua eta komunikatzeko trebetasunak landuko dira.
- ☒ Behin eta berriro errepikatzen diren jokaera negatiboak aztertuko dira modu indibidualean, arazoetan inplikaturiko alderdi curricularrak, emozionalak, harremanei dagozkienak, ... diren aztertuz.
- ☒ Ikasle guztiek ikastetxeko bizikidetzarako arauak, betebeharrak eta eskubideei buruzko informazioa jasotzen dutela egiaztatzea.

### **2.6.5.- AUKERAKOTASUNA ETA HAUTAZKOTASUNA CURRICULUMEAN.**

Sarrera:

Institutua bai ikasleekiko tratamenduan eta bai aukerakotasunean beren aniztasuna sustatzen saiatuko da. Hau guztia gauzatzeko garaian, batez ere hainbat mailatan irakasle kopurua txikiago izatearen garrantziaz jabetuz, honako irizpide honek gidatuko du gure praktika:

Irakasgai eta ordu banaketan mintegi eta arloek DBHko irakasleen kopuru txikia izateak eta berauen egonkortasunak lehentasuna izango dute. Honen arabera, 3 eta 4. mailatan ematen den arloa berbera bada, irakaslea bi mailatan ere berbera izaten saiatuko da. Era berean, 4. mailan irakasgai bakoitzean irakasle bat baino gehiago ez egoten saiatuko da.

Irakasgai eta mailak banatzeko garaian, mintegi eta arloetan irizpide hau erabiltzen ez bada, DBHko mailak txandaka hartuko dira. Honelako kasuetan, DBHn bi urte pasa dutenek, hurrengoan bi urteetan Batxilergoan aritzeko lehentasuna izango lukete.

#### **2.6.5.1.- DBHn:**

DBHren izaera muinbakarra eta ikasle guztientzat curriculum berdina egiteko proposamena curriculumaren nolabaiteko aniztasun-mailarekin uztartzen da, behar eta interesak gero eta desberdinagoak baitira eta guztiei erantzun behar zaie. Helburu orokorrak berberak dira, baina horiek garatzeko egokia eta komenigarria izan daiteke ikasleek prozesu desberdinak jarraitzea. Dena dela, hautatzeko aukera hori ez da erabili behar ikasleak beren gaitasunen arabera aukeratzeko, zeren, bestela, aukerakoetan heterogeneotasuna galduko baita.

Institutua da aukerakotasun-eskaintza egiteko arduraduna eta ikasleak orientatu behar ditu aukerako ikasgaiak hautatzeko orduan eta, azkeneko mailan, gainera, arlo desberdinen artean aukeratzeko lagundu behar die. Funtzio bikoitz hori betetzean ondoko irizpideak jarraituko ditugu:

#### **Aukerakotasunaren alorraren eskaintza.**

- Eskainiko diren ikasgaietan ikasleen interes eta beharrei erantzuten saiatuko gara, beti ere irakasleen prestakuntza kontutan izanik.
- Ikasgai horietan curriculuma ikuspegi berrietatik lantzen saiatuko gara.
- Bigarren zikloan eskainiko diren ikasgaietan lanbideari eta har ditzaketen bide akademikoei buruzko erreferentziak kontuan izango dira.
- Ziklo bakoitzerako aukerako ikasgaiak eskainiko diren eremuak ondoko hauek izango dira:

ZIKLOAK	EREMUAK
Lehen zikloa	<input checked="" type="checkbox"/> Adierazpena eta komunikazioa <input checked="" type="checkbox"/> Zientifiko-teknologikoa <input checked="" type="checkbox"/> Bestelakoak: argazkigintza eta sukaldaritza
Bigarren zikloa	<input checked="" type="checkbox"/> Adierazpena eta komunikazioa <input checked="" type="checkbox"/> Ezagutza soziokulturala <input checked="" type="checkbox"/> Zientifiko-teknologikoa <input checked="" type="checkbox"/> Bizimodu heldura igarotzea

- 1. zikloan, nolabaiteko oreka gordeko da aukerako ikasgaien eskaintzan, ikasleei eskainitako proposamenen unen bakoitzean, gutxienez, hiru eremuei edo eremu gehiagori buruzko ikasgaiak agertuko direla bermatuz.
- 2. zikloan, mintegi bakoitzak berari dagokion aukerako bat eskeintzeko ahalbidea izango du. Kasu berezietan, bat baino gehiago eskeiniko dituzte. Eskeintza horren zabala izanez, ikasleen hautaketaren arabera gauzatuko da.
- DBHko 2. Zikloari eta Batxilergoari dagokionez, mintegi bakoitzak egiten duen eskaintza gutxienez hiru ikasturtetarako izango da. Guzti hau 2002-03 ikasturtetik aurrera izango da, eta ikastaldeak 15 lagunetik ez pasatzen saiatuko da.

Derrigorrez eskaini behar diren aukerako ikasgaiak dagokienez, ondoko irizpideak jarraituko ditugu:

**a) Atzerriko Bigarren Hizkuntza**

- ◆ Ikasgai hau aukeratuko duten ikasleek lehenengo ziklo osoan aukera hori mantendu behar dute.
- Ikasgai honetan lau maila eskainiko dira eta progresio logikoa izango dute hizkuntz gaitasunak eskuratzeko orduan. Lau maila hauek:
  - a) Ziklokoan lehenengo bi mailak eskainiko dira eta ziklo horretarako edozein mailako ikasleek parte ahal izango dute maila horietan.
  - b) 2. Zikloan kurtsoka antolatuko da, ikasleen ezagupen mailaren arabera, Otik ere abia daitekeelarik.
- Kontutan izan da lan arlo batzuetan atzeritar hizkuntzak menperatzea derrigorrezkoa dela eta beste askotan, bere gertutasuna dela eta, frantsesa oso baloratua izaten dela, nolabaiteko lehentasuna emango diogu azken honi. Beraz kasu honetan taldea osatzeko 5 ikasle nahikoak izango dira.

**b) Bizimodu heldura igarotzeko ikasgaiak**

- Ikastetxe honetan bizimodu heldura igarotzeko ondoko ikasgaiak eskainiko dira:



- Tutore bakoitzak, ikastetxeko orientatzailearen laguntzarekin, ikasle bakoitzari bere laguntza eskainiko dio aukerako ikasgaiak behin-betiko zehazteko.

### **Ikasgai jakin bat aukeratu duten ikasle-kopuruak ezarritako muga gainditzen badu, taldeak osatzeko ondorengo irizpideak erabiliko dira:**

- Ikasleak ordu arte ikasitako ikasgaien eremuak, nolabaiteko oreka bermatzeko asmoz.
- Maila bat baino gehiago duten ikasgaietan, jarraipena eskaintzea.
- Ikasleek adierazitako lehentasunezko erlazioan ikasgai horrek duen tokia.

#### **2.6.5.2.- Batxilergoan. Hautazko ikasgaien eskaintzerako irizpideak:**

- Aurrematrikulan, mintegi guztiek aukera dute beraiei dagozkien hautazko gai guztiak eskaintzeko.
- Matrikulak gauzatzeko garaian, aldiz, taldea osatzeko ahalbidea, hau da, gutxienez, 5 ikasle izatea, duten gaiak bakarrik eskainiko dira.
- Modalitatezko gaien kasuan, matrikula orrietan aurrematrikulaz gain irizpide hauek erabiliko ditugu:
  - **Modalitateko irakasgaiak aukerakoek baino lehentasun gehiago izango dute.**
  - **Unibertsitate aukera guztiak bermatuko ditugu.**
  - **Ahaleginak egingo dira ikasleei ahalik eta aukerakotasun handiena eskaini ahal izateko.**
  - **Ikasleek nahi izanez gero, bai Unibertsitate aukera bat baino gehiago eta bai Goi-Mailako Lanbide Heziketako Ziklo desberdinak prestatzea bermatuko dugu.**
  - **Modalitate aldaketak ahalbidetzeko asmoz, modalitate desberdinetako Matematika irakasgaiak berdintzat joko ditugu.**

#### **2.6.6.- HEZKUNTZA-SUSTAPENA.**

Hezkuntza-prozesuko une jakin batean, aurreikusitako helburuak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleei erantzuteko hezkuntza-sustapenari buruzko erabakiak Institutuaren Curriculum Proiektu honetan ebaluazioari dagokion atalean jasota daude. (ikus 7.9.a.)

#### **2.6.7.- ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRI BEREZIAK**

##### **a) Curriculum desberdinak eratzea**

Curriculum desberdinak eratzeko kontzeptua

- ◆ Curriculum desberdinak eratzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiteko modu alternatiboa da eta, irakasleen iritziz, etapako gaitasun orokorrak programa berezien laguntzarekin baino lortuko ez dituzten ikasleei zuzenduta dago.

- Curriculum Anitzeko Programa egiten ari den gela, ahal den neurrian, 4. mailako taldeen ondoan kokatuta izango da, eta eskolaz kanpoko ekintzak eta ekintza osagarrietan talde horiekin batera burutuko ditu.

## Ikasleak

Gure ikastetxeko ikasleek, curriculum desberdinak eratzeko programetan parte hartzeko ondorengo ezaugarriak izan behar dituzte:

- ◆ 16 urtetik gorakoak eta 18tik beherakoak.
- ◆ Aurretik ebaluazio psikopedagogikoa izan behar dute.
- ◆ Irakasle-taldeak Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortuko duela espero du.
  - Graduatu lor dezaketen ikasleekin taldea osatzen ez denean, titulua lortzeko itxaropenik gabe baina DBH etapako helburuak lortzeko ikas prozesuan aurrerapen nabarmena egiteko aukera duten ikasleak sar daitezke.
  - Graduatu lor dezaketen ikasleak eta urtebeteko programa egin behar dutenak lehentasuna izango dute.
  - Gero, bi urteko programa egin behar duten eta aurrerapen nabarmenak egiteko aukera dutenak.
  - 2 urteko programa egingo duten ikasleek, DBHko 1. zikloa gaindituta izango dute edo gehienez 2 arlo gainditzeko. Era berean, ikasleak CNE badu, ez gaindituak bezala hartuko dira CNEko arloak. Urtebeteko programa egingo duten ikasleek, aurreko ez gain, 3. maila kurtsatuta izango dute.
  - Programa egingo duten ikasleek, ikasturteren bat errepikatuta izango dute, hau da, institutuak aparteko neurri hori beraiekin erabilia izango du.
  - Atzerapen mentala dutelako CNE daukaten ikasleentzat, ez dira izango horrelako programak.
  - Programa egingo dutenak, gutxienez aurreko ikasturtean Orixen matrikulatuta zeuden ikasleak izango dira.
  - Ikasle hauek ikasteko nolabaiteko jarrera positiboa izango dute, ez dute portaera arazo larririk izango eta aurreko ikasturtean justifikatu gabeko hutsegite kopuru nabarmenik ez dute edukiko.
  - Saiatuko da ikasle kopurua txikia izaten (10 ikasle gehienez)

## Ebaluazio psikopedagogikoa

- ◆ Ikastetxeko orientatzaileak, tutoreak eta irakasleek, ikasturtearen hirugarren hiru hilekoan, curriculum desberdinak eratzeko programetan parte hartzeko aukera duten ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa egingo dute eta ebaluazio horretan, gutxienez, honako alderdi hauek bilduko dira:
  - ◆ Ikaslearen heldutasuna.
  - ◆ Ikasteko duen motibazioa.
  - ◆ Arrakasta izateko dituen aukerak.
  - ◆ Ikaskuntzarako zailtasunak.
  - ◆ Eskolako prozesuan eragina izan dezaketen baldintza pertsonalak, familiarrak eta sozialak.
  - ◆ Eskola testuingurura egokitzea.
    - Ebaluazio psikopedagogikoa ikastetxeko orientatzaileek, tutoreak eta ebaluazio batzordeak egingo dute.
    - Etapako gaitasunekiko duen egoera

- Arlo bakoitzean oinarrizko edukiak eskuratzeko duen egoera erreal
- Ikaslearekin lan egiteko moduari buruzko erreferentziak: estrategiak, trebetasunak, ikasteko estiloak...)
- ◆ Ebaluazio honen emaitza proposamen arrazoitua izango da eta ikasleak curriculum desberdinak eratzeko programa bat jarraitzea komeni den ala ez zehaztuko da eta baita jarraitu behar duen programaren ezaugarriak ere.
  - Ebaluazio psikopedagogikoaren datu esanguratsuenak, Orixeko Curriculum Anitzeko Programan sartzeko Ebaluazio Psikopedagogikoaren Txostenan jasoko dira.
- ◆ Ikasleak eta aitak, amak edo ordezkari legalak alde zuzenetik ezagutu behar dute curriculum desberdinak eratzeko talde batean eskolatzeko proposamena.
  - Irakasleak saiaturiko dira Programan parte hartzeko diren ikasleak eta gurasoak animatzen eta bultzatzen, beti ere informazio errealista emanaz. Hala ere ikasleak edota bere gurasoek kontrako jarrera nabaria baldin badute, ez da ikaslea programan sartzera behartuko.

#### Curriculum desberdinak eratzeko programak

- ◆ Curriculum desberdinak eratzeko oinarrizko programa Curriculum Proiektu honetan **ERANSKIN** moduan agertzen da eta programa indibidualizatuak egiteko erreferentzia gisa erabiliko da.

#### b) Eskolaratzeko programa osagarriak

Salbuespenez, behin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ohizko arauak aurreikusten dituzten neurriak bukatu ondoren, eta bakarka, ikaslea Eskolatzeko Programa osagarrian sartzeko proposatu daiteke. Institutuan proposamen hau egin aurretik:

- Institutuak berak dituen baliabideak erabiliko ditugu ikasleak dituen beharrei erantzuna emateko.
- Bakarkako programak ezarriko ditugu eta beraren jarraipen pertsonala egingo dugu.

Eskolaratzeko Programa Osagarri bat proposatzen denean, Institutuak:

- ◆ Ikasleak Programa honetan parte hartzearen zergatiak eta egoera aipatzen txosten bat idatziko du proposamenaren egokitasuna arrazoituz.
- ◆ Bakarkako proposamen curricularra proposatuko du ohizko institutuan eta Programa osagarrian garatzeko, helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, Programa osagarrian emateko denbora eta aurreikusten den proposamenaren luzapena.
- ◆ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeko eta Programa Osagarrien arteko koordinazio plana diseinatuko du.
- ◆ Erreferentzizko pertsona bat izendatuko du institutuan, ikaslearen jarraipena egiteko.
- ◆ Eskolaratzeko Programa osagarrien arduradunekin batera gurasoei eman beharreko informazioa zehaztuko da.
- ◆ Hiru hilez behin gutxienez, ikastetxeko Ikasketa Buruak programa hauek jarraitzen dituzten ikasleen bakarkako jarraipena egiteko deia egingo du.
  - Hilero ikaslearen egoeraren jarraipena egiteko konpromezua hartuko du.

- Saiatuko da ikasleak astean gutxienez arratsalde bat Institutuan bere taldearekin izan dezan bere itzulera errazteko asmoz.
- Ikaslea institutuan murgiltzea erraztuko du, bai talde arrunt batean bai aniztasun curricular programa batean, bere ikasketa prozesuari egindako jarraipenak, eskolaratzeko programa osagarrian, horrela gomendatzen duenean.
- Orixen, programa osagarriaren jarraipena Ikasketa Buruak, edo berak izendatutako pertsonak, egingo du.

## **2.6.8.- HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK (HPB) DITUZTEN IKASLEENTZAKO NEURRI BEREZIAK**

Ikastetxe honetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ditugu eta ikasle horiek laguntza eta arreta bereziak behar dituzte.

### **a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin jokatzeko prozesua**

#### 1. Behar horiek antzematea eta ebaluatzea.

Orientabideaz arduratzen diren irakasleek, pedagogia terapeutikoko irakasleek, tutore eta arlo irakasleekin batera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen egoera aztertuko dute eta, horretarako, asteroko bilera antolatuko da ( CNE bilera), bertan ikasle horiei buruz dituzten txostenak<sup>1</sup> eta ondorengo alderdiak aztertuko dituzte:

- Ordu arteko eskolatzearen historia.
- Gaitasun-mailaren zehaztapenean arlo curricularrak (ordurarteko informeak, aurreko irakasleekin izandako bilerak, haserako frogak, ...)
- Arlo bakoitzeko beharren definizioa.
- Ikasle horien gaitasun maila
- Harremani buruzko alderdiak (parekoekin, irakasleekin...).
- Ikaskuntzaren aurreko jarrera.
- Hezkuntza-premia berezien azterketa.

Beharrezkoa izanez gero, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazioa egiteko edo ikasle horiei eman beharreko erantzunarekin erlazionatutako edozein alderdirako, inguruko Berritzegunearen Talde Multiprofesionalaren laguntza izango da.

Hasierako ebaluaziorako zereginak egiterakoan, aurretik horren berririk izan ez arren, ikasle batek hezkuntza-premia bereziak dituela ikusten bada, premia hori antzematen duen irakasleak tutoreari adieraziko dio, horrek CNE bilerara eramango du gaia eta irakasle talde horrek, ikaslearen premien aurre azterketa bideratuko du eta, hala badagokio, eskola-arreta berezia izan dezan eman behar diren urratsak emango ditu.

#### 2. Erantzuteko aukerak

<sup>1</sup> Ekainean, oro har etorriko diren ikasleez; 2. Kurtsoaren hasieran, h.p.b.ak dituzten ikasleez.



Erantzuteko modua ikaslearen hezkuntza-premien arabera egokituko da, integratzaileak izaten saiatuz.

Irizpide orokorrak:

- Ahal denean, hezkuntza-erantzuna ikasgela arruntean egingo da, behar bakoitzaren arabera egokitutako aldaketekin. CNE koordinazio bileretan aztertuko da zein izan daitekeen erantzunik egokiena: gela arruntean, laguntzako gelan, taldeka, banaka, ....
- Hezkuntza-erantzuna ikasgela arruntean egiten denean, arloko irakasleak zikloko beste irakasle baten laguntza izango du.
- Ikasleen atzerapena oso nabarmena ez bada, laguntza zikloko edozein irakasle eskainiko du ( bere ordutegiaren arabera). Atzerapena nabariagoa balitz, PTEen esku geldituko da. Lehenengo kasuan, laguntza saio batekoa izango da astero eta bigarrengoan gutxienez bi ordukoa eta laguntza gelan edo gela arruntean gauzatuko da.
- Urtero, beharren eta giza-baliabideen arabera, lehentasunak definituko dira. Ondorioz, h.p.b.ak dituzten ikasle bakoitzari eskainiko zaion denbora zehaztuko da.

*Irizpide bereziak hezkuntza-premien arabera:*

- Ez-ohiko kasuetan eta beharren arabera, ikasleek 16 urte baino gutxiago izanik ere, ZIG gelaren baliabidea erabiliko da. Helburu hau ZIG gelako irakasleen koordinazioaren bidez gauzatuko dugu.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten eta ordu batzuez laguntza-gelan eskolatuta dauden ikasleen tutorea:

- Talde arruntaren tutorea izango da beti, gurasoekiko harremanetan PT edota orientatzailearekin batera arituko bada ere.

### 3. Pedagogia Terapeutikoko irakasleen laguntza

Pedagogia Terapeutikoko irakasleen laguntza jaso ahal izango duten ikasleak, 12/18 urte bitarteko ikasleak izango dira, beti ere beraien erreferentea, gehienez, D.B.H.ko 1. zikloa dutenak.

Baliabide hau edozein kasutan mugatua denez, ondoko irizpideen arabera erabiliko da. Lehentasun ordena:

- 1.a C.N.E orokorra duten ikasleak.
- 2.a arloko C.N.Ea duten ikasleak: Salbuespena zera izango da, ikasleak etorkinak izanik hauen arazoa nagusia hizkuntza besterik ez denean. Horrelakotan, irizpidea zikloko irakasleen ardurapean uztea izango da.
- 3.a arlo instrumentaletan indartze neurriak duten ikasleak: Hauen atzerapena gutxienez urtebetekoa izan behar du, eta beti ere, gehienez D.B.Hko lehengo zikloa erreferentea izanik.

#### **b) Curriculumean sarbide egokitzapenak eta curriculumaren egokitzapenak**

*Curriculumean txertatzeko egokitzapenak.*

- ◆ Institutuak proposatutakoak dira, behin-behineko edo behin betiko ezintasunen ondorioz sortutako eta sisteman eta hezkuntza-jardueran parte hartzeko baliabideak modu arruntean erabiltzea eragozten dieten hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen esku ikaskuntza lortzeko neurriak eta beharrezko dituzten laguntza teknikoak edo pertsonalak jartzeko.

*Curriculumaren egokitzapen indibidualizatua eta esanguratsua*

- ◆ Curriculumaren aginduzko elementuetan aldaketa garrantzitsuak egiteko aparteko neurria da, arlo bateko edo batzuetako, zikloko edo etapako helburuen zati handi bat egokituz edo kenduz.
- ◆ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan curriculumaren egokitzapen esanguratsutzat ondokoak hartuko dira: ikaslea eskolatuta dagoen etapa ez den beste etaparen batean kokatutako erreferente curricularra dutenak.

Curriculumaren egokitzapen indibiduala eta esanguratsua behar denean edo txertatzeko egokitzapenak egin behar direnean, orientatzaileak eta pedagogia terapeutikoko irakasleek lanketa-prozesu osoa koordinatuko dute eta bertan honako hauek ere parte hartuko dute:

- Ikaslearekin lan egiten duten irakasleek.
- Tutoreak
- Ordu arte prozesuan inplikaturako pertsona guztiek.

Ikaslearen atzerapen oso nabarmena ez bada, egokitzapen ez-esanguratsua edo gelakoa egingo diogu, D.B.Hko minimoak baino ez landuz, eta beste erritmo batez.

Curriculumaren egokitzapenetan ondoko elementuak izango dira kontuan:

	<b>CEI</b> Esangu ratsua	<b>Sarb.</b> egokitza penak
Ikaslearen eta inplikaturako irakasleen datuak, ikaslea zein mailatan dagoen zehaztuz.	◆	◆
Ziklo batean edo etapa osoan asko aldatzen diren esperientzia-eremuak edo arloak eta horien erreferentzia curricularra.	◆	
Gaur egungo gaitasun-maila, egokitu behar diren arlo curricularrei dagokienez.	◆	◆
Hezkuntza-premia berezien definizioa.	◆	◆
Esperientzia-eremuak edo egokituko diren arloak eta zikloan zehar garatu beharreko helburuak eta edukiak zehaztuko dituen curriculum egokitua.	◆	
Ebaluazioa egiteko erabiliko diren une, modu eta irizpideak nahiz horien jarraipena egiteko plangintza.	◆	
Ikaslearen erantzuna errazteko antolamenduari buruzko alderdiak.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Arlo bakoitzean eta laguntza-zerbitzuetan lan egiteko moduaren definizioa.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Inplikaturako profesionalen koordinazio-prozesua.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Familiarekin harremana garatzeko modua.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

Ikasgelako programazioan CNEn planifikatutako alderdiak garatzeko neurriak.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
---	-------------------------------------	-------------------------------------

Curriculumaren egokitzapen indibidualizatu eta esanguratsuak prestatzeko ondokoak erabiliko dira:

- 1998ko uztailaren 24ko AGINDUAREN eranskinak, curriculumaren egokitzapenei buruzkoak (akatsen zuzenketa 1998ko abenduaren 22ko EHAAAn).
- Aipatutako eranskinak eta Orientabide Sailak landutako beste atal batzuk.
- Orixek prestatutako behaketa taulak, eta arlo bakoitzeko minimoak.

### **c) Ikastetxetik kanpoko profesionalen eta profesional ibiltarien esku-hartzea**

Ikasle baten beharrei erantzuteko institutuan profesional ibiltariren batek parte hartzen badu (logopeda, itsuen baliabide-etxeko irakasleak, laguntzaileak, TMP...), profesional horien koordinazioa orientatzaileak eta pedagogia terapeutikoko irakasleek egingo du eta errealizazio praktikoa beste hauek egingo dute:

- ◆ Ikastetxeko zuzendariak (edo horren ordezkariak).
  - Ikastetxeko orientatzaileak.
  - Pedagogia terapeutikoko irakasleak.
  - Tutoreak (ikasle bakarrari kasu egiten zaionean)

### **d) Inguru arruntean egindako aldaketak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko**

Gure institutuan inguru arrunta egokituko dugu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen parte-hartzea errazteko. Beharrean arabera, momentuan momentuko gure eskuan dauden aldaketak egingo ditugu eta aurrekontu handiagoak eskatzen dutenetan delegaziora bideratuko da eskaera,bi kasu hauetan bezala:

- Espazioaren egokitzapenak (maldak, eskubandak ...).
- Bainu eta komun egokituak.
- Igogailua

### **e) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko prozesuan gainerako ikasleen, irakasleen nahiz irakasle ez diren langileen parte-hartzea.**

Ikasle guztiengan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak onartzeko eta integratzeko ezagutza egokia eta jokaera positiboak sustatzeko asmoz, sentsibilizatzeko ondorengo estrategiak garatuko ditugu:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekiko trataeraren garapena Tutoretza Egitasmoan txertatzea.
- Zehar lerroak garatzen ditugunean, gai honi behar bezalako garrantzia emango zaio.

### **f) Zereginen Ikaskuntzarako Gela (ZIG) eta Lanbide Hastapeneko Manipulazio eta Moldiztegi Azkarreko Modulua**

- Gure institutuak Zereginen Ikaskuntzarako Gela du eta adimen-atzerapena duten eta 16 urtetik gora dituzten ikasleei erantzuteko pentsatuta dago; ikasle horiek:
  - Ikastetxe honetatik datoz gehienak eta DBHn eskolatu dira.
  - Baita ere, herriko edo inguruko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe desberdinetatik datoz.
- Gure institutuak, adimenari dagokionez mugakoak diren ikasleentzako modulu bat eskaintzen du, hau da, Lanbide Hastapeneko Manipulazio eta Moldiztegi Azkarreko Modulua, hain zuzen. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza maila bukatzea lortu ez duen ikaslegoari zuzendua dago. Ziklo honetan matrikulatuta ahal izateko, ikaslearen Orientazio Aholkuan azaltzea derrigorrezkoa izango da. Kasu honetan, kanpoko ikasleei irekita egongo da matrikula.
- Modulu honek, Programa Osagarriak ahalbidetzeko ere balioko du. Aukera hau institutu honetako ikasleei soilik zuzenduta dago.

**Institutuan, zereginen ikaskuntzarako ikasgelako ikasleekin lotuta, ondoko helburuak planteatzen ditugu:**

- Ikastetxe osoa ZIGeko ikasleentzat ikaskuntza-testuingurua izatea nahi dugu.
- Ikasle guztiek *“eskolako bizitza”* osatzen duten eta eduki curricular berezirik ez duten gizarte-elkarreraginezko jardueretan parte hartzeko ahalegina egingo dugu.
- Ikasgela horretako ikasleek gainerako ikasleek bezala erabiliko dituzte ikastetxeko gelak, jangela eta jolastokia, eta sartzeko eta irteteko ordutegi berberak izango dituzte.
- Irakasleen aldetik, honako helburu hauek ditugu:
  - ikasleen berezitasunak onartzea eta errespetatzea eta dituzten mugei aurre egiten laguntzea, eguneroko curriculumaren praktikan, lan ohiturak, ikasketak, diziplina, trebetasunak eta ahaleginaren bidez etorkizunean bizi behar dela demostratuz.
  - Ikasleen interesetan, arazoetan eta dituzten zalantzetan beraiei laguntzeko gaudela sentiaraztea. Hau guztia, ikasleei jarraipen pertsonala eginez, familiarekin harremanak mantenduz eta gizarte laguntzailearekin batera lan eginez gauzatzen da.
  - Ikasleek beren lan-etorkizuna ezagutu dezaten, ideia horrekin, bai tailerrak eta bai enpresetan lan-praktikak antolatzea.
- Horrez gain, ikasgela egonkorreko ikasleek honako hauek ere egingo dituzte:
  - Kiroldetako jarduerak
  - Irteera bereziak
  - Eskolako jaialdietako jarduerak
  - Aisialdiko jarduerak
  - Jolastokien eta beste gela komunen erabilera
  - Lantegien erabilera

Ikasle hauen curriculum berezia modu egokian garatzeko, institutuak honako hauek bultzatuko ditu:

- Ikasgelak toki berezia izatea, ikastetxeko gainerako gelekina batera integratuta.
- Ikasgela handia izatea, lanerako inguru desberdinak bereiziz.

- Ikasgela ikastetxeko zerbitzu orokorretatik hurbil ezartzea (komunak, jangela, informatika-gela ...), horiek erabili ahal izateko.
- Inguru egokitzea, ikasleen beharretara egokituz.
- Lantegia Zereginen Ikaskuntzarako Gelaren eremuan kokatzea.

Funtzionamendu didaktikoa errazteko eta ikasgela egonkorreko metodologia berezia aplikatzeko honako hauek ahalbidetuko dira:

- Institutuaren barneko nahiz kanpoko gelen erabilera.
- Ikasgelako irakasleak elkarren artean koordinatzeko denbora.
- Ikasgelako irakasleak eta ikastetxeko beste profesional batzuk koordinatzeko denbora.
- Orientatzaile eta Berritzeguneko teknikarien koordinazioa eta jarraipena.
- Ikasgela honetako irakasle-taldeko pertsona, taldearen tutoretza bere gain hartuko duena eta lantokietako praktiken tutoretza egingo duena.

Ikasle horiek ikastetxe honetako talde arruntetan parte hartzeko irizpideak honako hauek dira:

- Bereganatzen diren ikaskuntzen esanguratsutasuna eta erabilgarritasuna integratutako ikaslearen garapen pertsonalerako egokiak direnean, ikasleak arlo horietan integratuko dira, ikasle horien gaitasunak eta motibazioak kontuan izanik.
- Ikaskuntza-maila eta gaitasunen garapen homogeneoa duten ikasleak integratuko dira.
- Nagusiki, ikasleak talde batean integratzeko, aurretik talde horretako ikasleak ezagutu behar dituzte.
- Ikasgelaren barnean guztion ikaskuntza eta ikasle bakoitzarena bateratuko dituen esku-hartzea sustatuko da eta, horretarako, lan-dinamika motibatzailea erabiliko da.
- Ikasleen integrazioa ikasle bakoitzaren ezaugarrien eta lehenago adierazitako irizpideen arabera egingo da, eta ondoko arloetan curriculum egokituko da:
  - Gorputz Hezkuntza.
  - Plastika eta Ikus Hezkuntza.
  - Musika.
  - Teknologia.
- ZIGeko ikasleren bat gela arruntean integratu aurretik, gurasoei proposatuko diegu beraien iritzia jakin ahal izateko eta aldekoa bada, irakasleok bultzatuko dugu integrazio hori.
- ZIGeko ikasleak talde arruntean integratu baino lehen, DBHko irakasleen iritzia, ahalbideak eta gelako errealitatea kontuan hartuko ditugu.
- Talde arruntetan integraturik dauden ikasleekin, ZIGeko irakasleek jardungo dute, beti ere gelako irakasleek horrela eskatzen badute

## 2.7.- IKASLEEN EBALUAZIOA

### 2.7.1.- KONTZEPTUA, HELBURUAK, IZAERA ETA EBALUATU BEHARREKO ALDERDIAK

Ikasleen ebaluazioa ikaskuntzari buruz egiten den **hausnarketa-prozesu** sistematikoa da. Hau da:

- ❖ planteatutako helburuen arabera ebaluazio-irizpideak zehazten ditugu;
- ❖ ikaskuntza-prozesuari eta horren emaitzei buruzko informazioa biltzen dugu;
- ❖ honako hauei buruzko iritzia emateko eta erabakiak hartzeko:
  - ikasleen ikaskuntzen balorazioa,
  - hezkuntzako esku-hartzearen plangintza,
  - ikasleen beharretara egokitzea,
  - indartzeko neurriak eta maila igarotzeko prozesuak.
- ◆ Ikasleen **ebaluazioa etengabea** izango da eta jarduera, berriz, **sistematikoa** eta **iraunkorra, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan integratuta** egongo dena:
  - Ebaluaziorako jarduera desberdinak egingo dira sekuentzia didaktikoetan.
  - Ikasleei beren prozesuaren berri emango zaie modu desberdinetan ebaluazio-garaian zehar.
- ◆ Ikasleen ebaluazioa **integratzailea** izango da, arlo eta ikasgai guztietan etaparako ezarritako gaitasun orokorrak kontuan izanik eta, beraz::

- Arlo bakoitzeko ebaluazio-irizpideetan gaitasun orokor horiek kontuan izango dira.
- Ebaluazio-bilkuretan erreferentzia orokor hori gogoratuko da.

- ◆ Ikasleen ebaluazioa **indibidualizatu** izango da eta ikasle bakoitzarentzat prestakuntza-funtzioa izango du; beraz:
  - Ikasleei beren ikaskuntza-prozesuari buruzko orientabideak emango zaizkie, hobetu behar dituzten alderdiak adieraziz.
  - Ikasleei beren ikaskuntzaren emaitzak hobetzeko moduari buruzko informazioa emango zaie.
  - Sekuentzia didaktiko guztietan ikasleak ikasten ari direnaz kontzientzia hartzeko eta beren ikaskuntza-prozesuaz ohartzeko denbora eskaintzen saiatuko da.

**Hezkuntza-prozesuaren etengabeko hobekuntza lortu nahi duen ebaluazioak irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren alderdi guztiak sakondu behar ditu eta, beraz, ikastetxe honetan ebaluatu nahi duguna honako hau da:**

- Ikasleen gaitasunen garapen-maila, etapako eta arloetako helburu gisa proposatutakoena.
- Ikasleentzat proposatutako prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko edukiak bereganatzeko duten maila.
- Ikasleen garapen pertsonala.
- Norberaren orientabide egokian, eskolakoan eta lanekoan eragiten duten alderdiak.
- Ikasle baten ikaskuntza-prozesua hobetzeko aplikatutako neurrien baliagarritasuna.
- Proposatutako jardueren baliozkotasuna eta eraginkortasuna.
- Gelako giroa, gelako elkarreraginak, taldearen egoera.

Institutuaren Curriculum Proiektu honetan ezarritakoetan oinarrituta, sekuentzia didaktiko bakoitzean zer ebaluatu behar dugun jakiteko jarraibideak izango dituzten ebaluazio-irizpideak landuko ditugu, oinarritzkoa baita irakasleentzat nahiz ikasleentzat, beren lana antolatzeko. Ebaluazio-irizpide horiek definitzerakoan honako hauek izango ditugu kontuan:

- ◆ **Irakasleok sekuentzia didaktikoarekin edo ebaluazio-garaiarekin hasi baino lehen finkatuko ditugu ebaluazio-irizpideak eta ikasleei irizpide horien berri emango diegu, gutxienez**
  - ◆ **Ikasturtearen hasieran.**
    - **Ebaluazio-garaiaren hasieran.**
- Ebaluazio-irizpideak ikasleek ulertzeko moduan landuko dira
- Jarrerazko edukiak ebaluatzerakoan ikaslearen izaera ez ebaluatzen saiatuko gara.

## 2.7.2.- EBALUAZIOAREN UNEAK

### 2.7.2.1.- DBHn

Ebaluazioa prozesu etengabea da eta hezkuntza-prozesuarekin batera garatzen da; ikastetxe honetan honela egituratuko dugu:

#### a) Hasierako ebaluazioa

- ◆ DBHko ziklo bakoitzaren hasieran irakasle-taldeak hasierako ebaluazioa egingo du, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren abiapuntua zehaztu ahal izateko. Hori lortzeko Lehen Hezkuntzako Institutuak edo lehen zikloko irakasle-taldeak bidalitako Ebaluazio Indibidualizaturako Txostena kontuan izango da.
- ☒ Txostenaz gain tutoreak aurreko tutorearekin elkarrizketa izango du.
- ☒ Hasierako ebaluazioaren zentzua ikaskuntza berri bat hasi aurretik ikasleek dituzten ezagutzak, maila eta trebetasunak kokatzea da.
- ☒ *1. zikloaren ekarpena: etorkinak kurtsoa hasi ondoren eskolatzen direnean, beraien hasierako ebaluazioa ere arreta handiz gauzatuko da.*

## **b) Etengabeko edo prozesuko ebaluazioa**

Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren garapenean prozesuak aldatzea, egokitzea eta hobetzea ahalbidetuko duen jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egingo dugu.

Ikasleen ikaskuntzen etengabeko ebaluazioa honako hauek kontuan hartuz egingo da:

- ☒ Arloetako ebaluazio-irizpideak.
- ☒ Etapako eta zikloko helburu orokorretan adierazitako gaitasunen garapena.
- ☒ Ikasle bakoitzaren baldintza bereziak, ondorengo hauekin lotutako alderdiak azpimarratuz:
  - Taldean integratzea.
  - Irakasleekiko harremanak.
  - Ikasteko eta lanerako ohiturak
  - Lan-teknikak erabiltzeko trebetasunak.
  - Arlo bakoitzeko prozedurak erabiltzeko era.
- ☒ Hezkuntza sustatzeko beharrezko neurriak.
- ☒ Ikasleek beren ikaskuntza erregulatzeko dagoen aukera.

Irakasleek planifikatutako irakaskuntza-prozesuaren aldagaiei dagokienez, besteak beste, ondorengo alderdiak ebaluatuko dira:

- ☒ Programazio orokorra talde bakoitzeko ikasleen egoeraren eta beharren arabera egokitzea.
- ☒ Gelako giroa (ikasleen arteko harremanak eta elkarreraginak).
- ☒ Proposamen didaktikoen eraginkortasuna eta egokitasuna.
- ☒ Ikasleen inplikazio eta motibazio handiagoa eskatzen duten jarduerak.
- ☒ Ikaskuntzaren progresioa.
- ☒ Taldearen dinamikarekin lotutako neurri bereziak.

Etengabeko ebaluaziorako prozesu hauen garapenerako:

- ☒ Programatutako sekuentzia didaktiko bakoitzean ebaluaziorako jarduera bereziak erabiliko ditugu, goian adierazitako informazioa jasotzeko.
- ☒ Institutuan etengabeko ebaluazio hori erraztuko duten tresnak izango ditugu.

## **c) Azken ebaluazioa**



**Azken ebaluazioak ikasleen ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzeko balio du eta baita ondorengo prestakuntza-sekuentzia planifikatzeko eta egokitzeke ere.**

- ☒ Ebaluazio-garai bakoitza amaitzean jarraitutako prozesua eta ikasleen egoera baloratuko ditugu eta horretarako honako alderdi hauek izango ditugu kontuan:
  - Jarduera-programa taldeko ikasleen aurrerapenaren arabera egokituko dugu.
  - Beharrezkotzat jotzen ditugun hezkuntza sustatzeko neurriak hartuko ditugu.
  - Taldearen dinamikarekin lotutako beharrezko neurriak hartuko ditugu.
- ☒ Maila bakoitza amaitzean ikaskuntzaren emaitzak egiaztatuko ditugu eta ikasle bakoitzaren gaitasunak eta beharrak zein diren zehaztuko dugu.
  - ◆ Lehenengo zikloaren, hirugarren mailaren eta etaparen amaieran jarraitutako prozesuaren eta lortutako emaitzen balorazio globala egingo da eta balorazio hori egiteko oinarritzko erreferentzia arlo bakoitzeko ebaluazio-irizpideak eta etapako globalak izango dira. Ebaluazio horretan oinarrituta, hurrengo ziklo edo mailara igarotzeko, titulua emateko edo ziklo edo maila berean beste urte bat geratzeko erabakia hartuko dugu, erabaki hori etapa osoan behin bakarrik har daitekeela ohartuz, araudian adierazitako salbuespenetan izan ezik.

### **2.7.2.2 BATXILERGOAN**

#### **a) Hasierako ebaluazioa**

- ◆ Ebaluazio prozesua, hasierako ebaluazio batekin hasiko da; irakasleek, derrigorrez, ebaluazio horren emaitza hartu beharko dute abiapuntu gisa curriculumak ikasleen premiei egokitzeko.
- ☒ Beste aldetik, ikasturtearen hasieran, tutorea ikasketa buruarekin eta orientatzailearekin bilduko da, ikasle bakoitzaz dauden informazioak trukatzeko. Atentzio berezia eskatzen duten ikasleei, jarraipen zuzena egingo zaie. Horretarako, hilean behin elkartzeko dira berriro tutorea, ikasketa burua eta orientatzailea.

#### **b) Etengabeko edo prozesuko ebaluazioa**

- ◆ Jakintzagai batzuen kasuan, beren izaeraren eta edukiaren ondorioz, Institutuaren Curriculum Proiektuak ebaluazio-irizpideen artean espreski beste prozedura bat aurreikus dezake. Kasu horietan izan ezik, etengabeko ebaluazioarekin bat etorritik, jakintzagai bakoitzari dagokionez ikasturtearen hasieratik bilera egiten den arte helburuak zein neurritan lortzen diren baloratuko da bilera bakoitzean. Ikasle bakoitzaren kasuan, dagokion aldian ikasitako jakintzagaiak gain, aurreko bileretan negatiboki baloratuak izan direnak ere baloratuko dira.
- ◆ Etengabeko ebaluaziorako baldintzak.  
Etengabeko ebaluazioak **normalean klaseetara joatea eskatzen du (% 80a, salbuespenak ebaluaketa batzordeak erabakiko ditu)**. Hutssegiteek jakintzagai

batean etengabeko ebaluazio-sistema aplikatzea saihesten dutenean, institutuak ezarritako irizpideen arabera, mintegiak edo didaktika-departamentuak ebaluazio-sistema desberdinak aplikatu ahal izango ditu, ikasleari proba baten bidez jakintzagai horretako helburuak gainditu dituela egiaztatzeko aukera kendu gabe.

- Txostenak: suspentso dutenen kasuan bakarrik.
- Gaizki doazen ikasleen kasuan (3 susp edo 1 errepikatzaileen kasuan): etxera deitu eta etorri arazi.

DBHn bezala, irakasleek planifikatutako irakaskuntza-prozesuaren aldagaiei dagokienez, besteak beste, ondorengo alderdiak ebaluatuko dituzte:

- Programazio orokorra talde bakoitzeko ikasleen egoeraren eta beharren arabera egokitzea.
- Gelako giroa (ikasleen arteko harremanak eta elkarreraginak).
- Proposamen didaktikoen eraginkortasuna eta egokitasuna.
- Ikasleen inplikazio eta motibazio handiagoa eskatzen duten jarduerak.
- Ikaskuntzaren progresioa.
- Taldearen dinamikarekin lotutako neurri bereziak.

Etengabeko ebaluaziorako prozesu hauen garapenerako:

- Programatutako sekuentzia didaktiko bakoitzean ebaluaziorako jarduera bereziak erabiliko ditugu, goian adierazitako informazioa jasotzeko.
- Institutuan etengabeko ebaluazio hori erraztuko duten tresnak izango ditugu.

### c) Azken ebaluazioa

1.– Ikasturte bakoitzeko irakastaldia amaitzen denean, azken ebaluazio-bilera egin aurretik, mintegiek eta didaktika-departamentuek nahikotasun proba antolatuko dute irakasten duten jakintzagaian negatiboki baloratuak izan diren ikasleentzat. Ikasleentzat borondatezkoa izango da proba hau eta, zati bat jakintzagaiaren curriculumak dagokion kurtsorako ezarri dituen gutxieneko edukiei eta helburuei buruzkoa izango da gehienbat ezarritako gutxieneko maila kontuan hartuz.

2.– Azken ebaluazio-bileran kurtsoko jakintzagai guztien azken kalifikazioa emango da.

3.– Balorazioen emaitzak adierazteko 1etik 10erako zenbaki-eskala erabiliko da, hamarrenik gabe; 5a edo zenbaki handiagoa lortzen duten kalifikazioak positibotzat hartuko dira eta zenbaki txikiagoak lortzen dituztenak, aldiz, negatibotzat. Batezbesteko nota adierazteko, eskala bera erabiliko da zifra hamartar bakarrarekin.

4.– Jakintzagaiaren batean balorazio positiborik lortu ez duten ikasleek aparteko deialdi baterako eskubidea izango dute. Deialdi hori azken ebaluazioa egin eta, gutxienez, hilabete beranduago egingo da.

d) Ebaluaketen antolaketa Batxilergoan

- Datak:** Ebaluazio bakoitzeko azterketak, aurretik aukeratutako lau egunetan (asteburua erdian izanik, ahal bada) banatzen dira.
- Egiturari buruzko irizpideak:**

- Goizeko 8etako txandan “ikasi behar diren irakasgaiak” ahal den neurrian sartzen dira, hala ere zenbait kasuetan, ezinezkoa suertatzen delako, 12’15 etako txandan sartu behar izaten dira.
- 10etatik 12tarako txanda “irakasgai arinak” ,ahal den neurrian, edo tarteak utzi egiten dira, ikasleak 12’15etako azterketen gaiak erreparatzeko eta irakasleak bere ordutegia ahal den osotasunean institutuan bertan bete dezan. Garai honetan erreparatzeko toki egokienak hauexek dira: gelak, bikoizketa gelak, liburutegia, jangela...
- Irakasgai “pintzatu”en blokeak ez dira zatitzen, bestela oso nahasgarria eta konplexua da gelak aurkitzeko... Hau dela eta, talde bakoitzarentzako azterketa antolaketa berezia egitea ezinezkoa suertatzen da.

Nork eta nola erabaki antolaketaren egitura?:

- Zuzendaritzak proposamen bat luzatzen du.
- Ikasleek ere proposa dezakete beste bat, baldintza hauekin:

**-1º batxilergo osoarena alde batetik,  
-2º batxilergoko osoa ere bestetik.**

Irakasleek ere horrelako proposamen bat egiteko aukera dute, beti ere ikuspegi orokorrarekin eta ez bakarrik interes pertsonalekin edo departamendukoa.

Erabakitzeko epea:

- Astebete bat utziko da erabakitzeko. Proposamen berririk ez balego, zuzendaritzarena onartutzat joko da.
- Nork erabaki?: Zuzendaritzak erabakiko du Koordinazio Bilera eta ikasle delegatuen proposamenak aztertu ondoren.

## **2.7.3.- EBALUAZIO-BILERAK**

### **2.7.3.1.- DBHn**

- ◆ **Ebaluazio-bilerak irakasle-taldearen bilerak dira eta taldearen tutoreak koordinatzen ditu, DBHko koordinatzailea eta orientatzailearen laguntza izaten du. Eztabaida kolegiatua egin ondoren, bilera-egunera arte egindako ebaluazio-jardueren emaitzak biltzen dituzte dokumentuetan. Deialdia 10 egun lehenago izango da, irakasle guztiak egoteko aukera duten orduan. Irakasleen gutxienera 3/4a izango da.**

Urte akademikoan zehar honako hauek egingo ditugu:

- Ebaluazioko ohiko hiru bilera, ikasturteko hiruhileko bakoitzaren amaieran.
- Ohiko bilkurez gain, urriaren erdialdean hasierako ebaluazioko bilera bat egingo da, taldean esku hartzeko alderdi orokorrak eta hezkuntza-sustapenerako neurriak planifikatzeko.
- Lehenengo zikloan, bigarren eta hirugarren hiruhilekoen erdialdean irakasle taldeak berriz bilduko dira, ikasleen aurrerapenak aztertzeko, batez ere behar edo premia

bereziren bat duten ikasleenak, edo taldean sor daitezkeen bestelako arazoak aztertzeko.

- ◆ Ebaluazio-bileretan emaitza akademiko globalak aztertuko dira, egoera ezagutzeko eta alderdi hauek sakontzeko edo hobetzeko neurriak proposatzeko:
  - ☒ Ikasle jakin batzuei buruzko arazoak.
  - ☒ Arlo bateko edo batzuetako arazoak.
- ◆ Ebaluazio-bileretan taldearen egoera eta arazoak aztertuko dira eta, hala dagokionean, horiek konpontzeko neurriak hartuko dira.
- ◆ Lehenengo zikloko bukaeran eta bigarren zikloko lehenengo mailako azken ebaluazio-bilera ikasturtea amaitu ondoren egingo da, ekainean. Bilera horretan, ohizko erabakiez gain, guztien artean eztabaidatu ondoren, ondoko erabaki hauek hartuko dira:
  - ◆ Derrigorrezko arloetan eta hautazkoetan lortutako kalifikazioak erabakiko dira.
  - ◆ Ikaslea hurrengo ziklo edo mailara igaroko den ala hurrengo urte akademikoan ziklo edo maila berean geratuko den erabakiko da.
  - ◆ Ebaluazio indibidualizatuari buruzko txostenen edukia erabakiko da.
  - ◆ Hamasei urte beteta dituzten ikasleak direnean eta derrigorrezko hezkuntza utzi nahi dutenean, tutoreak etorkizun akademiko eta profesionalari buruz aholku orientatzailea egiteko, irakasleen eta orientatzailearen iritziak jasoko ditu.
- ☒ Hurrengo ikasturterako talde-aldaketak
- ☒ Hamasei urte beteta dituzten ikasleak direnean eta derrigorrezko hezkuntza gaintzeko zailtasunak dituztenean, Curriculum Anitzeko Programan sartzea ala ez erabakiko da.
- ☒ Hamasei urte baino gutxiago izanik eta Programa Osagarria komeni zaiola ikusiz gero, ze programatan sartu eta nola erabakiko da.
- ◆ Bigarren zikloko bigarren mailako azken bilera ikasturtea amaitu ondoren egingo da, ekainean. Bilera horretan, ohizko erabakiez gain, guztien artean eztabaidatu ondoren, ondoko erabaki hauek hartuko dira:
  - ◆ Derrigorrezko arloetan eta hautazkoetan lortutako kalifikazioak erabakiko dira.
  - ◆ Bigarren Irakaskuntzako Graduatu titulua emateko edo hurrengo ikasturte akademikoan ziklo berean jarraitzeko proposamenak erabakiko dira.
  - ◆ Hurrengo ikasturtean ere maila bera errepikatzen ez badu behintzat, tutoreak etorkizun akademiko eta profesionalari buruz aholku orientatzailea egiteko, irakasleen eta orientatzailearen iritziak jasoko ditu.
  - ◆ Ebaluazio indibidualizatuari buruzko txostenen edukia erabakiko da.

### 2.7.3.2. Batxilergoan

◆ **Jakintzagaien emaitzak bileretan jasoko dira, bilera horietara kasuan kasuko taldeko irakasle guztiak joango dira (gutxienez, 3/4a). Tutorea koordinatzaile arituko da, eta ikasketen burua eta orientatzailearen laguntzaz baliatuko da.**

◆ **Jakintzagai bakoitza ematen duen irakaslea izango da horren arduraduna; hala ere, gaiak osotasunean hartu behar ditu kontuan eta begiratuko die, halaber, ikasleen heldutasun akademikoari, dagokion curriculumak garatu nahi dituen gaitasunak aintzat harturik, geroko ikasketetan aurrera egiteko aukerei.**

### 2.7.3.3. Heziketa zikloan

◆ **Emaitzak bileretan jasoko dira, bilera horietara kasuan kasuko taldeko irakasle guztiak joango dira (gutxienez, 3/4a). Tutorea koordinatzaile gisa arituko da.**

◆ **Lanbide-modulu bakoitza ematen duen irakaslea izango da horren arduraduna; hala ere, moduluak osotasunean hartu behar ditu kontuan eta begiratuko die, halaber, ikasleen heldutasun akademikoari, dagokion curriculumak garatu nahi dituen gaitasunak aintzat harturik.**

## 2.7.4.- EBALUAZIO-PROZESUAREN EGUTEGIA

### 2.7.4.1.- DBHn

<b>Unea</b>	<b>Ekintzak</b>	<b>Dokumentuak</b>
Etaparen hasieran	Hasierako ebaluazioa	<i>Ikaslearen ikasketa-espeditentak</i>
Ikasturte bakoitzean zehar	<b>Gutxienez, hiru ebaluazio-bilera</b> hala dagokionean, indartzeko edo curriculumak egokitzeko neurriak	<i>Ebaluazio-bilera-aktak</i> <i>Ebaluazio txostenak</i> <i>Aktilak</i> Gurasoei eta ikasleei informatzeko <i>txosten laburrak</i>
Lehen zikloaren eta hirugarren mailaren amaieran	<b>Azken ebaluazioaren bilera</b> <b>Ikaslea hurrengo mailara igarotzen den ala ez erabakitzea</b> <b>Bi arlotan kalifikazio negatiboa duen ikaslea hurrengo mailara igarotzeari buruzko txostena</b> Hala dagokionean, indartzeko neurriak	<i>Ebaluazio-aktak</i> <i>Ebaluazioko txosten</i> <i>indibidualizatuak</i> <i>Azken ebaluazioko txostenak</i> <i>Pendienteen aktak</i> <i>Familiei eta ikasleei informatzea</i>
Etaparen amaieran	Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua emateko erabakia Kasu bereziei buruzko txostena	<i>Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua emateko proposamena.</i> <i>Titulurik ez duten ikasleei mailen</i>

		<i>eta kalifikazioen kreditazioa ematea.</i> Pendienteen aktak Ebaluazio aktak <i>Kontseilu orientatzailea.</i> Suspentsoak izan arren graduaturako proposaturikoen zerrenda.
Etapan zehar	Kalifikazio bilketa	<i>Eskolaketa-liburua</i> <i>ERPA (espedientea)</i>

#### 2.7.4.2.- Batxilergoan

<b>Unea</b>	<b>Ekintzak</b>	<b>Dokumentuak</b>
1. mailaren hasieran	Hasierako ebaluazioak: irakasleak. Hasierako ebaluazioak: tutorea, Ikas-burua eta orientatzailea	<i>Ikaslearen ikasketa-espedienteak eta aurreko ikasturteko txostenak</i>
Ikasturte bakoitzean zehar	<b>Gutxienez, hiru ebaluazio-bilera</b>	<i>Ebaluazio-aktak eta txostenak, Aktilak</i> Gurasoei eta ikasleei informatzeko <i>txosten laburrak eta boletinak</i>
Maila bakoitzaren amaieran	Azken bilera, hirugarrengoaren segidan egingo da	<i>Amaierako aktak, pendienteenak, .. eskolaketa-liburua.....</i>

#### 2.7.4.3.- Lanbide Heziketan

<b>Unea</b>	<b>Ekintzak</b>	<b>Dokumentuak</b>
1. mailaren hasieran	Hasierako ebaluazioa	<i>Ikaslearen ikasketa-espedientea</i>
Ikasturte bakoitzean zehar	<b>Gutxienez, hiru ebaluazio-bilkura</b>	<i>Ebaluazio-aktak</i> Gurasoei eta ikasleei informatzeko <i>txosten laburrak</i>
Maila bakoitzaren amaieran	.....	<i>Amaierako aktak.....</i>
Ziklo amaieran	FCT aurretiko ohikoa eta ezohikoa. Ziklo bukaerako ohikoa eta ezohikoa	<i>Amaierako aktak.....</i>

#### 2.7.5.- EBALUAZIORAKO PROZEDURAK ETA ESTRATEGIAK

Mintegietako irakasle-taldeak egoki iruditzen zaizkion estrategiak diseinatuko ditu eta horiek aplikatzeko erabakiak hartuko ditu. Irakasle-taldearen konpromisoak ondoko hauek dira:

- Teknika eta tresna desberdinen bitartez informazioa bilduko dugu, bakar batera mugatu gabe.

- Eduki-mota desberdinei (jarrerazkoak, prozedurazkoak eta kontzeptuzkoak) buruzko informazioa bilduko duten tresnak erabiliko ditugu.
- Ikasleek beren aurrerapenak ezagutzeko eta beren ikaskuntza-prozesua erregulatzeko, autoebaluatze jarduerak erabiliko ditugu.
- Gure esku ditugun tekniken bidez, ebaluazio baten emaitza negatiboen arrazoiak bilatuko ditugu eta txostenetan jasoko ditugu.

Mintegi bakoitzak ematen dituen gaien arabera honako teknikak erabiliko ditu

### **Ebaluazio teknikak**

*Behaketa sistematikoa.*

Irakaslearen egunkaria

Kontrol zerrendak

Behaketa gidoiak

Behaketa eskalak

Informazio erregistroak

.....

*Ikasleen ekoizpenen analisia.*

Ikerketa txikiak

Miaketak liburuetan.

Lanen laburpenak.

Koaderno pertsonalak.

Lan pertsonalak.

Taldeko lanak.

Ahozko lanak.

Simulazio jokoak.

.....

*Frogak eta galdeketak:*

Ahozkoak

Idatziak.

Indibidualak.

Kolektiboak.

Ordenadore bidez.

.....

*Kanpoko behaketak*

*Grabazioak*

### **Soinua**

Irudia eta soinua

.....

## **2.7.6.- EBALUAZIO-IRIZPIDE GLOBALAK**

Etapako Helburu Orokorrak kontuan edukiz formulatu ditugun ebaluazio-irizpide hauen bidez, ikasleek ziklo eta maila bakoitzean egin dituzten lorpenak baloratu nahi ditugu modu globalean, arlo eta irakasgai bakoitzetik lortzen den ikuspegia osatuz.

*1. zikloaren ekarpena: 1. zikloan eduki mota desberdinei buruz hainbat irizpide zehaztu ditugu, eta ondoko eranskinean jasota daude: “Eduki mota eta beraien ebaluazioari buruzko adostasunak”*

*Orixen hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak baditugu, eta hauei ebaluazioan trataera desberdina ematen zaie.*

*Ebaluazio irizpide globalak ikasle guztientzat dira, baina etorkinekin, batez etorkin berriekin, trataera desberdina erabiltzen dugu. Kasuz kasu azertu behar dira eta malgutasuna oso beharrezkoa da beraiekin. Askotan, tresna desberdinak ere erabiliko dira: ohiko boletina, gain txosten idatzia, ...*

## **2.7.7.- EBALUAZIORAKO TXOSTEN INDIBIDUALIZATUAK**

### **2.7.7.1.- DBHn**

Ebaluaziorako Txosten Indibidualizatuek 4 atal izango dituzte:

**Lehenengoa deskriptiboa da eta ondorengo alderdiak bereiziko ditugu:**

- ◆ Etapako gaitasun orokorren garapen-maila.
- ◆ Arlo eta ikasgaietako helburuak lortzeko maila.
- ◆ Arlo eta ikasgaietako edukiak bereganatzeko maila.
- Jarraitutako prozesua: hasierako proposamenetan gertatu diren aldaketak, sortu diren zailtasunak, egin diren aurrerapenak, prozesua ikasleen ikasteko modura egokitzeko hartu diren neurri bereziak...

Bigarrena balorazioari dagokiona da eta honako hauek biltzen ditu:

- ◆ Bere maila edo ziklorako proposatutako helburuen arabera balorazioa.
- Lortutako emaitzen balorazioa, ikasle bakoitzaren gaitasunak kontuan izanik.

Hirugarren atalak hezkuntza-neurriak definitzen ditu:

- ◆ Orain arte hartu diren hezkuntza-neurri osagarriak.
- Hartu behar diren hezkuntza-neurri osagarriak.
- Gainerako irakasleei egin beharreko gomendioak.
- Familiarekin landutako gomendioak.

- ◆ Laugarrena ikaslea hurrengo urtera igaroko den ala ez arrazoitzeko da.

Txosten hauek sekretupekoak izango dira, gainerako dokumentu ofizialak bezala, eta ondorengo uneetan beteko ditugu:

- ◆ Lehen zikloko eta hirugarren mailako azken ebaluazio-bilkuren ondoren.
- ◆ Ikastetxez aldatzen denean, kurtso edo zikloa bukatu gabe.
- Etapako azken ebaluazio-bileraren ondoren.

### **2.7.7.2.- Batxilergoan:**



◆ Txostenean adieraziko dira, jakintzagai bakoitzeko kalifikazioez gain, Batxilergoko helburu orokorren lorpen-mailari buruz irakasle-taldeak duen iritzia, hala dagokionean har daitezkeen laguntza-neurriak eta kasu bakoitzeko promozio-iguripenak.

- Edukien menperatze maila
- Irakasgaiarekiko jarreraren deskripzioa (gelako eta etxerako lana, etab.)
- Jokaeraren deskripzioa

## **2.7.8.- FAMILIEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIOA.**

### **a) Talde-bilerak**

#### **a.1.- DBHn**

Talde bateko ikasleen gurasoekin edo arduradun legalekin egiten diren bilerak dira. Bilera hauen helburua familiei interes orokorreko gaien berri ematea da:

- Harrera programen arabera, ikasturtearen hasieran bilera bat egingo da, helburuei, oinarrizko edukiei eta ebaluazio-irizpideei nahiz taldearen egoera orokorrari buruzko informazioa emateko. Baita ere gurasoek prozesu horietan guztietan eskaini dezaketen laguntzari buruzko hausnarketa batzuk planteatuko dira

#### **a.2.- Batxilergoan**

Talde bateko ikasleen gurasoekin edo arduradun legalekin egiten diren bilerak dira. Bilera hauen helburua familiei interes orokorreko gaien berri ematea da:

- Harrera programen arabera, ikasturtearen hasieran bilera bat egingo da, helburuei, oinarrizko edukiei eta ebaluazio-irizpideei nahiz taldearen egoera orokorrari buruzko informazioa emateko.

### **b) Gurasoekin eta ordezkari legalekin egin beharreko elkarrizketa pertsonalak**

#### **b.1.- DBHn**

**Ikasle bakoitzaren gurasoekin edo ordezkari legalekin egin beharreko elkarrizketak, institutuak hala proposatuta, honela egingo dira:**

- Ikasturtean bi aldiz: 1. ebaluazioaren ondoren eta kurtso amaieran.
- Tutoreak edo gurasoek beharra ikusten dutenean, adibidez etorkinen gurasoekin maizago egitea beharrezkoa izango da.

**Elkarrizketa horiek helburu hauek izango dituzte:**

- Gurasoei beren seme-alaben hezkuntza-prozesuaren, egin dituzten aurrerapenen, lortu dituzten gaitasunen eta ikusten dituzten beharren berri ematea.
- Beren seme-alabei etxean eman diezaieketen laguntza adieraztea, batez ere ikasteko ohiturei, lana antolatzeko moduari, erantzukizunei eta abarri buruz.
- Ikasleak etxean egiten duen ahaleginari, ikaskuntza zailtzen duten arazoei, ebaluazioak ikaskuntzan dituen ondorioei eta abarri buruzko informazioa jasotzea, hala, institutuan izan behar dugun esku-hartzea egokitzeko.

#### **b.2.- Batxilergoan**

**Ikasle bakoitzaren gurasoekin edo ordezkari legalekin egin beharreko elkarrizketak, institutuak hala proposatuta, honela egingo dira:**

- Lehen ebaluazioaren ondoren: bi susp. baino gehiago, edota susp. 1 errepikatzaileen kasuan.
- Tutoreak edo gurasoek beharra ikusten dutenean.

**Bilera horiek helburu hauek izango dituzte:**

- Gurasoei beren seme-alaben hezkuntza-prozesuaren, egin dituzten aurrerapenen, lortu dituzten gaitasunen eta ikusten dituzten beharren berri ematea.
- Beren seme-alabei etxean eman diezaieketen laguntza adieraztea, batez ere ikasteko ohiturei, lana antolatzeko moduari, erantzukizunei eta abarri buruz.
- Ikasleak etxean egiten duen ahaleginari, ikaskuntza zailtzen duten arazoei, ebaluazioak ikaskuntzan dituen ondorioei eta abarri buruzko informazioa jasotzea, hala, institutuan izan behar dugun esku-hartzea egokitzeko.

**c) Familiei bidalitako txosten idatziak: buletinak**

**c.1.- DBHn**

- ◆ Ohiko ebaluazio-bilera bakoitzaren ondoren bidaliko dizkiegu txosten idatziak familiei, hau da:
- Hiruhileko bakoitzean behin.

Atalak Ebaluazio Indibidualizatuen Txostenenak bezalakoak izango dira eta ondorengo eduki hauek izango dituzte:

- ◆ Arlo eta ikasgaietako helburuak, DBHkoak hala nola Lehen Hezkuntzakoak zenbait kasutan, zein mailatan lortu diren.
- ◆ Arlo eta ikasgaietako edukiak zein mailatan bereganatu diren.

1. zikloan:

- Lortutako emaitzen balorazioa, ikasle bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuz.
- Jarraitutako prozesua: sortu diren zailtasunak, egin diren aurrerapenak, prozesua ikasleen ikasteko modura egokitzeko hartu diren neurri bereziak...
- Arloz arlo ikasleak azaldutako jarrera eta lan ohiturak
  - ◆ Ordu arte hartutako hezkuntza-neurri osagarriak.
- Familiari emandako gomendioak.
- Irakasleek egin dituzten oharrak.
- Amak, aitak edo arduradun legalak informazioari bestelako oharrak gehitzeko tokia utziko da.
- Hutsegite eta kanporaketan berri ematea.

2. zikloan:

- ◆ Ohiko ebaluazio-bilera bakoitzaren ondoren bidaliko dizkiegu txosten idatziak familiei, hau da:
- Hiruhileko bakoitzean behin.

Atalak Ebaluazio Indibidualizatuen Txostenenak bezalakoak izango dira eta ondorengo eduki hauek izango dituzte:

- Ikasgaietako edukiak zein mailatan bereganatu diren.
- Errekuperaketen emaitzak
- Familiari emandako gomendioak.
- Irakasleek egin dituzten oharrak.
- Hutsegite eta kanporaketen berri ematea.
- Irakasgai pendienteen kalifikazioak.
- Tutorearen datuak: gurasoak atenditzeko eguna eta ordua.
- Tutore eta gurasoen sinadurak.

**Bi zikloetan:** aurrekoez gain, ikasleak arloren batetan egokitzapen esanguratsua daukanean (*ikus eranskina: “hezkuntz premia bereziei erantzuna”*), “egokitzapenen ebaluazio-txostena” deituriko orria eramango du etxera eta bertan:

- Landutakoa zein mailari dagokion
- Programaturiko guztia landu duen ala ez
- Landutakoan lortutako kalifikazioa

#### c.2.- Batxilergoan

- ◆ Ohiko ebaluazio-bilera bakoitzaren ondoren bidaliko dizkiegu txosten idatziak familiei, hau da:
- Hiruhileko bakoitzean behin.

Atalak Ebaluazio Indibidualizatuen Txostenenak bezalakoak izango dira eta ondorengo eduki hauek izango dituzte:

- Ikasgaietako edukiak zein mailatan bereganatu diren.
- Errekuperaketen emaitzak
- Familiari emandako gomendioak.
- Irakasleek egin dituzten oharrak.
- Hutsegite eta kanporaketen berri ematea.
- Irakasgai pendienteen kalifikazioak.
- Tutorearen datuak: gurasoak atenditzeko eguna eta ordua.
- Tutore eta gurasoen sinadurak.

## 2.7.9.- EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

### 2.7.9.1.- DBHn

#### a) Hezkuntza-sustapena

Kontzeptua

**Hezkuntza-sustapena hezkuntza-neurri indibidual edo kolektiboen multzoa da eta neurri horiek irakasleek diseinatuko dituzte, ikasleei beren hezkuntza-prozesuan ebaluazioren bat (hasierakoa, prozesukoa edo azkena) egin ondoren,**

**sekuentzian, mailan nahiz zikloan proposatutako helburuak lortzeko zailtasunak erakusten dituzten ikasleei zuzentzen zaizkielarik.**

Proposamenaren helburu diren ikasleak

- ◆ Arlo batean kalifikazio negatiboa izaten duten ikasleei hezkuntza-sustapenerako neurri osagarriak aplikatuko zaizkie. Neurri horiek taldeko irakasle-taldeak erabakiko ditu ebaluazio-bilkuretan, dagozkien irakasleek hala proposatzen dutenean.

Esku-hartzearen azterketarako irizpideak:

Edozein erabaki hartu aurretik zailtasuna non dagoen aztertu beharra dago:

- Taldeko ikasle-kopuru handiari edo ikasle jakin batzuei eragiten dien ikusi behar da.
- Oinarrizko ikaskuntzetako gabeziak diren, arlo zehatzen bat hartzen duten edo zailtasun puntualak diren ikusi behar da.
- Ikaskuntzako estrategiak bereganatu ez dituztelako gertatu diren edo ikasteko ohitura eta teknikarik ez dutelako edo abstrakziorako gaitasun txikia dutelako sortu diren aztertu behar da.
- Motibazio faltarekin, taldeko integrazioarekin edo eskolako bizitzaren kontrako jarrerarekin erlazionatuta dauden aztertu behar da.

Hezkuntza-sustapena prozesu didaktikoan integratu behar dela uste dugu, eta, horregatik, sustapenerako ondorengo moduei lehentasuna emango zaie:

- Prebentziozkoa: ikasleengan zailtasunak sortu aurretik erantzuteko helburua du, izaera orokorreko prozedura didaktikoen bidez.
- Pixkanakakoa: sekuentzia didaktikoen garapenean sortutako arazoei erantzuteko helburua du, taldean-ikasgelan erabil daitezkeen barneko baliabideak aprobetxatuz (denborak, espazioak, materialak, taldekatzeak...).
- Zuzentzailea: curriculumaren oinarrizko alderdietan sortutako eta irakasle-talde osoaren neurri koordinatuak behar dituzten akats garrantzitsuak zuzentzeko helburua du.

Hezkuntza-sustapenerako plana.

Aurkitutako zailtasunen arabera, gure ikastetxeko sustapen-plana diseinatuko da eta ondorengo alderdi hauek bilduko ditu:

- Hezkuntzako esku-hartzea hobetzeko neurri orokorrak.
- Arlo batzuk sendotzeko neurriak. 1. zikloan Lengua, Matematika eta Euskaran astean behin bi irakasle aritzea
- Neurri osagarriak, kalifikazio negatiboak izan dituzten ikasleei aplika dakizkiekeenak eta ondorengo irizpideei erantzungo dietenak:
  - ikaskuntzan antzemandako zailtasunak gainditzeko jarduera indibidualak;
  - arloko irakaslearen taldeko edo banan-banako tutoretza

- Proposatutako neurriak bideragarriak egingo dituzten antolamenduzko neurriak:

- DBHko taldeetan irakasle-kopurua murrizten saiatuko gara, arlo eta maila bakoitzeko, irakasle bera kokatuz.
- Sustapen handiagoa behar duten arloetan talde bakoitzean bi profesionalek lan egitea taldetik ikasleak ateratzea baino egokiagoa izango da.
- Ahala denean, taldeetan zatiketak egingo dira, modu indibidualizatuagoan lan egiteko.
- Komenigarria ikusten denean, eta batez ere 1.,2., eta 3. mailan, talde bereko arlo instrumentaleko irakasleak, PT eta orientatzailearekin elkartuko dira astero, ikasleen zailtasunei erantzuteko, eta batez ere arlo horietan gabezi handiak dituzten ikasleen hezkuntza-sustapena prestatzeko eta koordinatzeko.

## **b) Hurrengo ziklo edo mailara igarotzea.**

Neurri honen esanahia oinarritzen da, batez ere, uste delako ikasle batek ahal badu eta denbora gehiago izanik aukera gehiago duela zikloa gainditzeko, edo gutxienez hobekuntza pertsonala izateko emandako aukeraren bidez.

### **◆ Ikasleak derrigorrezko arlo eta hautazko ikasgai guztietan ebaluazio positiboa lortu duenean automatikoki igaroko da hurrengo ziklo edo mailara.**

- ◆ Arlo edo ikasgai bat edo bi negatiboki ebaluatu dituzten ikasleak hurrengo maila edo ziklora igaroko dira:

Neurri osagarri batzuekin.

- ◆ Irakasle-taldeak ikaslea hurrengo maila edo ziklora igaroko den ala ez erabaki aurretik, irakasleek ikaslearen, horren gurasoen edo ordezkari legalen iritzia entzun behar dituzte.

Tutoreak, zenbaitetan ikastetxeko orientatzailearekin batera, egoera azalduko die, ikasleak dituen aukerak adieraziko dizkie eta haien iritzia entzungo ditu.

Irakasleek aztertu beharko dituzte:

ikasleak lortu duen aprobetxamendu globala (promozio-irizpideetan ezarritakoa)

Dagokion ziklo edo mailako helburuak zein mailatan lortu dituen (ikasleak zailtasunak dituen arloetan adierazita).

Hurrengo ikasturteari probetxu egokia ateratzea oztopatuko duten zailtasunak, maila bera berriro egitea oinarritzko helburuak hobeto barneratzeko bide gisa hartuz.

Talde berrian integratzeko dituen aukerak.

Ikaslearen jokaera eta proposatu zaizkion hezkuntza-neurri osagarriei emandako erantzuna.

Orientatzailearen iritzia.

- ◆ Ikasleak bi arlo edo ikasgaitan edo bi baino gehiagotan emaitza negatiboak lortu dituztenean eta arlo edo ikasgai horien iraupena ikaslearen ziklo edo mailako orduen % 50 baino txikiagoa denean, ikasle hori hurrengo ziklo edo mailara igarotzea erabakitzen bada, txosten bat prestatu beharko da eta bertan irakasle-taldeen bi herenak ados daudela adieraziko da eta ikasketekin aurrera jarraitzeko arrazoiak

adieraziko dira; bestalde, beharrezkotzat jotzen diren neurri osagarriak ere azalduko dira. Neurri horiek ondorengoak izango dira:

Hezkuntza-sustapenerako neurriak, hurrengo mailan aplikatuko direnak.

◆ **Ezinezkoa izango da maila berean bi urte baino gehiago egotea.**

◆ Lehenengo zikloan hiru urte edo bigarren zikloko edozein mailatan bi urte egin dituzten ikasleek ezingo dute berriro maila bat errepikatu, salbuespen gisa, ikaslea beste ikasturte batez gera dadin erabaki ahal izango da, beti ere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen denean:

◆ Irakasle-taldeak bi heren gainditzen dituen gehiengo kualifikatuz txosten bat onartzea. Txosten horretan irakasle tutoreak ikasketa-plan desberdinak eratzeko programarik gabe ikasleak Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko benetan dituen aukerak justifikatuko ditu, orientatzailearen laguntzarekin, hala egokituz gero.

◆ Araudipeko adinean hasita Lehen Hezkuntza sei ikasturtetan egin izana, osagarriko urterik pasa izan gabe maila horretan.

◆ **Ziklo edo maila batean geratu ezin duelako hurrengo ziklo edo mailara igarotzea derrigorrezkoa den kasuetan, ondokoak landuko ditugu:**

◆ Aplikatuko diren neurri osagarriak (hezkuntza-sustapena).

Ikasle eta familiarekin igarotzearen arrazoiak eta gainditu gabe geratzen zaizkien arloak.

**c) Ziklo edo maila batean beste urte betez geratzea (errepikapena)**

◆ Ikasleak bi arlo edo ikasgaitan edo bi baino gehiagotan emaitza negatiboak lortu dituenean eta arlo edo ikasgai horien iraupena ikaslearen ziklo edo mailako orduen % 50 edo gutxiago denean, ikasle hori hurrengo ziklo edo mailara igaro ezin daitekeela erabakitzen bada, txosten bat prestatu beharko da eta bertan irakasle-taldean bi herenak ados daudela adieraziko da eta ikasketekin aurrera jarraitzeko zailtasunak adieraziko dira. Erabaki hori hartzeko ondorengo irizpideetan oinarrituko gara:

Ikasleak lortu duen aprobetxamendu globala (promozio-irizpideetan ezarritakoa).

Dagokion ziklo edo mailako helburuak zein mailatan lortu dituen (ikasleak zailtasunak dituen arloetan adierazita).

Hurrengo ikasturteari probetxu egokia ateratzea oztopatuko duten zailtasunak, maila bera berriro egitea oinarrizko helburuak hobeto barneratzeko bide gisa hartuz.

Talde berrian integratzeko dituen aukerak.

Ikaslearen jokaera eta proposatu zaizkion hezkuntza-neurri osagarriei emandako erantzuna.

Orientatzailearen iritzia.

Dena dela, aurreko irizpideak malgutasunez erabiliko dira eta aurreko egoeraren batean dauden ikasleen kasuan ere irakasle-taldeak erabakiren bat hartzeko beste irizpide batzuk izan ditzake kontuan, egoera zehatz bakoitzaren azterketa berezia eginez.

◆ Ikasle batek ikasturte bat errepikatzeko erabakia behin baino ezingo da hartu lehenengo zikloa amaitzean edo bigarren zikloko mailaren batean, legeak araututako salbuespenetan izan ezik.

Erabaki hori hartzen denean ikasleari, tutore eta orientatzaileak jarraipen berezia egingo diote ikasturtean zehar

#### **d) Kreditazioa eta titulazioa**

- ◆ DBHko etapa egiten duten ikasle guztiek, etapa hori amaitzean egindako mailen eta arlo eta ikasgai desberdinetan lortutako kalifikazioen kreditazioa izango dute.
- ◆ Bigarren zikloko arlo eta hautazko ikasgai guztien ebaluazioan emaitza positiboa lortu duten ikasle guztiei Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua emateko proposamena egingo dugu.
- ◆ Bigarren zikloko ordu guztien % 10era iristen ez diren arlo edo ikasgaien ebaluazioan emaitza negatiboa lortu duten ikasleei titulua emateko proposamena egiteko irizpideak ondoko hauek izango dira:
  - ◆ Irakasle-taldearen bi herenez osatutako gehiengoaren erabakia.
  - ◆ Ikasleak Batxilergoko edo Prestakuntza Zikloren bateko modalitateetako ikasgai edo moduluak egin ahal izateko gaitasunak garatu dituela egiaztatzea.
  - ◆ Ikasleak 2. Zikloko lehen kurtsoan balorazio negatiboa jaso eta, ondoren, 2. Kurtsoko arlo edo ikasgai jakin bateko saio guztietan arlo edo ikasgai horri dagozkion helburuak ez lortu izana.
- Ikasleek ikasketekin jarraitzeko duten interesa eta motibazioa.
- Ikasleak ikaskuntzarekiko jarrera positiboa izatea.
- Ikasleak titulazioa lortzeko ahalegin handia egitea.
- ◆ Curriculum Anitzeko Programan, Graduatu eman ahal izateko, ikasleak bi esparruak gaindituko ditu.
- ◆ Aparteko proposamen hau irakasle-taldearen hiru herenek onartutako txosten batekin batera egingo da eta txosten horretan ikasleak Batxilergoko edo Lanbide Heziketako modalitatearen batean ikasketak egiteko aukera duela adieraziko da.

#### **2.7.9.2.- Batxilergoan**

Hurrengo mailara igarotzea.

- ◆ Batxilergoko maila batetik bestera igarotzea.
  - 1.– Lehenengo mailatik bigarrenera igaro ahal izateko, ikasleek ebaluazio positiboa lortu beharko dute egindako gai guztietan. Hala ere, gai batean edo bitan ebaluazio negatiboa lortu dutenek ere igaro ahal izango dira, baina gai horietan jarduera sendogarriak egin beharko dituzte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehazten duen moduan. Bi gaitan baino gehiagotan ebaluazio negatiboa lortu duten ikasleek oso osorik errepikatu beharko dute lehenengo maila.
  - 2.– Bigarren mailaren amaieran bat, bi edo hiru gaitan ebaluazio negatiboa izan duten ikasleek gainditu gabeko gaiak errepikatu beharko dituzte soil soilik. Hiru gaitan baino gehiagotan ebaluazio negatiboa lortu dutenek osorik errepikatu behar dute maila hori

eta lehenengo mailatik geratu zaizkienak. Ondorio horietarako, gai bakartzat joko dira izen bera duten lehenengokoa eta bigarrenekoa.

3.– Ikasle batek ezin izango du bete lau urtetan baino gehiagotan Batxilergoko eskolatzearruntzeko ikaspostu bera.

#### Kreditazioa eta titulazioa

◆ **1.– Batxilergoko edozein modalitateri dagozkion gai guztietan ebaluazio positiboa lortu duten ikasleek Batxilergoko titulua jasoko dute. Titulu horrek bidea emango die unibertsitate-mailako ikasketak egiteko, sarbide-probak gainditzen badituzte. Era berean, bidea emango die Goi-mailako Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko, baita Arte-irakaskuntzetako Goi-mailara sartzeko ere, beti ere arauz ezarritako baldintzak betetzen badituzte edo probak gainditzen badituzte.**

#### 2.7.9.3.- Lanbide Heziketan

Hurrengo mailara igarotzea.

- ◆ Prestakuntza Ziklo batetik bestera igarotzeko baldintzak.

Heziketa-ziklo bateko kurtsoen artean igarotzea eta lantokiko Prestakuntza modulu batetan sartzea. Heziketa-ziklo bateko kurtsoaren eta lantokiko Prestakuntza moduluan sartzeko kurtsoaren artean igarotzea, ikasleak lor ditzan kalifikazioen arabera erabakiko dira, honako baldintza hauekin:

1700 eta 2000 orduko heziketa-zikloetan, ikasle bakar bat ere ezingo da bigarren kurtsoan sartu, baldin eta ebaluazio bilkuraren emaitza lez kalifikazio negatiboko hiru lanbide-modulu baino gehiago baditu; edo gutxiago, behin-betiko iraupenak batuta 275 ordutik gora badira.

1700 eta 2000 orduko heziketa-zikloetan ezartzen denez, ikasle bakar bat ere ezingo da sartu lantokiko Prestakuntza moduluan, baldin eta, ebaluazio-bilkura egin ondoren, kalifikazio negatiboko lanbide-modulu bat baino gehiago baditu; edo bakarra, baldin eta horren iraupena ez bada 200 ordutik gorakoa.

1300 eta 1400 orduko heziketa-zikloetan, kontuan izanik ziklo horretako bigarren kurtsoan lantokiko Prestakuntza moduluak duela garrantzirik handiena, «lehenengo kurtsoko ohiko azkena» edo «lehenengo kurtsoko ezohiko azkena» ebaluazio-bilkuraren ondoren, ikaslea ezingo da bigarreneira igaro eta, ondorioz, lantokiko Prestakuntza moduluan sartu, baldin eta kalifikazio negatiboko lanbide-modulu bat baino gehiago baditu; edo bakarra, baldin eta horren iraupena ez bada 200 ordutik gorakoa.

Heziketa-ziklo hauetako bigarren kurtsoan, lantokiko Prestakuntza moduluz gain, beste moduluren bat garatuko balitz, igarotzeko eta sartzeko baldintzek bere horretan iraungo lukete.

#### Titulazioa



◆ Erdi edo Goi-mailako Prestakuntza Ziklo baten lanbide-modulu guztietan kalifikazio positiboa lortu duten ikasleek, hurrenez hurren, dagokion lanbideko Teknikari edo Goi-mailako Teknikari tituluak jasotzeko eskubidea izango dute.

Teknikari tituluak bidea emango du Batxilergoan sartzeko.

◆ Lanbide-moduluak ikasi izanaren egiaztatzea.

Prestakuntza Ziklo baten irakaskuntzen eskaintza partzialaren barruan lanbide-modulu bati dagozkion Berariazko Lanbide Heziketako ikasketak gainditzen duenari egiaztatzea emango zaio..

## 1. zikloa : eduki mota eta beraien ebaluazioari buruzko adostasunak

### 1. JARRERAZKO EDUKIAK

- Inoiz ez dugu ahaztu nahi gure eginkizuna ez dela soilik irakastea, hezteak baizik.
- Hezi nahi dugunez, arlo bakoitzeko jarrerazko eduki espezifikoa bezain garrantzitsuak dira, arlo guztietarako eta gelaz kanpoko uneetan komunak diren hainbat jarrera. Garrantzitsuenak ondorengo hauek ditugu: besteekiko begirunea, materialak eta zaintzeko jarrera, elkarri laguntzea, ahalegintzea, ikasteko interesa izatea,...
- Ikaslearen artean aniztasun handia daukagunez, ezin dizkiegu denei jarrera guztiak era berean eskatu, hala ere, besteekiko begirunea ezinbestekoa izango da denentzat.
- Ebaluazio buletinean bi kalifikazio mota jartzen ditugunez (“Ikasi beharreko edukiak” eta “Kalifikazio orokorra”) irakasleak aukera dauka jarreraren garrantzia azpimarratzeko: ikasle batzuei gainditzen laguntzeko eta beste batzuei kalifikazioa “jaitsiaz”
- Jarreraren balioa:
  - a) Falta larriak dituen ikaslearen kasuan izan daiteke
  - b) Orokorrean bataz beste % 10a
  - c) Oso jarrera egokia izanik, juxtukoak diren ikasleekin % 20 arte, ikaslearen progresio prozesua bultzatzearen.

### 2. EDUKIN KONTZEPTUALAK

- Eduki kontzeptualak ebaluatzeko ez dira soilik kontrolak edo azterketak erabiliko. Baita ere ondorengoak erabilik dira horretarako:
  - a) Gelako bakarkako lanaren behaketa
  - b) Etxerako ariketen zuzenketa
  - c) Taldekako lanaren behaketa
  - d) Ikaslearen ahozko galderak eta erantzunak gelan
  - e) Koadernoaren zuzenketa
  - f) .....

- Kontrolak edo azterketak erabiltzen ez diren arloetan, arloek zehaztuko dute ze ebaluazio-tresna erabiliko dituzten.
- Ikasteko zailtasun handiak dituzten ikasleekin, joera zera izango da, eduki mota honen pisua txikiagoa izatea, beste bi motena handituz.

### 3. PROZEDURAZKO EDUKIAK

- 1. zikloan koadernoari garrantzi berezia emango diogu, batez ere ondorengo arlo hauetan: matematika, natur, euskara,...  
Kalifikazioan garrantzia: % 20a
- Era berean, taldeko lanen behaketa oso baliagarria izango da, prozedurazko edukiak ebaluatzeko.
- Etxerako lanak:
  - Bere garrantzia progresiboa izango da zikloan
  - Helburuak: ikas ohiturak hartzea, autonomia izatea (lana antolatzen jakitez, konponbidea/erantzunak bilatzen jakitea,...), autodisziplina,...
  - Ezaugarriak: gelakoa bukatzea zenbaitetan, gelan egin ezin direnak,...

### EGOKITZAPENEN EBALUAZIOA:

#### BULETINA:

- Oso maila eskasa duten ikasleek (adibidez erreferentea LHko 1. zikloa dutenak) ez dute kalifikazio-buletinik eramango, soilik txosten zabal bat. Txosten hau tutoreak idatziko du PTK lagunduta. Eredua Laguntza Gelak prestatuko du.
- CNEa tramitatuta duten gainontzeko ikasleek biak eramango dituzte: kalifikazio-buletina (hau ikaslearentzat garrantzitsua izan daiteke, eta bertan, hiruhilabetean zehar ikaslea ahalegindu bada, kalifikazio positiboa jar dezakegu, nahiz eta ikaslea oso poliki aurreratu) eta **txostena (Egokitzapenen Ebaluazio-txostena)** sobre itxi batetan (bertan gurasoentzako informazio errealistagoa eta zehatzagoa izango da: zer landu duen, noraino iritsi den,...)
- CNE tramitatuta dutenekin: kalifikazioa bere erreferente zikloari dagokiona izango da, ez beraz DBHri dagokiona. Kalifikazioa, CNEen dauden ebaluazio irizpideen arabera izango da, ez DBHko ikasturte horretako gutxienezkoen arabera. CNE badauka, buletinean kalifikazio orokorraren tokian: kalifikazioa eta \* ikurra, eta oharretan : *CNE* jarriko dugu.
- Lehenengo zikloan, gelako egokitzapen esanguratsua badu (tramitatu gabekoa) aurreko etapan zikloa gaintzeko duelako, buletinean kalifikazio orokorraren tokian hutsik, eta oharretan: “*ikus txostena*” (beraz, kalifikaziorik jarri gabe, maila horri dagokiona landu ez duelako)

	<b>CNE tramitatuta duenarekin</b>	<b>Gelako egokitzapena duenarekin</b>
--	---------------------------------------	---

<b>Buletinaren atalak</b>	<b>Erreferentea LHko 1. zikloa</b>	<b>Erreferentea LHko 2. edo 3. zikloa</b>	<b>Arlo horretan LH gainditzeko duelako</b>	<b>Arlo horretan LH gaindituta, baina DBHko 1. maila ez</b>
<b>+IKASI BEHARREKO EDUKIAK</b> <b>+ KALIFIKAZIO OROKORRAK</b>	Txostena eramango du, buletinarik ez  (txosten zabala)	KALIFIKAZIOA gehi * (asteriskoa, CNE duen arlo guztietan)	hutsik	2. mailakoa lantzen badu, maila horri dagokion kalifikazioa. 1. mailakoa lantzen badu, hutsik utzi.
<b>INDARTZE NEURRIAK hiru aukera: CNE, Ikus Txostena eta I (apoioa badu)</b>		CNE  Ikus txostena	<i>Ikus txostena</i>	Kalifikazioaren laukia hutsik badu, oharretan: <i>Ikus txostena</i> idatzi
<b>Txosten mota</b>	Laguntza Gelak prestatuturiko eredia	<b>Egokitzapenen Ebaluazio-Txostena (gurasoentzako orria):</b> arlo bakoitzari dagokiona, arloko irakasleak beteko du. SALBUESPENA: 1. zikloko ekaineko ebaluazioan 2 txosten mota erabiliko ditugu (kasu bakoitzean egokiena)		

- Taulako azken kasuan, hau da, DBHko 1. maila gainditzeko daukanean, DBHko 2. mailari dagokiona landu arren, gainditu ez badu, baina 1. mailakoari dagokiona bai, horrelako esaldia jarriko dugu boligrafotz buletinaren behealdean: *“Pozik gaude, zeren 1. mailako ..... Arloa(k) gainditzen ari da/gainditu du”*
- **2. mailako ekaineko ebaluazioa :** zikloaren bukaerako buletina aurreko ebaluazioetan bezala beteko da(ondorioz, aktan eta buletinean agian kalifikazio desberdinak), baina kasuaren arabera eranskin txosten desberdina erantsiko zaio buletinari. Kasu bakoitzean zein txosten mota komeni den erabakiko du tutoreak(bietako bat izango da, ez biak batera, gehiegi izango bailitzake). :
  - « 2002ko ekaineko ebaluazio bilera egin ondoren... » txostena horrelako kasuetan beteko da (buletinari gratatuta) : ikasleak egokitzapenak izanik, arlo bakoitzean zein maila duen gaindituta ikusteko beharrezkoa denean
  - Beste ebaluazioetako txostena : gurasoek ikaslearen egoera garbi ikusiko dutenean.

Buletina ondo bete ahal izateko ezinbestekoa da Lehen Hezkuntza gainditzeko duten ikasle guztiei arloa egokitzea (CNE ala gelako egokitzapenaren bitartez). LH gaindituta, baina DBHko 1. mailakoa gainditzeko daukan ikaslearekin, irakasleak erabakiko du gelako egokitzapena egingo duen (1. mailakoa landuaz) edo 2. mailakoa lantzea komeni den.

- AKTA ETA ESKOLA LIBURUA CNE-A DUEN IKASLEEKIN: ekainean beteko dira 2., 3. eta 4. mailaren ondoren eta kalifikazio positiboa jarriz gero (NA, On,...) Arlo horretan CNEko erreferente osoa gaindituta geratzen da (ikuskarria: 01-3-27)

## **2.8.- TUTORETZA ETA ORIENTABIDEA: ORIENTABIDE ETA LAGUNTZA PLANA**

Orixe Institutuko Orientabide eta Laguntza-Planak honako atal eta elementu hauek kontutan hartuko dira:

### **2.8.1.- SARRERA:**

- Orientabide eta Laguntza Planak Orixe Institutuaren Curriculum Proiektuan du bere kokapena.

ICPren izaerak eskatzen duen eran, Orientabide eta Laguntza Planak, gida gisa, bakar bakarrik, programa eta programazioak egin ahal izateko erabaki nagusiak jaso behar dira, hala nola, helburu nagusiak, lantzeko alderdiak eta kontutan hartu beharreko zehaztasunak. Ondorioz, Urteko Planan sartu beharreko Orientabide arloko programa bakoitza unitate bezela hartuko dugu: Harrera, Tutoretza, Ikasketa-lanbide Orientabidea, etab.

- Aurreko ikasturteko Memorian jasotako iruzkin orokorrak islatuko dira hemen (programei dagozkienak beren ataletan jasoko dira). Baita ere hurrengo ikasturterako proposatzen diren aldaketak.*

### **A.- Egoera.**

- Ikasturte horretarako Orientabide eta Laguntzan eragin zuzena duten alderdiak.

- **Ikastetxeko Curriculumari dogokiona.**
- **Orientatzaileen arteko lan banaketa.**
- **Curriculum Anitzeko Programa eta besteak: PIEE, HIPI, Programa Osagarriak.**
- **Bizikidetza Plana**
- **Proiektuak**
- **Eta abar**

## **B.- Lege eremua: ikasturte hasierako zirkularra.**

Orientabide-ekintzari dagokion edukiak jaso ditugu hemen:

*(Azken ikasturtetako Hezkuntza eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordeena, Bigarren Hezkuntzako eta Goi-Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetan Ikasturtea Antolatzeko Moduari buruzko erabakietan, errepikatu dena hauxe da.*

...

### *1.3 IKASTETXEAREN URTEKO PLANA*

...

*Plan horrek ondoko hauek biltzen ditu bere baitan:*

#### *A).- Irakas-jardueren programa.*

*Egitarau hau lantzea irakasleen Klaustroari dagokio eta, hala egokituko balitz, hura ordeztu dezakeen batzorde bati.*

*Irakas-jardueren programan ikasturtean zehar ikastetxearen antolaketa eta garatu behar diren ekintzak biltzen dira ..., orientabide plana, ikasleentzako laguntza eta errefortzu- ekintzak antolatzea,*

...

## *2. IRAKASLEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK.*

### *2.1 ASTEKO JARDUNALDIA.*

#### *2.1.1 Ohiko jarduera duten irakasleak.*

...

*- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleen eskola-ordutegian azaltzen diren tutoretza orduak, ematen dituen irakaslearen irakastordu gisa kontabilizatuko dira. (Batxilergoko kursoen tutoreek, bakarrik, Erabaki honen 2.8.5. Puntuari esijitzen diren baldintzak betetzen badituzte).*

...

*- Irakastorduak izan gabe, ikastetxean ohiko egonaldian egon beharreko orduak ...*

#### *A) Ikasle-talderen baten tutoreak*

*- Astean ordubete, ikasleen gurasoei laguntzeko eta beren ikasleekiko zuzeneko tutoretzakoak ez diren tutoretza-lanak egitea, besteak beste, tutoretzarekin zerikusia duten administrazio-lanak egitea, tutoreen arteko koordinazio-bilerak egitea, orientazio-jarduera bereziak, etab.*

...

## **2.8.2.- DEPARTAMENTUAREN ERAKETA:**

### **2.8.2.1.- Oinarriak**

Hona hemen aipatutako Erabakiak diona:

## “2.6.- ORIENTABIDE DEPARTAMENTUA

### 2.6.1.- Orientabide departamentuaren sortzea.

*Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan eratuko da Orientabide Departamentua, betiere gutxienez hiru kidekoa denean. Honako irakasle hauek osatuko dute departamentu hori:*

*1.-Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleek, horietako batek nahitaez departamentuko burutza izan beharko duena.*

*2.- Curriculum Anitzeko taldeetako eta Hezkuntzan Berariaz Esku hartzeko proiektuetako irakasle arduradunak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.*

*3.- Pedagogia Terapeutikoko maisu-maistra adituak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.*

*4.- Zeregin Ikaskuntzarako Geletako irakasle arduradunak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.*

### 2.6.2.- Orientabide Departamentuaren egitekoak.

*Hona hemen Orientabide Departamentuaren egiteko nagusiena: irakasleekin parte hartzea, animatzea, aholkuak ematea eta elkarrekin jardutea ikastetxeetako hezkuntza parte hartzearen erabaki esparru desberdinetan, hala nola, zuzendaritza taldeak, batzorde pedagogikoak, departamentu didaktikoak, irakaskuntza taldeak, tutoretzak, irakasleak ..., eta lankidetzaren ematea proiektuen eraikuntza, ebaluazioaren diseinu, esku hartzeko irizpide eta, azken batean, ikasleen hezkuntza-orientabide egitekoan.*

*Helburu hori betetzeko, honako hauek bete behar dira gutxienez:*

*A) Kide bakoitzari dagozkion egitekoak koordinatzea.*

*B) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plan egitean parte hartzea.*

*C) Ikastetxeko Orientabide Plan eta Tutoretza Planaren burutzapen eta aplikazioaren jarraipena egitea, departamentuaren urteko memorian jasota.*

*D) Orientabide pertsonal, akademiko edo laneko koordinatzea beste administrazio batzuekin edo gizarte inguruko erakunde aginpidedunekin (udaleko gizarte ongizatea, esaterako).*

*E) Bokaziozko orientabide prozesuak diseinatzea jarduerara egokiek, ikasleen arteko berdintasuna sustatuz euren lanbide etorkizuna hautatzerakoan.*

*Orientabide Departamentua osatzen duten irakasle guztiek egiteko komunak dituzte taldekideak direnez; hala ere, banan-banan berariazko egitekoak egokitu dakizkieke.*

### 2.6.3 Orientatzailearen egitekoak.

*Orientabidea ezin da banandu hezkuntza jarduerara multzotik eta, ildo horretan, irakasle guztie dagokie, euren irakaskuntza egitekoen zati baita. Hala ere, Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleei (orientatzaileak) berariazko erantzunkizuna eman ahal zaie gai horretan.*

*Honako egiteko hauek izango dituzte, besteak beste, orientatzaileek:*

*A) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitea, zuzendaritza taldearen ikuskaritzapean.*

*B) Aholkuak ematea eta koordinatzea irakasleak tutoretza lanetan, tutoreekin jardunez taldean zein banaka. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. Mailako tutoreekin orientabide lan sakonagoa egingo da, kurtsu horretako ikasleei orientabide akademiko-profesionala ematekotan.*

*C) Ikastetxeko batzorde pedagogikoarekin lankidetzaren izatea, proposamenak eta jarduteko planak aurkeztuz departamentu didaktiko desberdinak eta irakasle taldeak koordinatzeko.*

*D) Bilerak egitea aldi-aldi irakasle taldeekin, aztertu eta parte hartzeko ikasteko prozesuen hobekuntzaren jakintza arlo desberdinetan.*

E) Taldeko tutorearekin eta irakasle taldeekin aztertzea ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak eta aholkuak ematea hezkuntza indartzeko neurri eta, hala badagokio, curriculum egokitzapen egokienei buruz.

F) Bere gain hartzea ikastetxeko ikasleen orientabide pertsonal, akademiko eta lanekoa arreta pertsonalaren bidez.

G) Ikastetxean sortu ahal diren jokabide eta elkarbizitza arazoei aurre hartu eta konponbidea ematen laguntzea.

H) Bere espezialitatearekin zerikusia duten irakasgaiak ematea, hala behar izanez gero.

I) Curriculum anitzeko gelen, zeregin ikaskuntzarako gelen eta hezkuntza premia bereziko ikasleei arreta emateko gelen jarraipena egitea.

Berariazko Lanbide-Heziketa ematen diren ikastetxeetan orientatzaileek, tutore eta ikastetxearen beste sailekin batera, ondorengoak bultzatuko dituzte:

-Heziketa-zikloetako aukera bokazional egitarauak, egitarau hauek aurreiritzi sexistarik gabeko izango direlarik, tradizioz gizona-koentzat izan diren zikloetan emakumezkoen sarrera bereziki bultzatuz eta ikasleak datozen ikastetxeekin harremanetan egongo direla.

-Unibertsitate orientazio egitasmoak, aholku prozesu egoki bidez, goi-mailako zikloak burutzen dituzten ikasleentzat.

-Tutoretza eta Orientazio ekintza-planak, ikasleen integrazio akademikoa, pertsonala eta profesionala lagunduz, eskola-porrotaren prebentzioari arreta berezia ematen eta ahal den neurrian banakako jarraipena egiten.

-Lan munduan sartzeko diren ikasleen integrazioaren jarraipenaren koordinazioa, Ikastetxearen beste zerbitzu eta sailekiko elkarlanean (Langai, Lantokiko Praktikak, e.a.), autoenplegua bultzatuz, laneratzeko jarraibideak, e.a.

-Ikastetxe, talde eta hala eskatzen duten pertsonen emateko den heziketa-zikloei buruzko informazioa eta zabalkundearen koordinazioa, ikastetxe beraren sailekiko elkarlanean, mintzaldien bidez, kontsulta partikularrei banakako erantzunak emanez, e.a

Urteko planean orientabide eta kurtsoari laguntzeko plana sartuko da eta, egoki irizten bazaio, departamentu edo irakaskuntza taldeen bidez garatu nahi den gaiarekin zerikusia duten berariazko proiektuak (prestakuntza, koordinazioa, agiri edo materialak egiteko ...)

Ikasleei DBHko 2. Zikloan zehar jakinaraziko zaie zein aukera duten eskola eta lanbide aldetik etapa hori bukatutakoan, egin nahi duten batxilergo edo erdi-mailako heziketa-zikloaren ibilbidea hautatzean behar bezelako erbakia har dezaten. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak materialak egingo ditu berariaz DBHko 4. Mailako irakasleentzat, euren ikasleei laguntza emateko eskola eta lanbide aldetik bideratzekoan. Tutoreak, etapako azken emaitzekin batera aholku orientatzailea emango die.

Era berean, batxilergoan zehar ikasleei jakinaraziko zaie ser aukera daukaten unibertsitate eta goi-mailako Lanbide Heziketa egiteko, erabaki zuzena har dezaten.

Ikasketaburuak orientatzailearen egitekoa erraztuko du ikastetxeko tutoreekin izan behar duen lanean.

#### 2.6.4.- Psikologia eta Pedagogiako irakasleen ordutegia.

Psikología eta Pedagogiako irakasleek ordutegi jakin bat bete behar dute, ikastetxeko gainerako irakasleek dutenaren mudukoa dena, hain zuzen ere. Alegia, asteko 30 orduko ordutegia dute, eta ordu horietatik 23 ikastetxean ohiz egotekoak dira; asteko beste zazpiak, hilabetean zenbatuko direnak, berriz, ikastetxean ohiz kanpoko egotekoak dira.

30 ordu horien banaketa erabaki honen 2.1.1. Azpiatalean dago zehaztuta. Banaketa hori berdin-berdina izango da ikastetxeko gainerako irakasleen kasuan ere. Psikologia eta Pedagogiako irakasleen 17 irakastorduen barruan, ordea, ematen dituzten eskola-orduez gain, orientazio-jarduerei propio eskainitako orduak ere zenbatuko dira”.

### **2.8.2.2.- Osaketa**

- Erabakian eskatzen dena, hau da, bi kide baino gehiago egotea, betetzen dugunez gero, (gure kasuan 11 gara), institutu honetan, ..... ikasturterako Orientabide Departamentua eratzen da. Berau osatzen duten irakasle eta hauen ardurak hauxek dira:
  - Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleak, hau da, orientatzaileak.
  - Curriculum Anitzeko taldeko irakasle arduradunak.
  - Pedagogia Terapeutikoko maisu-maistra adituak
  - Zeregin Ikaskuntzarako Geletako irakasle arduradunak
  - Lanbide Tailerrekoak
  - Hezkuntzan Berriaz Esku hartzeko proiektuetako irakasle arduraduna.
  - Zubi-gelako arduraduna
  - Hizkuntza indartzeko proiektuko arduraduna.

### **2.8.2.3.- Departamentuaren burutza**

- Araututa dagoen bezala (“... Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleek, horietako batek nahitaez departamentuko burutza izan beharko duena ...”), departamentuaren burutza, orientatzaile baten eskutan geratzen da. Aurreko ikasturtean erabakitakoa, hau da, kargu hau urtero txandatuko da.

### **2.8.2.4.- Antolaketa**

#### **2.8.2.4.1.- Leku eta uneak**

- Dagozkion eginkizun eta zereginak burutu ahal izateko, departamentu guztiak bezala, hainbat baliabideren jabe izango da:
  - ❖ Denok biltzeko lekua (gaur egun Batxilergoko orientatzailearen eraikinean dagoen bilera gela) eta unea finkatuko ditugu
  - ❖ Denok biltzeko ipinitako ordu horrek azpitaldeak koordina daitezken ere balioko du.
  - ❖ Honetaz gain, azpitalde bakoitzak berezko gela, bulego eta ordutegiak izango ditu.
- Orientatzaileak, Zuzendaritzarekin koordinazioa mantendu eta proiektuen jarraipena egitearren, institutuan eratu zen Batzorde Pedagogikoaren partaideak dira. Batzorde honek, bere biltzeko lekua eta uneak ditu.

#### **2.8.2.4.2.- Orientatzaileen lan banaketa**

- Bi orientatzaileok ditugun prestakuntza, eskarmentu eta baita ere izaera ezberdinetan kontutan hartuko dira. Honetaz jabetuz, ezberdintasun horrek



aberastasuna suposatzen duela ere onartzen dugu. Badakigu ere, geure lankidetzan lor dezakeguna, elkar errespetu eta kontsiderazioko giro batetik bakar bakarrik etorriko dela.

- ☒ Profesionalak bezala, badakigu, *lankidetzara arautuz gero*, sor daitezken gataztak hobeto sahis daitezkeela. Hau dela eta, saiatu gara, geure eskarmentuan oinarrituz, bururatu zaizkigun zehazpenak idatziz ipintzen. Honela, askoz errazago egingo zaigu hobetzen eta osatzen joatea.

Beti ere **TALDE BAKAR BATEN KIDEAK BEZALA LAN EGIN BEHAR DUGUNAREKIN BAT EGONEZ**, hona hemen zehaztu ditugun alderdiak:

- **LAN EREMUA.**

Orientatzaileen lan banaketak (DBH osoa alde batetik eta Batxilergoa beste aldetik) ez du orain arte izan diren irizpideetan aldaketarik suposatu behar. Hona hemen gure lana gidatzen duten ideiak:

A) Geure lanaren eraginkortasunik handiena bilatuz eta bai ikasle, guraso, eta bai tutore eta irakasleentzako ERREFERENTE FINKO BAT izateko asmoz, orientatzaileok bi lan eremu definitzen ditugu: **DBH (1, 2, 3 eta 4. Maila gehi Curriculum Anitzeko taldea) eta DOBH (Batxilergoak eta Heziketa Zikloak, gehi ZIG-AAT gela eta Lanbide Tailerra).**

B) Lan-praktika zehaztearren, honako argibide hauek zerrendatzen ditugu:

⇒ *Garbi azaldu nahi dugu lan banaketa hau metodologian kokatu behar dela. Beraz, ez du inolaz ere zatiketa, ez eta konpartimendu estankorik suposatu behar, zeren lehen aipatu dugun bezala, ekipo bakar batek bezala funtzionatu behar dugunarekin bat gatoz.*

⇒ *Guzti hau aurrera eraman ahal izateko, bi orientatzaileok biltzeko unebat finkatuko dugu, baita geure lan ordutegian isladatu ere.*

⇒ *Zenbait unetan bi orientatzaileon presentzia behar beharrezkoa dela uste dugu: Batzorde Pedagogikoan, Koordinazio bileretan, etab.*

⇒ *Beste aldetik, hemen islatzen diren lan arloak edozein unetan berrikus daitezkeela onartzen dugu.*

### **2.8.2.5.- Baliabideak**

- ☒ Baliabide ekonomikoak. Beste mintegi eta departamentuek duten bezala, gureak ere bere zereginei erantzuteko diru kopuru batekin kontatuko du. Institutuan indarrean dagoen ekonomi araudiaren arabera, dirutza finko bat eta irakasle bakoitzeko hainbat diru kopuru izango dugu. Honen arabera eratuko dugu gure aurrekontua. Beste aldetik, berariazko gelak izanez, bai

Laguntzakoak, bai Zereginen Irakaskuntzakoak (ZIG eta Lanbide Tailerra) eta bai Zubi-Gelak bere aurrekontu berezia eta dirutza izango dituzte.

- Departamentuaren hornidura: altzari eta tresneria. Beste departamentuetan gertatu den bezala.
- Dokumentazioa. Alderdi honetan, bai argitaratutako liburu, programa, etab, eta bai geuk sortutako materialak dira aipatzekoak. Material guzti hau ordenatu ondoren, ikasle, irakasle eta beste pertsonen honen berri izan dezaten ahalegin bat egin beharko dugu. Adibide gisa, ikasketa desberdinak jasotzen dituzten txostenak gainbegiratu, aldatu eta osatu beharko dira.
- Giza baliabideak.

### **2.8.3.- ORIENTABIDE ETA LAGUNTZARI DAGOKIENEZ INSTITUTUARI EGITEN DIOGUN AZTERKETA:**

**2.8.3.1.- Beharrak.** Aurreko ikasturteetako Memoretan jaso ditugun proposamenak islatuko dira hemen . Gida gisa, honako hauek izan daitezke:

- **Hainbat ekintza burutu ahal izateko areto handi baten beharra.**
- **Unibertsitatean sartzeko tramiteak egiteko informatika-sistema.**
- **Hezkuntz Premia Bereziak dituzten ikasleei erantzuna antolatzeko**

#### **irizpideak**

- **Aniztasunaren trataera DBHn**
- **Tutoreen prestakuntza**
- **Gurasoen formakuntza eta Guraso-eskola:**

### **2.8.3.2.- Lehenetsunak**

- Aurreko azterketa egin eta gero, lehenetsunak finkatuko dira.

## **2.8.4.- HELBURUAK:**

### **2.8.4.1.- Helburu Orokorrak**

Helburu hauek dituzten ezaugarriak, batez ere zabalera edota mugagabetasuna direla eta, oso zaila egiten zaigu zehazki ebaluatzea. Hala ere, mota honetako helburuak eguneroko praktika argiztatzeko behar beharrezkoak direlakoan gaude. Beraz, ikasturteko planetan isladatzea erabaki dugu.

**2.8.4.1.1.- Porrot eskolarra aldeztatik ekidin eta ikaslego osoarengan ikasteko gaitasuna gehitu ahal izateko, ikasgai desberdinetan integratuz, Ikasketa Ohitura eta Teknikariek eraginkorrenak landu.**

**2.8.4.1.2.- Hortarako behar diren saio eta ariketak eginez eta behar duten informazio emanez, ikasketa-lanbideekiko erabakiak baldintzarik onenetan hartu dituzten, ikaslegoarengan, heldutasun bokazionala lortu, benetako autorientabidea garatzen dugularik. Hortarako oso baliogarria den Internet-tresna erabiltzen irakastea.**

**2.8.4.1.3.- Gela eta Ikastetxeko bizitzan integrazioerik onena lortu dezaten, behar duten laguntza, ikasleei eman.**

**2.8.4.1.4.- Ikasleengan, heldutasun integrala ahalbidetu.**

**2.8.4.1.5.- Ikastetxeko baliabideen erabilera hobetu eta kanpoko laguntza zerbitzuei sarbidea erraztu.**

#### **2.8.4.2.- Helburu Zehatzak**

Aurrekaldean jasotako beharrak eta finkatutako lehentasunak kontutan hartuz, eremuka, ikasturte horretan zehar lortu beharreko helburuak:

### **2.8.5.- PROGRAMAK:**

#### **2.8.5.1- KOORDINAZIO LANAK ETA BALIABIDEEN SORRERA ETA ANTOLAKUNTZA**

2 orientatzaileen arteko koordinazioa eta eskuhartzea.

Orientatzaile, Laguntza Gelako irakasle, tutore eta irakasleen arteko koordinazioa ordutegian jarrita dago.

#### **2.8.5.2.- BESTELAKO PROGRAMAK**

##### **2.8.5.2.1.- Gizarte Trebetasunak:**

Gai honek duen garrantziaz jabeturik, programa bat diseinatu behar delakoan gaude. Orain arte, Heziketa Zikloan, LPO/FOLen barnean kokaturik egon da.

##### **2.8.5.2.2.- Gurasoentzako hitzaldiak**

Ikasturterako programaturiko hitzaldi edo formakuntza ekintzak. *Irizpide nagusienetako bat: ikasleekin tutoretza eta orientabidean egindakoari jarraipena ematea, arlo hori gurasoekin landuaz.*

##### **2.8.5.2.3.- Drogomenpekotasunen prebentzioa**

DBHko 1. zikloko taldeekin bigarren hiru hilabeteen drogomenpekotasunaren programa gauzatuko dugu tutoretza orduetan.

##### **2.8.5.2.4.- HIESa**

Hezkuntz Administrazioaren bitartez prestatutako prebentzio programa erabiliko dugu batxilergoko 1. mailako taldeetan, Biologia, Etika eta Erligioko irakasleen eskuhartzea koordinatuz.

##### **2.8.5.2.5.- Sexualitatea**

DBHko 3. mailako taldeetan (arrrtsaldez) eta Batxilergoko 1. mailako taldeetan bere ordutegi arruntan. Kanpoko laguntza izango dugu.

#### **2.8.5.2.6.- Zinea**

- DBHko 4. Maila, ZIG gela, Lanbide Tailerra eta batxilergoko 1. Mailako ikasleak zine emanaldietara joango dira, filme eta ondorengo lanaren bitartez, orientabide arloko hainbat helburu eta gai landuz.

#### **2.8.5.2.7.- Indartze neurriak**

Orientatzaileok Orixeko DBHko h.p.b.ak dituzten ikasleei erantzuteko antolatutako ekintzak koordinatu eta bultzatuko ditugu. Besteak beste horrelako baliabideak koordinatuko ditugu:

- DBHko 1. zikloko apoioak.
- CNEa duten ikasleei buruzko koordinazio orduak
- Mota desberdinetako egokitzapenak gauzatzea
- Kanpoko baliabideen eskuhartzea Orixen eta kanpoko erakundeekiko harremanak
- PIEE proiektua (ikus Programa-atala)

#### **2.8.5.2.8.- Aholku orientatzailea**

Ikasurte hasierako zirkularrean zera aurkitzen dugu:

*“Ikasleei DBHko 2. Zikloan zehar jakinaraziko zaie zein aukera duten eskola eta lanbide aldetik etapa hori bukatutakoan, egin nahi duten batxilergo edo erdi-mailako heziketa-zikloaren ibilbidea hautatzean behar bezelako erbakia har dezaten. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak materialak egingo ditu berariaz DBHko 4. Mailako irakasleentzat, euren ikasleei laguntza emateko eskola eta lanbide aldetik bideratzerakoan. Tutoreak, etapako azken emaitzekin batera **aholku orientatzailea emango die**”.*

Gure aldetik gauza bera egingo diegu bai DBHren amaierakoan eta bai edozein bajaren kasutan. Hortarako 4. mailako ikasleekin bi une egongo dira:

1. Apirilean aholku orientatzailea idatziz eman aurrematrikulak gauzatu ahal izateko.
2. Ikasurtea bukatutakoan, ebaluazioaren arabera, behar diren kasuetan, aholku orientatzaile berria eman.

Materialak: Adostutako eredia eta “DBHren ondoren zer?” izeneko materiala.

#### **2.8.5.2.9.- Hizkuntza indartzeko proiektua**

- Honekin, martxan jarritako Zubi-gela proiektuari jarraipena emango diogu.

#### **2.8.5.2.10.- Bizikidetzeta programa DBHn**

- Programaren helburu bat geletan praktikan jartzea da

## 2.8.6.- PLANAREN EBALUAKETA ETA HOBEKUNTZA:

Ebaluaketa, Planaren diseinu eta martxan jartzearen baitan dagoen jarduera bat da. Jarduera hau, Planaren hobekuntzarako aldaketak erabakitzearen, datuen bilketa eta prozesaketa izango da.

Hasierako ebaluaketak, hau da, beharren azterketa eta inguruaren ikerketa bere baitan dituenak Planaren oinarria ematen badigu, tartekoak, prozesualak erreztuko digu aldaketak sartzea eta ikastea, baita ere eragileen efizientziaz jabetzea. Amaierakoak, aldiz, Planaren eraginkortasunari buruzko informazioa emango digu, hots, finkatutako helburuak lortzeko egokia den ala ez.

**Ikasturte amaierako Memoria izango da ebaluaketa hau jasotzeko eta hurrengo ikasturterako proposamenak luzatzeko tresna.**

Ebaluaketaren alderdiak.

⇒ *Planaren diseinua eta ikastegiarekiko egokitasuna.*

⇒ *Helburuen baliotasun eta zuzentasuna.*

⇒ *Ekintza eta jardueren buruketa eta helburuak lortzeko egokitasuna.*

Irizpideak.

▪ **Diseinurako:** Luzetasuna, sakontasuna, ulermena eta ordena. Berdin, ikastegiaren tipologia, ikasle, irakasle eta ahalbideei egokitasuna.

▪ **Helburuetarako:** Formulazioa, agertutako beharren betetzeko edota hobekuntzarako pertinentzia (ehunekotan), argitasuna, baliabilitatea, e.a.

▪ **Ekintza eta jarduetarako:** Betetze edota gauzatze maila eta hutsegiteen arrazonamendua. Helburuak lortzeko egokitasuna. Eragile eta jasotzaileen atsegingarritasunaren maila neurtu behar da ere bai.

Teknikak eta tresnak.

Eragile eta jasotzaileen iritzien bilketa zuzena: eztabaidetan, elkarrizketetan, galde-sorten bidez, e.a. Autobehaketa eta, bai teknologiaz edota beste tresnetaz (adibidez, tauletaz) lagundutako kanpoko behaketa gidatua.

Uneak.

▪ **Helburuetarako:** Betetze maila eta antzeko gauzetarako, urteko ebaluaketa, maiatzaren 1. hamabostaldian.

▪ **Ekintza eta jarduetarako:** bakoitzaren amaieran. Honetaz gain, gauzatze mailarako eta aldaketetarako, hiruhilean behin, kontrolak.

Aldekuntzarako prozedurak eta ebaluaketarako eragileak

▪ Ekintzen aldaketak:

- *Tarteko edota ebaluaketa prozesualan, martxan bertan aldatuz. Zuzendaritzarekin ditugun koordinazio bileretan, tutoreen bileretan eta Orientabide Departamentuan.*
- *Behin ikasturtea amaitu ondoren: helburuen aldaketak. Eskola Kontseiluari dagozkionez, honek zehaztuko ditu, irakasleen klaustroak proposatu eta Orientabide Departamentuak eskatzen dizkiolarik.*

## **2.8.7.- ERANSKINAK: Programa nagusiak eta proiektu eta gela bereziei dagokien programazio eta planak.**

### **2.8.7.1.- Harrera programak**

#### **2.8.7.1.1.- Sarrera.**

- Aurreko ikasturterako programetan oinarritzen da.

#### ***Helburu orokorrak***

Hauek dira harrera programen bidez lortu beharreko helburuak

- 1.- Lehen Hezkuntzako ikasleak Bigarren Hezkuntzara igarotzerakoan izan ditzakeen gaitasun ezineko jauziak saihestea, eta, azken hau lortzen den neurrian, bere jatorria etapa honek eskatzen duenari ez egokitzean duen eskola porrota gutxitzea.
- 2.- Ikasle eta familia guztiei ikastegiaren bizitzarako integrazioa ahalbidetzea, institutuak daukan Hezkuntz Proiektu, Antolakuntz eta Jardueren Araudi eta abarreko dokumentuak jakinarazten zaielarik.
- 3.- DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloko ikasle berriari, ikasketak hauek dituzten ezaugarriez jabetu dadin, laguntza ematea.
- 4.- Heltzen, ikasten eta aukeratzen beren seme-alabak ahalik eta ongien lagun ditzaten, gurasoei prestakuntza ematea. Hortarako, jokabide arau eta aholkuetaz gain, bai igarotzen ari diren garapen psikologikoari dagokion faseaz, bai egiten ari diren ikasketen ezaugarriez, eta eta bai amaieran izan ditzaketen irteereei buruzko informazioa emango zaie.
- 5.- Geure ikastegiaren errealitate, ohitura eta prozeduretz jabetu araziz, irakasle berrien lana erraztea.

### 2.8.7.1.2.- PROGRAMA BERA.-

**1.- Hartzaileak:** DBH eta Batxilergoko Zikloko 1. Mailako ikasleak, bere familiak eta irakasle berriak. Beste mailetako ikasleek (ZIG-Lanbide Tailerra eta Curriculum Anitzeko taldekoak barne direlarik), nahiz eta hartzaile zuzena ez izan, hemen islatzen diren ekintzetan ikus daitekeen bezala, dagokion atentzioa izango dute.

**2.- Eragileak:** Zuzendaritza taldea, tutoreak, orientatzaileak, eta irakasleak.

**3.- Uneak:** *ikasturte hasierako lehenengo 15 egunak. 1. mailako ikasleekin egiten den barnetegirako irteera.*

Eskualdeko ikaslegoari emandako hitzaldiak eta aurrematrikulako aldian egindako bisitak, harrera programen berezko ekintzak bezala hartu behar dira.

#### **4.- Aurretikoak:**

4.1.- Informaziorako inprimakien prestaketa, hitzaldi eta bisiten antolaketa, e.a.

4.2.- Tutoreekin bilera: Irailaren hasierako egunetan egingo da, liburutegian. Ordurako hainbat tutore izendatu gabe izanik, beren ordean, irakasle beterrano batzu joango dira. Zuzendaritza taldeak ardura hartu eta aurkezpena egingo du.

- ❖ Ikasburuaren aurkezpena.
- ❖ Orientatzaileak aurkeztu eta beren lan-banaketa azaldu.
  - Ondoren, DBH eta Batxilergokoak banatuko dira. Talde bakoitza bilduko da bere orientatzailearekin, irakasle-gelan. Bilera honetan lanerako materiala banatu eta azalduko da.

### 2.8.7.1.3.- *Jardueren zehazpena:*

**1.- Lehenengo eguna ikasleekin, (Zuzendaritza Taldea, orientatzaileak, tutoreak beren ikasleekin).**

#### **Ordutegia:**

- **ZIG-AAT eta Lanbide Tailerra:** 9etan, beren geletan
- **DBH.ko 1.a: Ordutegia**
  - ZUZENDARITZA TALDEAREN AGURRA 9etan
  - Ondoren, 10'40 arte, tutorearekin.
  - 10'40-11'30: arloko irakasleekin (15 minututako aurkezpenak)
  - 11'30-12'00: jolas ordua
  - Ondoren, 13'00 arte, tutorearekin bigarrenengo saioa.

#### ***Tutorearekin landuko diren gaiak:***

- Tutorearen aurkezpena
- Zerrenda pasa eta okerrak zuzendu

- Egun horretan zer egingo duten azaldu (lehendabizi tutorearekin, gero ez ohiko ordutegian irakasleen aurkezpenak)
- Elkar ezagutzeko asmoz hauetako teknikaren bat erabili lehenengo harremanak errezteko.

- "Ikaskideak ezagutzen" teknika
- "Aurkezpen-txartela" teknika
- "Juego de los nombres y valores" teknika

- Informazioa eman ikasleei:

ordutegia jarri arbelean eta kopia dezatela (irailaren 30 arte izango dena azaldu). Aukerakoak eta tutoretza ordua noiz diren komentatu.

irakasleen izenak

egutegia (kortxoan jarri)

DBHren ezaugarri batzuk aipatu: bi ziklo 12-14 eta 14-16; gero Heziketa Zikloetara edo Batxilergora; Ziklo osoa tutore berarekin, ...

- Jangela: Zerrenda egin.
- Hurrengo egunean zera ekartzeko esan:

- *Kontu-korrentearen zenbaki osoa jangelan geldituko direnak*
- *Medikuarengana joateko duten txartelaren fotokopia*

- Arauak landu eta orria kortxoan utzi.
- Komentatu agenda emango diegula denei, eta esango zaiela nola erabili
- Garraioa: *arazorik izan ote duten galdetu. Datu horiek jaso*
- *Gogoratu! CNE duten ikasleek ez dute testu-libururik erosiko*
- Ikastetxeko toki eta zerbitzu nagusiak bisitatu
- Tutoretza-fitxa betetzen hasi, eta ikasleekin bakarka harremana izateko erabili ekintza hau.

*EUSKARAREN ERABILPENA: ikasleek euskaraz egitearen garrantzia azpimarratu eta motibatzen saiatu.*

- **DBH.ko 2. maila: Ordutegia**

9'00: tutorearekin.

10'40-11'30: arloko irakasleekin (15 minututako aurkezpenak), ez ohiko ordutegiarekin.

11'30-12'00: jolas ordua

12'00- 13'00: arloko irakasleen aurkezpena (jarraipena)

***Tutorearekin landuko diren gaiak:***

- tutorearen aurkezpena
- zerrenda pasa eta okerrak zuzendu
- egun horretan zer egingo duten azaldu (lehendabizi tutorearekin, gero ez ohiko ordutegian irakasleen aurkezpenak)



- Elkar ezagutzeko asmoz hauetako teknikaren bat erabili lehenengo harremanak errezteko.

"Círculos dobles" teknika

"Me llamo ..." teknika

- Informazioa eman ikasleei:

ordutegia jarri arbelean eta kopia dezatela (irailaren 30 arte izango dena azaldu). Aukerakoak eta tutoretza ordua noiz diren komentatu.

irakasleen izenak

egutegia (kortxoan jarri)

DBHren ezaugarri batzuk aipatu: bi ziklo 12-14 eta 14-16; gero Heziketa Zikloetara edo Batxilergora; Ziklo osoa tutore berarekin, ...

Jangela: Zerrenda egin.

- Ikasle berriei hurrengo egunean zera ekartzeko esan:

*Kontu-korrentearen zenbaki osoa jangelan geldituko direnak*

*Medikuarengana joateko duten txartelaren fotokopia*

- Arauak landu eta orria kortxoan utzi.
- Komentatu agenda emango diegula denei, eta esango zaiela nola erabili
- Garraioa: *arazorik izan ote duten galdetu. Datu horiek jaso*
- *Gogoratu!:* *CNE duten ikasleek ez dute testu-libururik erosiko*
- Ikastetxeko toki eta zerbitzu nagusiak erakutsi ikasle berriei
- Tutoretza-fitxa betetzen hasi, eta ikasleekin bakarka harremana izateko erabili ekintza hau.

*EUSKARAREN ERABILPENA: ikasleek euskaraz egitearen garrantzia azpimarratu eta motibatzen saiatu.*

- **DBH.ko 2. zikloa:**

### **Ordutegia**

9'00-9'50: tutorearekin (beste saio bat luza daiteke, 10'40 arte).

Ondoren (ohiko ordutegiaren arabera): arloko irakasleekin aurkezpena.

11'30-12'00: jolas ordua

12'00- 13'00: arloko irakasleen aurkezpena (jarraipena)

- **Tutorearen aurkezpena**

Zerrenda pasa eta okerrak zuzendu

Curriculum Anitzeko taldean: elkar ezagutzeko teknikak

Egun horretan zer egingo duten azaldu (lehendabizi tutorearekin gero ohizko ordutegiarekin irakasleen aurkezpenak)

Arauak kortxoan jarri eta komentatu (gogorarazi).

Informazioa eman ikasleei:

- Ordutegia jarri arbelean eta kopia dezatela (irailaren 30 arte izango dena azaldu). Aukerakoak eta tutoretza ordua noiz diren komentatu.
- Irakasleen izenak
- Egutegia (kortxoan jarri)

DBHren ezaugarri batzuk aipatu: bi ziklo 12-14 eta 14-16; gero Heziketa Zikloetara edo Batxilergora; Ziklo osoa tutore berarekin, ...

Jangela: Zerrenda egin.

3. mailako ikasle guztiek eta 4. mailako ikasle berriek argazki berri bat ekarri behar dutela esan.

Hurrengo egunean ikasle berriek zera ekartzeko esan:

- *Kontu-korrentearen zenbaki osoa jangelan geldituko direnak*
- *Medikuarengana joateko duten txartelaren fotokopia*

Komentatu agenda emango diegula denei.

Gelako inbentarioa egin

Tutoretza-fitxa betetzen hasi, eta ikasleekin bakarka harremana izateko erabili ekintza hau.

Garraioa: *arazorik izan ote duten galdetu. Datu horiek jaso*

*EUSKERAREN ERABILPENA: ikasleek euskaraz egitearen garrantzia azpimarratu eta motibatzen saiatu.*

- **Etorrin berrientzako ekintza osagarriak**

Zubi-gela erakutsi.

Hizkuntza Indartzeko Proiektuaren irakaslea aurkeztu.

Zubi-gelaren ordutegia azaldu.

### **2.8.7.1.4.- BARNETEGIA DBHko 1. MAILAko IKASLEEKIN**

Jarduera honen helburu zehatza hauek dira:

- eskola desberdinetatik etorritako ikasleek elkar ezagutzea eta beraien arteko kohesioa bultzatzea.
- Tutoreek eta orientatzaileak ikasle hauek hobeto ezagutzea.

Hortarako, beste ikasturteetan bezala, Nafarroako NARBARTE herrian.dagoen aterpetxea joango gara, urriaren 9, 10 eta 11an.

Parte hartuko duten irakasleak: 1. mailako tutoreak eta orientatzailea.

### **2.8.7.1.5.- DBHko GURASOEKIN**

DBHko 1. mailako gurasoekin ahalik eta garaizen egin beharko da eta honelako atalak izango ditu:

Zuzendaritzaren aurkezpena

Orientatzailearen eskuhartzea. Gaiak: orientatzailearen funtzio nagusiak eta LHtik BHra izaten diren aldaketak.

- Tutoreen aurkezpena eta beraiekin saioa
- Arauak komentatu.

❖ DBHko 2. mailako gurasoekin:

- Zuzendaritzaren aurkezpena
- Orientatzailearen esku hartzea. Gaia: etaparen ezaugarriak.
- Tutoreen aurkezpena eta beraiekin saioa.
- Arauak komentatu

❖ DBHko 3. mailako gurasoekin:

- Zuzendaritzaren aurkezpena
- Orientatzailearen esku hartzea. Gaiak: DBHko 1. Ziklotik 2.ra izaten diren aldaketak. Graduatua.
- Tutoreen aurkezpena eta beraiekin saioa.
- Arauak komentatu

❖ DBHko 4. mailako eta Curriculum Anitzeko Programaren gurasoekin:

- Zuzendaritzaren aurkezpena
- Orientatzailearen esku hartzea. Gaiak: Orientatzailearen aurkezpena eta eginkizun eta zereginen azalpena. Mailaren ezaugarriak eta erabakitze beharra. Kalifikazioetan eragina duten eragileak.
- Tutoreen aurkezpena eta beraiekin saioa.

### ***2.8.7.1.6.- BATXILERGO ETA HEZIKETA ZIKLOKO IKASLEEKIN***

**2.8.1.6.1.- Harrera egun honetan lortu nahi diren helburu zehatzak:**

- Ikasleen antsietatea gutxitzea.
- Taldea egiten hastea.
- Ikasturteari buruzko informazioa ematea.
- Ikasle berrien kasuan ikastegiaren ezaugarri nagusiak bereganatzea.

**2.8.7.1.6.2.- Jarduerak (mailaz maila)**

- **BATXILERGO ETA HEZIKETA ZIKLOKO 1. MAILA ZUZENDARITZA TALDEAREN AGURRA 10etan**

- ❖ 10'00etatik 10'45era, (Gimnasioan). Zuzendariaren agurra eta zuzendaritzako kideen aurkezpena. Orientatzaile eta tutoreen aurkezpena.
- ❖ 10'50tik 12'00era, egokitzen zaizkien geletan.

a) Tutore eta ikasleen autoaurkezpena, gidoi baten bidez, banan bana. Jarduera honen helburuak:

▪ *Bere erara eta berak nahi duen zabaltasun eta sakontasunaz, ikasle bakoitzak, bere burua aurkezteko aukera ematea. Hortarako, errespetuzko giro bat, zensura, barre eta iruzkin negatiborik gabekoa, lortu eta mantentzen saiatu beharko gara.*

▪ *Izengoitiak ipintzen saihestea. Izena ez jakiteak erreztu egiten du ezaugarri fisikoei erreparatzea: altuera, loditasuna, ilearen kolorea, jatorrizko herriaren izena, e.a.*

▪ *Komunikazio arazoak detektatzea: jendearen aurrean hitzegiteko garaian blokeoak, hiztoteltasuna, datuak izkutatzea, ... Adi ibili beharko gara eta ez dugu inoiz ere bortxatuko inor hitzegitera.*

b) Institutuaren deskripzioa, (historia, berezitasunak, arau (fotokopiatu eta kontxoan jarri), eta ohiturak -hutesgiteak-, kontutan hartzeko xehetasunak, fotokopiak egiteko eta antzeko prozedurarik arruntenak, e.a., laburki). Ordutegi eta egutegia, tutoretza plana. Cicerone Programarentzako betebeharrak, .... Gelaren inbentarioa egiten hasi.

c) Agendaren banaketa eta beronen erabilera.

d) Egiten ari diren ikasketen deskripzioa. Ikasgaiak eta irakasleen zerrenda.

e) “*Nere, gure burua ezagutzen*” izeneko ariketa: fitxak bete eta laburpena egin.

❖ Ondoren, bisita gidatua institutuan zehar.

## • **BATXILERGO ETA HEZIKETA ZIKLOKO 2. MAILA ZUZENDARITZA TALDEAREN AGURRA 11etan**

11'00etatik 11'30ra, (Gimnasioan). Zuzendariaren agurra eta zuzendaritzako kideen aurkezpena. Orientatzaile eta tutoreen aurkezpena.

11'30tik 12'00era, egokitzen zaizkien geletan.

a) Tutore eta ikasleen autoaurkezpena

b) Egutegi, ordutegi eta agendaren banaketa.

c) Ikasturtearen ezaugarrien azalpena ( iraupena, e.a.)

d) Ikasleen zalantzak argitzeko eta iradokizunak jasotzeko txanda.

### **2.8.7.1.7.- BATXILERGOKO GURASOEKIN**

BATXILERGOKO 1. Mailako gurasoekin: ahalik eta garaizen egin beharko da eta honelako atalak izango ditu:

Zuzendaritzaren aurkezpena

Orientatzailearen eskuhartzea. Gaiak: Orientatzailearen aurkezpena eta beronen eginkizun eta zereginen azalpena. Etaparen ezaugarriak eta orientabide programa. Nola lagundu seme-alabak ikasten (“4 gurpilen teoria” eta etekinaren parabola azaldu). Web orrian aurki dezaketenaz hitzegin.

Tutoreen aurkezpena eta beraiekin saioa.

BATXILERGOKO 2 Mailako gurasoekin:

- Zuzendaritzaren aurkezpena
- Orientatzailearen eskuhartzea. Gaiak: Orientatzailearen aurkezpena eta beronen eginkizun eta zereginen azalpena. Mailaren ezaugarriak (denbora eta zailtasuna, gainditzeko baliabideak) eta orientabide programa.
- Tutoreen aurkezpena eta beraiekin saioa.

#### **2.8.7.1.8.- IRAKASLEAK BEREN IKASLEEKIN.**

##### **Lehen eguna**

- a) Irakaslearen agurra eta autoaurkezpena.
- b) Ikasgaiaren deskripzioa: programazioa eta ordutegia, e.a. (ahal den neurrian, idatziz banatzea erregutzen da: gai zerrenda, ebaluaketarako irizpideak, puntuazioa eta %ak, kontrol eta lanen pisua, ... Ez da derrigorrez lehenengo egun horretan izan behar).
- c) Lehenengo 15 egunetarako plangintza: ikasgaiaren oinarrizko prozeduretan trebatzea.
- d) Ikasleen eskaera eta iradokizunentzako txanda.

#### **2.8.7.1.9.- IRAKASLE BERRIENTZAKO HARRERA**

- a) Zuzendari eta Ikasketa Buruaren agurra eta dagokien Mintegi eta Departamentu Buruen aurkezpena. Gidaren banaketa.
- b) Institutuaren deskripzio laburra (eta planuaren azalpena), egitura eta ohiturak, AJA-ROFi buruzko aipamenak egiten zaizkielarik.
- c) Errutina eta prozeduren azalpena. Inprimaki eta beste paperen banaketa. Zalantzen argipena.
- d) Eraikinetatik bisita.

## **2.8.7.2.- TUTORETZA-EKINTZA EGITASMOA (PAT)**

**2.8.7.2.1.- SARRERA:** *Aurreko ikasturteko Memorian jasotako proposamenak:*

*DBH eta Batxilergoan*

- *Hurrengo ikasturterako proposatzen diren aldaketak:*

**2.8.7.2.2.- Plana kokatzen.**

Besteetan bezala, araututa dagoenetik abiatuko gara: ikasturte hasierako zirkularra eta AJA-ROF.

Ikasturte hasierako zirkularrak honela dio:

2.8.- *TUTORETZAK*

2.8.1 *Tutoreen izendapena.*

- *Ikastetxe guztietan taldeko tutore bat egon behar da. Tutorea, noski, talde horretako irakaslea izateaz gain, talde horrek dituen jakintzagai amankomunetako bateko irakaslea bada, hobeto.*

...

- *Tutoreen izendapena ikastetxeko Zuzendariak egin behar du, Ikasketa-Buruak proposatuta.*

2.8.2. *Tutoreen eginkizunak.*

- *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle-talde bakoitzeko irakasle tutorea gutxienez ziklo oso batean zehar izango da tutore. Edozein ikasle-taldeko tutorearen eginkizunak, bere ardurapean dituen arloak edo irakasgaiak irakasteaz gain, honako hauek izango dira:*

a) *Bere ikasle-taldeari egokitzen zaizkion irakasleak koordinatzea, bai programazio eta ebaluazioari dagokionean, bai irakatsi eta ikasteko prozesuan zehar ematen diren banakako nahiz orotako egoerak aztertzeke unean ere. Tutoreek ikasturtean zehar, ebaluazio-bileretatik kanpo, hiru bilera*

*bederen eduki behar dituzte bere taldeko irakasleekin. Tutoreak bilera hauen berri Ikasketa-Buruari emango dio eta bilera horien deialdia egingo du.*

*b) Irakasleak orientatzea, alderdi pertsonal, akademiko eta profesionaletan; beharrezkoa zaionean, ikastetxeko eta inguruetako orientazio-zerbitzuen laguntza jasoz.*

*c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa amaituta, eta irakasle-taldearen informazioa jaso ondoren, orientazio-aholkuak idatzi beharko ditu.*

*d) Irakasle eta hauen gurasoei eskolako jardueri buruzko informazioa ematea. Honek ez du kaltetuko, gurasoek zuzenean irakasleengana edo eta ikastetxeko gobernu organoetara jotzeko duten eskubidea. Ikastetxeak esango die familiei dagokien tutoreen asteko bisita-ordutegia.*

*e) Ebaluazio-bilerak koordinatzea, ikasleen notak ipini eta beraiei ematea, jakintzagaien estatistikak eta Ikasketa-Buruak eskatutako datuak eta bere tutoretza-lanari dagozkion ikasleen dokumentazioa betetzea.*

*f) Eginkizun hauek ezarritik edo garatuz ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera Araudiak (AJA-ROF) esleitzen dizkion gainontzekoak.*

### *2.8.3 Hutsegiteen kontrola*

*...*

*- Tutorearen ardurapean dago ikasleen hutsegiteez arduratzea.*

*...*

### *2.8.4 Familiekiko bilerak*

*- Ikastetxeak familiekiko informazio-bilerak antolatuko beharko ditu, eta bideak jarriko ditu ikasleen gurasoek bertan parte har dezaten. Orobat, irakasleak, tutoreak eta tutoreak ez direnak ere hara azaltzeko ahaleginak egingo ditu ikastetxeak.*

*...*

### *2.8.5 Batxilergoko taldeen tutoretzaren antolaketa.*

*Batxilergoko ikasleen ordutegia 31 ordukoa da ikasturte bakoitzean. 31 ordu horiek honela banatuko dira: astean 4 egunetan 6 orduz emango dira klaseak eta, aurrez zehaztutako asteko egun batean, 7 orduz emango dira.*

*Klaseak 6 orduz ematen diren egunetan, klase guztiek nahitaez 60 minututako iraupena izango dute. 7 klase ematen diren egunetan, klaseek 50 minututako iraupena izango dute gutxienez.*

*Zuzendaritza-taldeak ikasleen ordutegian beste ordubete gehitzea erabaki dezake, irakasleak bere ikasleekin zuzeneko tutoretza-lanak egin ditzan. Antolaketarekin loturiko arrazoiak direla medio, aukera hori egitea erabakiz gero, ikastetxeko Batxilergoko bi kurtsoetako talde guztiei aplikatu beharko zaie. Erabaki hori honela aplikatu beharko da:*

*Tutoretza-lan hori egiteko asteko egun jakin bat zehaztuko da eta, horretarako, klaseak 6 orduz ematen diren egun bat hautatuko da. Egun horretako ordutegia 7 klase emateko moldatuko da, eskola-saio guztiak 50 minutukoak gutxienez izango direlarik; klase horietako bat tutoretza-ordua izango litzateke eta inoiz ez da izango ikasleen ordutegiko lehen edo azken ordua.*

*DBH eta DBHO irakasten dituzten ikastetxeek, bi etapetako ordutegiak koordinatu ahal izateko zenbait klaseren iraupena murriztu beharrean baldin badaude, klase-jardunen iraupena 55 minutuko izateko hautua egin ahal izango dute, ikasturte osoan eta klase guztietan, goizeko jarduna dagoenean, ekaineko eta iraileko egunak barnean hartuta, zein goiz eta arratsaldeko jardunetako egunetan. Beste edozein egoeratan ez da onartuko klaseetako iraupena 55 minututakoa izatea.*

*Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira, astean zenbait arratsalde libre izanik ere, edo klaseetako iraupena edozein izanik ere, tokian tokiko curriculumetan aurreikusitako diren irakaskuntzako jardun guztiak bete daitezzen, baita ekainean eta irailean ere.*

*Zuzendaritza-taldeak tutoretza-lana aipatu berri dugun eran egin beharrean beste era batera egingo duela erabaki dezake, esate baterako:*

*a) Ikastetxeko orientatzaileak ikasleen ordutegi normalaren barruan Batxilergoko talde guztiekin bilerak egiteko egutegia finkatuko du.*

*b) Irakasle tutoreak talde horri eman beharreko bere ikastorduen barruan egingo du tutoretza.*

*c) Ikastetxeko ikasleen beharrei erantzuten dien beste edozein sistema ere erabili ahal izango da.*

*Kasu horietan ezingo da tutoretza-ordurik kontabilizatu irakasle tutorearen ikastorduen barruan.”*

AJA-ROF:

### TUTOREEN BETEBEHAR OROKORRAK

a) Bere taldearen irakasle-taldea koordinatu, programazioetan eta ebaluazioan, eta ikaste prozesuan sortutako bakarka eta taldekako egoeren azterketan. Tutoreak, ebaluaketa bilerez gain, ikasturtean zehar hiru bilera izango ditu bere irakasle-taldearekin.

b) Ikaslea orientatu bakarka eta taldeka pertsona arloan, akademikoan eta lanbide arloan, Orixeko Orientabide Departamentua eta Berritzegunearen laguntzaz.

c) Aholku orientatzailea idatzi. Aholku hau DBHko 4. maila bukatzen dutenei eta baita 16 urte dituztelarik DBH bukatu gabe ikasketa hauek uzten dituztenei ere.

d) Ikasleari eta bere gurasoei informazioa eman bere eskola jardunari dagozkion arlo guztietaz.

e) Ebaluazio bilerak koordinatu. Era berean Ikas Burutzak eskatutako estatistikak eta datoak, eta tutoretzari dagozkion ikas-dokumentuak bete.

f) Taldearen hutsegiteen jarraipena egin, eta Zuzendaritzak ezarritako epean familiari jakinarazi.

Tutoreak eginkizun hauek betetzeko honelako baliabideak ditu:

- **TUTORETZA ORDUA IKASLEEKIN**
- **TUTORE BILERAK**
- **ELKARRIZKETAK IKASLEEKIN**
- **ELKARRIZKETAK GURASOEKIN**

DBHn

Tutoreak, ikasturtean zehar, orientabideko hiru arloak landuko ditu, bere tutoretza- gelako ikasleekin, bai bakarka bai taldeka:

⇒ **IKASTE ORIENTABIDEA:** *hau ikasleei laguntza eskeintzea da etxeko lana era egokian egiteko, arlo guztietako eginbeharrak ondo antolatzeko, lehenetsunak jartzen jakiteko, e.a.*



⇒ **PERTSONA ORIENTABIDEA:** (batez ere DBHn landuko da) gure ikaslea pertsona bezala garatzen ari da arlo askotan: giza-harremanetan, autoestiman, norberezagutzan, komunikazio ahalmenean, e.a., eta guk lagundu behar diogu.

⇒ **LANBIDE ORIENTABIDEA:** ikasleak bere gaitasunak ezagutu behar ditu, eta lan-mundura ondo prestatu iristeko, aurrean dituen formakuntza-bideak ezagutu behar ditu. Erabakiak hartzen jakitea ere ezinbestekoa du.

## TUTORETZA ORDUA IKASLEEKIN.

### DBHko 2 zikloetan, astero

⇒ Ordu horietan Tutoretza Egitasmoan dauden gaiak landuko ditu tutoreak: gai batzuk maila guztietan lantzen dira (era desberdinez), beste gai batzuk mailaren arabera ezberdinak dira.

⇒ Talde eta tutore guztiak desberdinak izanik, egokia da zenbait tutoretza-ordutan, maila bereko tutoreek gai desberdinak jorratzea, baina Tutoretza Egitasmoan programaturikoa alde batera utzi gabe (gai nagusiak behintzat)

⇒ Tutoreak taldearekin duen asteroko/hamabosteroko denbora banatzerakoan malgutasuna egokia da, eta tutoretza-ordua egun/ordu desberdinetan egin daiteke ikasturtean zehar, aldaketak egiten, arloari eta tutoretzari komeni bazeaie.

⇒ Tutoretza-ordua tutore eta ikasleentzat baliabide nahiko berria izanik, oso lagungarria da tutoreak taldearekiko duen exigentzi maila inportantea izatea hasiera-hasieratik: lehenengo egunean, ikasleei tutoretza-orduaren helburuak, gaiak eta metodologia garbi jartzen badizkiegu, eta era berean partehartze egokia eskatzen badiegu, taldearen erantzuna askoz hobea izango da eta askoz aukera gehiago izango dugu aurrerago malgutasun gehiagorekin jokatzeko, edota batzutan ikasleen proposamenei jaramon egiteko.

⇒ Ikasturtean zehar denbora dago programaturikoaz gain, ikasleen proposamenak ere gauzatzeko tutoretza-orduetan. Ikasleen proposamenak onartzeko bi baldintza dira komenigarriak:

- proposaturiko gaiak/ekintzak tutoretzaren helburuekin nolabaiteko zerikusia izatea
- Ikasleek gaien prestaketan laguntzea

⇒ Aurreko ikasturteetako esperientzia ikusirik, ez da komenigarria gai berberarekin bi aste baino gehiago pasatzea (salbuespenak egon daitezke, Lanbide Orientabidean esate baterako) aspertzen hasten direlako.

⇒ Ahal den neurrian metodologia desberdinak erabiltzea komeni da tutoretza-orduan. Askotan arloetan erabili ezin ditugun metodologia ludikoagoak hemen erabil ditzakegu: role-playing, talde dinamikak, bideoak, talde-lana,...

DBHko maila guztiekin ondorengo gaiak landuko ditugu horrelako orduetan:

➤ Harrera Egunari dagozkion ekintzak: elkar ezagutzeko teknikak, ikasturtearen aurkezpena, irakasleen aurkezpena, e.a.

- Ikaslearen Fitxa bete
- Arauak landu: ikastetxeak, jangelakoak eta gelakoak
- Azaldu ikasleei ikasturtean zehar tutoretza orduan zer egingo duten eta helburuak zientzuk diren.
- Delegatuaren funtzioak. Delegatuaren hautaketa.
- Gelakoen arteko bizikidetzaz aztertu eta hobetzeko era landu: errespetoa, tratatu txarra zer den, horrelakoetan nola jokatu, ...
- Ikasleen kokapena gelan.
- Gelako arduren banaketa.
- Ajendaren erabilpena.
- Hiruhilabeteen ebaluazioa: emaitza akademikoak, harremanak, begirunea, lan-giroa, ...

### **2.8.7.2.3.- Tutoretzan lantzeko gaiak, mailaz maila**

#### **2.8.7.2.3.1.- DBHko 1. MAILA**

##### 1. HIRUHILABETEA

- "Nire ikaskideak ezagutzen", "La tarjeta de visita que encontró el detective" eta "Juego de los nombres y valores" talde dinamiken bidez elkar ezagutza landu
- Narbarteko albergera egin beharreko hiru egunetako irteera prestatu.
- "Ni gela honetan" talde kohesioa eta komunikazioa hobetzeko. Tutoreekin "elkarren arteko tratatu txarrak" detektatzeko protokoloa landu.
- El foco" talde-dinamikaren bidez autoestima landu
- Ikas ohiturak: etxeko lanari buruzko material idatzia. Taldeka galdera batzuk erantzun. Hiruhilabetearen bukaeran ikaslearen autoebaluaketa ikas ohiturei buruz.
- "Mi amigo secreto" talde-dinamikaren bidez autoestima landu
- "Mi último año de vida" talde dinamikaren bidez talde-kohesioa eta elkar-ezagupena haunditu.
- "Hacemos teatro" antzezpenak (besteak beste, gatazkak nola gainditu landu).
- "Nire oina" talde dinamika landu.
- Soziograma

##### 2. HIRUHILABETEA

- DBHren helburuak: Graduatuaren garrantzia eta Lan-mundua.
- Pubertaroa: aldaketa fisiologikoak. Sexualitatea
- "Herentzia" talde dinamika erabili talde lana lantzeko.
- Martxoaren 8a: nola banatzen ditugu etxeko zereginak ?
- Arrazakeria eta berdintasuna: "Euskaldunak Ameriketara", "Migrazioak gure familietan" eta SOS Arrazakeria taldeak antolatutako tailerra
- "El espejo mágico" talde-dinamikaren bidez autoestima landu

##### 3. HIRUHILABETEA

- Irudi fisikoa eta autoestima: nire saioak (1.a eta 2.a + Ausoniaren materialeko 12-13-14-15 Orriak)

- Drogomenpeketasunen prebentziorako saioak.
- "Los cuadrados" talde dinamika.
- "Un día más" izeneko bideoaren bitartez bizikidetza landu

### **2.8.7.2.3.2.- DBHko 2. MAILA**

#### 1. HIRUHILABETEA

- "Círculos dobles" eta "Me llamo ..." teknikak elkarrezagutzarako
- Ikas ohiturak: dituzten ohiturak aztertu, azterketak nola prestatu eta burutu,...
- ""Zurrumurrua" teknika erabiliz komunikazioa landu
- "Irudien jolasa" talde lana eta elkartasuna lantzeko
- "Itsua eta itsumutila" elkartasuna landu: Tutoreekin "elkarren arteko tratu txarrak" detektatzeko protokoloa landu.
- "Entzutea-erantzutea" teknika komunikazioa lantzeko: "Aneren erabakia" teknika, elkartasuna eta elkarrizketaren balioa lantzeko.

#### 2. HIRUHILABETEA

- Ikasketa-lanbide orientabidea garatu
- Gizarte trebetasunak: azalpen orokorra, galdera-sorta, "Role-Playing" teknika: mezuak beste pertsoneri nola egokitu (4. jarduera)
- "Nire deskribapena" materiala erabili norberaren ezagutza haunditzeko.
- Drogomenpeketasunen prebentziorako saioak.
- "Zuhaitza" talde dinamika erabili autoestima eta talde kohesioa lantzeko.
- Arrazakeria eta elkartasuna: "Nolakoa gara? Aurreritziak" eta "Irudika ezazu desfile luze bat"
- "Zer da nerabezaroa?" (1. zatia) (aldaketa psikologikoak)

#### 3. HIRUHILABETEA

- Talde presioa landu (bideoa erabiliz)
- 3. mailako aukerakoak
- "Preparando una fiesta" talde dinamika talde lanari buruz
- Martxoaren 8a.: emakumea eta lan-mundua
- "Zirkoaren arazoa" eta "Ilargian galduta" talde dinamikak talde lanari buruz
- "Katua eta sagua" teknika, elkartasuna lantzeko
- Barnetegira egin beharreko hiru egunetako irteera prestatu.
- "Ispiluaren aurrean" (irudi fisikoa)
- "Zer da nerabezaroa?" (2. zatia) (aldaketa afektibo-sozialak)

### **2.8.7.2.3.3.- DBHko 3. MAILA**

#### 1. HIRUHILABETEA

- Ikasteko motibazioa.
- Ikas Ohiturak: Tutorentzako gida.Galdera-sortak. Ikasleentzako orria: nola hobetu oroimena
- "Nire perzeptzioak" talde dinamika kohesioa lantzeko
- "8 emakumeen arazoa" talde dinamika talde lanari buruz
- "Irudiak kopiatzen" teknika erabili komunikazioa lantzeko

- Gizarte trebetasunak

## 2. ETA 3. HIRUHILABETEA

- Saio desberdinetan Ikasketa-lanbide orientabidea landu

### 2.8.7.2.3.4.- DBHko 4. MAILA

#### 1. HIRUHILABETEA

- Fitxa betetzea.
- Ikasteko ohiturak: galdera sorta

#### 1., 2. ETA 3. HIRUHILABETEA

- Ikasketa-lanbide orientabidearen atalean isladatzen dena

### 2.8.7.2.3.5.- BATXILERGOAN

Batxilergoan, tutoreak, ikasturtean zehar, orientabideko bi arloak landuko ditu, bere tutoretza-gelako ikasleekin, bai bakarka bai taldeka: Ikaste orientabidea eta orientabide pertsonala. Ikasketa-lanbiderako orientabidea orientatzailearen eskutan geratzen da.

#### BATXILERGOKO 1. MAILA:

Gaiak

- Harrera eguna (ikus gidoia, berezko programan)
- Harrera II (fitxak eta hitzarmena)
- Delegatuak: gogoeta (ariketa)
- Delegatuak: Hautaketa.
- Tutoretzan lantzeko gaien aukeraketa
- Arazo puntualak edota gai librea (ikasleekin negoziatzeko)
- Azterketei aurre egiten I (prozedurak)
- Azterketei aurre egiten II (emozioen kontrola)
- Ebaluaketen aurretiko bilerak
- Ebaluaketen ondorengo bilerak
- Aurrematrikula

#### BATXILERGOKO 2. MAILA:

Gaiak:

- Harreraren eguna
- Delegatuak: gogoeta eta hautaketa
- Tutoretzan lantzeko gaien aukeraketa
- Arazo puntualak edota gai librea (ikasleekin negoziatzeko)
- Ebaluaketen aurretiko bilerak
- Ebaluaketen ondorengo bilerak

### 2.8.7.2.3.6.- TUTOREEN BILERAK

Aldez aurretik finkatutako bilera hauetan akta jasotzen saiatuko gara. Honela, gauzak egiteko kultura bat lantzeaz gain, Planaren ebaluaketarako tresna bikainak izango ditugu.

DBHn

Mailaka egingo dira astero orientatzailearekin. Bigarren zikloko bileretan DBHko koordinatzaileak parte hartuko du, antolaketa eta disziplinari dagozkien gaiak lantzeko.

Helburuak:

- Maila bereko taldeen egoera eta beharrak aztertzea (premiazkoa bada, ikasle batenak).
- Asteroko ikasleekiko tutoretza-ordua prestatzea: gaia, materialak, metodologia.
- Gurasoekiko bilerak prestatzea
- Bilera hauetan sorturiko beharrak, proposamenak, e.a. orientatzaileak zuzendariari edota Batzorde Pedagogikoari luzatzea.
- Tutoreok eta orientatzailea prozesu batetan gaudela konturatzea eta pausoak ematen joatea: ikasle eta taldeen beharrak identifikatuz, ekintza eta gai berriak jorratuz, programazioak zehaztuaz, e.a.
- Ondorioz tutore eta orientatzailearentzat bilera hauek prestakuntza funtzioa betetzea.

Orientatzailearen ardura izango da tutoreei proposamen desberdinak luzatzea (gaiak, metodologiak, materialak,...) tutoretza-orduetarako, eta denon artean erabakiko dugu zein den egokiena taldeen egoera eta beharren arabera.

**BATXILERGOAN.**

Bi motatakoak izango dira:

Hilean behin, tutore guztiak orientatzaile eta ikasketa buruarekin bilduko dira ondorengo helburuekin:

- maila bereko taldeen egoera eta beharrak aztertzea ( inoiz ez ikasle batenak)
- ikasleekin egin beharreko tutoretza orduak prestatzea eta egin ondoren ebaluatzea.
- gurasoekiko bilerak prestatzea
- bilera hauetan sorturiko beharrak, proposamenak, e.a orientatzaileak zuzendaritzari edota Pedagogi Batzordeari luzatzea.
- ebaluaketa bilerak prestatzea

Gainontzeko asteetan orientatzailea txandaka elkartuko da, ordu horretan, tutoreekin banaka, ikasketa burua ere egongo delarik, ondorengo helburuekin:

➤ ikasle arazodunen egoera aztertzea (jokabide arazoak zein akademikoak) eman beharreko pausoak erabakitzeke (tutoreak edota orientatzaileak elkarriketa izatea ikaslearekin, gurasoekin,...)

➤ bere taldeko ikasleen Ikas-Lanbide Orientabidea aztertzea: hurrengo ikasturteko ikasketak, gustoko ikasketak eta abar.

### **2.8.7.2.3.7.- ELKARRIZKETAK IKASLEEKIN**

#### **DBHn (ikasle guztiekin)**

Oso eraginkorra da ikaslearentzat bere tutorearekin aurrez-aurre, nolabaiteko patxararekin, 10 minutuz baino gehiago ez bada ere, elkarriketatzea. Tutoreak horretarako denbora berezirik ez izan arren, hau gaintzeko formula desberdinak saiaturiko dira. Beharrak eta baliabideak ikusita, institutuak programaturikoa hau da: DBHko tutoreek bere gelako ikasleekin bi elkarriketatxo izatea bakarka ikasturtean zehar, adibidez, bata urtarrilean eta bestea Aste Santuaren ondoren.

Helburuak:

➤ Irakasleek ikaslearen ikasketa prozesuari buruz dituzten iritziak ikasleari itzultzea

➤ Tutoreak jasotzea, ikasleak bere ikasketa prozesuari buruz dituen iritziak, beharrak, e.a.

➤ Ikasleak Lanbide Orientabidearen barruan dituen interesak eta asmoak ezagutzea.

➤ Animatzea eta bere motibazioa haunditzea

NOLA GAUZATU:

➤ orientatzaileak gai-gida bat emango die tutoreei  
➤ tutorea eta ikaslea bakarrik egongo dira (ez gelakideen aurrean)  
➤ tutoreak edota orientatzaileak komenigarria ikusten dutenean, orientatzaileak ere ikasleekin bakarkako elkarriketa izango du.

NOIZ:

➤ urtarrilean eta apirila/maiatzean  
➤ erabili daitezkeen orduak: gurasoekin biltzeko ordua, zaintzak ez bada inor falta, ikasleekiko tutoretza-ordua (bi baino ez da komeni ebaluazio bakoitzean)

#### **BATXILERGOAN**

Alde batetik ikasleek duten adina eta, beste aldetik, tutoreek eramaten duten dinamika dira, hain zuzen, elkarriketak oztopatzeko eragilerik nagusienak. Dena dela, kasu puntualetan, hots, ikasketetan gaizki ibiltzeagatik, edota krisi pertsonal baten aurrean, eta abarretan, tutore bakoitza saiaturiko da ikasle horiekin elkarriketatzen. Hortarako, orientatzaileak tutoreak prestatuko ditu.

Beste unetaz gain, Orientatzailearen saioetan tutoreek ikasleak banaka atenditzeko aukera izango dute.

## 2. MAILAKO IKASLEEKIN LANDU BEHARREKOAK:

- asignatura pendienteei lehenetasuna ematea
- ondorengo ikasketetan sartzeko zernolako garrantzia du batzbesteko notak.

- kurtso osoa ez duten ikasleak

Ikasleek orientatzailearekin elkarrizketak: NOIZ eta NOLA

Jolasgaraian edozein ikasle joan daiteke orientatzailearengana, bai banaka, bai taldeka, inolako zitarik gabe. Beste kasutan, normalki, tutore eta orientatzaileak negoziatuko dute noiz eta zertarako izan behar diren elkarrizketa horiek.

Beharra izanez gero, ordua finkatuko da eta tutoreak, bera ez bada izan proposatu duena, behintzat, honen berri beti izango du. Agendan ipiniko dira zita horiek eta orientatzaileak ondoan sinatuko du. Honela zihurtatuko da berarekin egon direla eta justifikatutako hutsegite bezala onartuko zaie.

### 2.8.7.2.3.8.- GURASOEKIN

DBHn

Irailaren erdialdean 1. mailan eta urriaren hasieran bestelako mailetan, gelaka, guraso bilerak izango dira. Harrera programan ikus daitezke data horiek.

Helburuak:

- ❖ Institutua eta ikasturtea aurkeztu, zenbait arauen berri eta eskolaz kanpoko ekintzen berri ematea.

BAKARKAKO ELKARRIZKETAK: ikasleekin bezala gurasoei banan-banan tutoreak deituko die lehenengo eta azken ebaluazioen ondoren ikaslearen prozesuari buruz informazioa emateko, gurasoengandik informazioa jasotzeko eta orientabideak gurasoei emateko.

4. mailan, bigarren elkarrizketa ekainean izango da Aholku Orientatzailea eman ahal izateko.

- 3. eta 4. mailako gurasoek bilera bat izango dute orientatzailearekin 2. hiru hilabetean, Lanbide Orientabideari buruzko informazioa emateko.

- HORDAGO Drogomenpekotasunen Prebentziorako Programa eta Sexo Heziketa programetan parte hartzen duten taldeetako gurasoek bilera bana izango dute ikasturtean zehar orientatzaileak antolatuta.

## BATXILERGOAN. GURASOEKIKO HARREMANAK

### 1.- TUTOREAREKIN

Harrera programan azaltzen den gurasoekin bilera berak, tutoreak beraiekin lehenengo kontaktua izateko balio dezake, honako helburu hauek ere izango ditularik:

institutua eta ikasturtea aurkeztea, zenbait arauen berri ematea, eskolaz kanpoko ekintzen berri ematea, eta abar.

- Ikasturtean zehar, tutoreak ordu bat jarriko du bere ordutegian gurasoek noiz etorri jakin dezaten.
- **Tutoreak 1. ebaluazioaren ondoren guraso guztiei deituko die. 2 baino suspentso gehiago dituztenei Institutura etortzen behartuko zaie. Errepikatzaieleen kasuan, nahikoa da suspentso bat. Beste guztiei nahikoa da telefonoz deitzea.**

Helburuak:

1. ebaluazioan izandako emaitzen berri ematea: notak, taldean duen integrazioa, hutsegiteak,...

guraso guztiekin gutxienezko harremana izatea

2.- ORIENTATZAILEAREKIN:

1. mailako gurasoek 4 hitzaldi izango dituzte.

2. mailako gurasoek urriko bileran izango dira orientatzailearekin, eta ikasturte amaieran, apirila edo maiatzean, irteerei buruzko beste hitzaldi bat ere izango dute..

Honetaz gain, edozein unetan zita bat finkatu daiteke banan banako elkarrizketak izateko.

Aurreko ikasturteetan izandako eskarmentu arrakastatsuari jarraituz, bigarrenko hiruhilabetean, arratsaldeko 6'00tik 8'00etara, goizetan etor ezin daitezkeen gurasoek orientatzailearekin egoteko aukera izango dute. Hortarako, deitu eta ordua eskatu beharko dute.



## **2.8.7.3.- IKASKETA-LANBIDERA KO ORIENTABIDE PROGRAMAK**

### **2.8.7.3.1.- Sarrera.**

- Aurreko ikasturterako programetan oinarrizten da eta hurrengo ikasturterako proposamenak, bai DBHn eta bai Batxilergoan, jasoko ditu.
- Lanbide Heziketako Erakusketa ospatzen den ikasturtean aipamen berezia egingo da eta bertara joateko antolaketa iruzko irizpideak jasoko dira hemen.

### **2.8.7.3.2.- TUTORETZAN LANTZEKO IKASKETA-LANBIDERA KO GAIK MAILAZ MAILA**

#### **2.8.7.3.2.1.- DBHn.**

- a) 1. zikloan, tutore bakoitzak ikasturtean zehar bere taldeari dagokion "Portafolios" delako artxibategia jaso eta erabiliko du.
- b) 2. zikloan, tutoreak eta orientatzaileak erabiliko dituztenez, DBHko zaintza gelan egongo dira.

##### 2.8.7.3.2.1.1.- DBHko 1. Zikloa:

Bizpahiru saio izango dira maila bakoitzean eta horietatik bitan tutoreak orientatzaileen laguntza izango du gela barruan.

DBH 1. maila:

- Hezkuntz sistema: Graduatua eta lan mundua

DBH 2. maila:

- Hezkuntz sistema aurkeztu, DBHko Graduatua garrantzia azpimarratuz
- Lan munduko kualifikazio mailak landu.
- Ikasleen espektatibak.
- "Ezagut itzazu zure zaletasunak" galdera-sorta

##### 2.8.7.3.2.1.2.- DBH 3:

- Lanbide-ikasketa orientabide plana aurkeztu
- "Lanbideen fitxategia"
- "Erabakiak hartzen" materiala: *estudio de un caso* teknika.
- Lanbide-ikasketa orientabidea: "Elijo" izeneko programaren galdesortak: interesak, lanbide arloak, baloreak, eta abar.
- Orientatzailearen saioak taldeetan: hezkuntz sistema, ikasketa bakoitzaren ezaugarriak, 4.mailako hautazkoak eta aukerakoak eta abar ...
- Lan eskeintzak prentsan
- Liburutegira eraman hango materiala ikustera eta erabiltzera
- Hautazkoak eta aukerakoak hautatu.
- Lanbideak eta generoa: Emakundearen bideoa (4. zatia): emakumezkoak "gizonezkoen" lanbideetan (fotokopiak)
- Heziketa Zikloen familiei buruzko bideoa ikusi.

#### 2.8.7.3.2.1.3.- DBH 4

Orientatzaileak, urtarriletik martxora banakako elkarrizketa izango du ikasle bakoitzarekin.

- HEZI-ICE (MIDE): Bartzelonako Unibertsitateak egindako materiala.
- Erabaki hartzearen prozesua. Hausnarketa
- Taldeka "Gertu ditudan ikasketak" fitxa bete (liburutegian, bertako materiala erabiliaz)
- Nere burua ezagutzen: nortasuna, ahalmenak, interesak.
- Gabilondoren bideoak eta DVDak ikusi.
- Lan mundua ezagutzen: Prentsa, INEM, enpresariak eskatzen duten profila, langabeziaren kopuruak ikasketa eta lanbide desberdinetan, ...
- Hezkuntz sistema ezagutzen: Orixen bertan egindako txostena erabiliz, orientatzaileak hiru saio egingo ditu talde bakoitzarekin (martxoan).
- Erdi Mailako zikloak eta Lanbide Hastapena: bisitak.
- Lana aurkitzeko elkarrizketak

#### 2.8.7.3.2.1.4.- Gurasoekin lana.

##### a) Hitzaldiak

3. eta 4. mailatan orientatzaileak eman da hitzaldi bana: 3. mailan, 4. mailako ikasketei buruz eta 4. ean, DBHren ondorengo ikasketei buruz.

b) Ikasturte hasierako guraso bilera orokorrean, orientatzaileak gai honi dagozkion hainbat alderdi landuko ditu.

c) Ikasturtean zehar tutoreekin egiten diren bakarkako elkarrizketetan, gai honi eta bereziki espektatiba egokien esparruari, garrantzi berezia emango zaie. Laugarren mailan, maiatza baino lehenago, familia guztiei aukera emango zaie lanbide orientabiderako elkarrizteka bat tutore eta orientatzailearekin izateko.

### 2.8.7.3.2.2.- BATXILERGOAN

#### 2.8.7.3.2.2.1.- BATXILERGOKO 1. MAILA

Finkatutako egunetan jarraian isladatzen diren gaiak landuko dira. Horretaz gain, Batxilergoa gainditzeko oztopo handiak dituztenekin, erdi mailako zikloak ematen dituzten ikastetxeetarako bisitak antolatuko dira (DBHkoekin batera).

Joan diren ikasturteetan prestatu eta pasa genituen beste testak (F faktorea, mekanika eta marrazketarena), modalitateen arabera pasatzen jarraituko dugu.).

Orientatzaileak gela-taldeka garatuko du bere lana, orain arte tratatu diren gaiekin jarraituz:

Gaiak:

- 1. mailarako ikasketa-lanbiderako programaren aurkeztu eta adostea (talde bakoitzari dagozkion gai bereziak eta egokitzapenak)
- Nere burua ezagutzen:** motibazioa orokorra eta ikasteko arrazoiak
- Nere burua ezagutzen:** baloreak
- Nere burua ezagutzen:** nortasuna (galde-sortak eta psikograma)
- Nere burua ezagutzen:** ahalmenak (f faktorea, mekanika testa, arrazonamendu logikoa, espazio-adimena eta pentsamendu adimentsua)
- Nere burua ezagutzen:** lanbide hobespenak (interes profesionalak, galde-sorta)
- Test eta galde-sorten emaitzak eta iruzkinak
- Hezkuntz sistema ezagutzen,** Batxilergoa: Egitura (maila eta urteak). Ikasgaiak (komunak, modalitatazkoak, hautazkoak) Titulua lortzeko baldintzak. Modalitatez aldatzeko ahalbideak, etab.
- Hezkuntz sistema ezagutzen:** Unibertsitatea. Zer da eta zer ez den (deskripzioa). Sartzeko bideak (hartutako modalitateko asigaturen arabera hauta-probak egin daitezken gainbegiraturaz)
- Hezkuntz sistema ezagutzen:** Lanbide Heziketa eta Heziketa Zikloak (erdi eta goi mailakoak). Non ematen dira, sartzeko lehentasuna eta gomendioak
- Hezkuntz sistema ezagutzen:** beste ikasketak
- Lan mundua ezagutzen:** lan sektoretan ikus daitezken enplegu-tendentziak
- Ariketa: simulazioa
- Aurrematrikula

#### 2.8.7.3.2.2.2.- BATXILERGOKO 2. MAILA

*Maila honetan ere, orientatzaileak gela-taldeka garatuko du bere lana.*

A) Ikasleekin. Beste ikasturtetan bezala, honelako ideia eta asmoarekin jarraitzen dugu.

- Lanbide-ikasketa orientabidearen helburu nagusia, ikasleak erabaki hartze zuzen batek beraietzako duen garrantziaz jabetzea da. Beste helburu zehatzagoak hauexek dira:
  - Erabaki hartzeak dituen alderdi guztiei buruzko informazioa ematea.
  - Prozesu hori igarotzen ikaslea laguntzen duten lanabesak ematea, Internetek dituen ahalbidez jabetzen delarik.

- Profesionaltasun maila desberdinei buruzko informazio ematea, erakartzen duten lanbideak hobeto koka ditzan eta, prestakuntza aldetik, bakoitzak eskatzen duenaz jabe dadin.
- Titulu ofizialak diren ala ez bereizteko informazioa ematea.
- Unibertsitateko bizitzaren alderdi akademiko eta administratiboei buruzko informazioa ematea. Honen bidez, Irakaskuntza Ertainak eta Unibertsitatearen artean dauden ezberdintasunez jabetu eta horren arabera jokatu.
- EHU-UPVk argirataratzen duen liburu-gidan oinarriturik, unibertsitatean sartzeko betebeharrak eta prozedurei buruzko informazioa eman eta informazioa bilatzen laguntzea: hauta-frogaz, sartzeko notetaz, izenemate eta matrikulaz.
- Interneten bidez egin beharreko izenematea gauzatu ahal izateko ikasleak informatikan trebatzea.
- Era berean, unibertsitateetatik kanpo dauden beste irteerei buruzko informazioa eman, sartzeko behar diren pausoetatik jabetu dadin, batez ere Interneten bidez..
- Ikasleak, institutu honek, bai EHU-UPV, eta bai beste Unibertsitate eta Prestakuntz Guneei buruz, duen informazioa lortzeko baliabideak jakinaren gainean ipintzea.

Gaiak:

- 2. mailarako ikasketa-lanbiderako programaren aurkeztu eta adostea. Orientabide txokoen funtzionamendua. Ikasketa-lanbiderako informazio tresnak maneiatzen ikastea
- Profesionaltasun mailak. Titulazio motak: ofizialak (katalogoa), berezkoak, pribatuak eta besteak. Datorren Unibertsitate Berria (kreditu europarrak)
- Informazioa interneten bidez I (EHU eta beste unibertsitateak)
- Lanbide Heziketa eta Goi-mailako Heziketa-Zikloak. Informazioa interneten bidez II (Lanbidez -Lhdata- eta Langai -Lanbide.net-)
- Informazioa interneten bidez III (e-magister, DICES, eta besteak)
- Unibertsitate sartzeko gida eta SELEKTIBITATEA
- Aurrematrikularentzako prozedurak, azalpenak, ...
- Aurrematrikulak interneten bidez gauzatzea
- Unibertsitate pribatuak I: Navarra, Mondragon eta Deustu.
- Unibertsitate pribatuak II (Espainia mailan)
- Goi-mailako Heziketa-Zikloak II eta bisiten antolaketa
- Beste ikasketak
- BISITAK: Donostiako Campusa (arratsaldean), Bilbo-Leioa eta Gasteiz (goizez). Bilboko L. H. Azoka (egun osoan). Tolosaldea GBLHI (goizez). Beste Lhko ikastetxeak arratsaldean (“ate irekiak”). **Goi-mailako Heziketa-Zikloak eskeintzen dituzten institutu eta ikastetxe pribatuetarako bisitak, “ate irekiak” izeneko jardunaldietan izango dira.**

*Ikasleek Campus ezberdinetarako bisitetan parte hartzeko irizpide berberak mantentzen dira:*

- A) Batxilergoko modalitatearen arabera egingo dira beti.
- B) Hasiera batean, 3 suspentso baino gehiago dutenek (errekuperaketak barne direlarik) ezingo dute parte hartu bidai horietan

*C) Ordainketa aldez aurretik egingo da*

*D) Bere kontura joaten direnean, ekarri beharko dituzte beren bus edota trenen txartelak, alde batetik hutsegitea justifikatzeko eta, bestetik, kobratu ahal izateko egokitzen zaiena.*

*E) Autobusak antolatzeko gutxienezko kopurua, 25 ikasleena izango da.*

## B.- Familiekin. Bi hitzaldi

### b.1) Gurasoen eskolaren barnean “Nola lagundu aukeratzen”

Hitzaldi hau martxoaren hasieran izango da. Helburu nagusia, familiei erabaki hartzearen prozesuaren berri ematea da. Honela, beren seme-alabak dauden uneaz eta zertan lagundu ditzaketen jabetuko dira, hartuko duten erabakia errespetatzen saiatzen direlarik. Helburu bezala erabaki hartzearen prozesua ebaluatzen jakitea da, baita erabaki horiek ondo hartu izan badira, errespetatzen ikastea ere. Aldiz, gaizki erabaki badute, guraso bezala zertan hanka sartu duten erakustea dela bere papera, ez inposatzea.

### b.2) “Irteerei buruzko hitzaldia”.

Apirilaren bukaeran edo Maiatzaren hasieran egingo dugu eta helburu hauekin:

- ❖ Profesionaltasun maila desberdinei buruzko informazioa ematea, beren seme-alabak erakartzen dituzten lanbideak hobeto koka ditzaten.
- ❖ Batxilergoa amaitzerakoan beren seme-alabek izan ditzaketen irteerei buruzko zalantzak argitzen saiatzea.

C.- Unibertsitatean dauden Orixeko ikasle-ohiekin topaketak. Aurreko ikasturtetan ospatu ezin arren, aurten saiatuko gara berriro egiten. Saio honekin ikasle-ohiek Unibertsitatea nola bizitzen dutenez gain, karrera ezberdinei buruzko informazio ematea lortu nahi dugu. Hezkuntz Zikloetan daudenekin, apirilaren inguruan egingo da gauza bera.

E.- EHU, Unibertsitate Pribatu eta Tolosaldeako heziketa-zikloei bisitak. Helburu nagusia, ikasketa horiek “in situ” ezagutzea da. Behar denean, autobusak antolatuko dira